bertsozale elkartea

# 2022ko memoria

# Aurkibidea


KOORDINAZIOA .... 4

Deskribapena .... 4

Proiektuak .... 11

HEZKUNTZA .... 15

Deskribapena .... 15

Proiektuak .... 21

IKERKUNTZA .... 35

Deskribapena .... 35

Proiektuak .... 37

XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA .... 43

Deskribapena .... 43

Proiektua .... 47

SUSTAPENA .... 62

Deskribapena .... 62

Proiektuak .... 67

HEDAPENA .... 74

Deskribapena .... 74

Proiektuak .... 81

KOMUNIKAZIOA .... 87

Deskribapena .... 87

Proiektuak .... 96

ADMINISTRAZIOA .... 99

Deskribapena .... 99

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA .... 112

BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA .... 128

BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA .... 132

GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA .... 138

NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA .... 148

## 2022 Egitasmoa

### 1. Ikerkuntza eta dokumentazioa

- *1.1 Doinutegia*
- *1.2 Bapatean antologia*
- *1.3 BTN22 liburua*
- *1.4 Euskaltzaindia ikerketa beka*
- *1.5 Kilometroak ikerketa beka*
- *1.6 Euskarabidea ikerketa beka*
- *1.7 Bilketa sarea berritu*
- *1.8 Mintegia*
- *1.9 . Bertsogintzaren tratamendu dokumentalaren egituratzea*
- *1.10 Datu-base dokumentalen garapena OMEKA sisteman*
- *1.11 Sistema dokumentalaren osotasunezko lanketa*
- *1.12 Digitalizazioa*
- *1.13 Biografientzat datu-baseak*
- *1.14 Bertso-ekitaldien saila*
- *1.15 Bertsoen corpusa*
- *1.16 Grabazioen saila*
- *1.17 Fototeka saila*
- *1.18 Liburutegi saila*
- *1.19 Hemeroteka saila*
- *1.20 Iragarkien saila*
- *1.21 Artxiboa saila*
- *1.22 Lan taldearen berregituraketa*
- *1.23 lan-prozesuen zaintza Sail eta Herrialdeekin*

xenpelar

### 2. Hezkuntza

- *2.1 Metodo didaktikoaren berrikuntza*
  - *Curriculuma*
  - *Ikerketa*
  - *Irakasleen formazioa*
- *2.2 Ikas material ekoizpena:*
  - *www.bertsoikasgela.eus*
  - *Karta jolasak*
  - *Liburua*
- *2.3 www.bertsoeskola.eus*
- *2.4 Bertso udalekuak*
- *2.5 Eskolartekoa*
- *2.5 Ahots baten sormen egonaldia*

### 3. Sustapena

Lanku

- *3.1 Plaza biziberritzen: Bidaiak*
- *3.2 Txapelketa Nagusia*
- *3.3 Ahalduntze bertso eskola feminista*
- *3.4 Gizonen bertso eskola feminista*
- *3.5 Gai-jartzaileen eskola*
- *3.6 Epaileen eskola iraunkorra*
- *3.7 Gazteen plazaratzea*
- *3.8 Bertsogintza foroa*
- *3.9 www.bertsosarrerak.eus*
- *3.10 Plazaren ikerketa*

euskal herriko bertsozale elkartea

### 4. Komunikazioa eta hedapena

- *4.1 www.bertsozale.eus*
- *4.2 www.bertsoa.eus*
- *4.3 Hitzetik Hortzera*
- *4.4 Irrati hedapena*
- *4.5 Ekoizpen bereziak*
- *4.6 Saioen grabazioak*

### 5. Elkarte kultura

- *5.1 Borondatezkoen parte hartze prozesua*
- *5.2 Berdintasun plana*
- *5.3 Bazkidetza gogoeta*
- *5.4 Finantza bide berriak*
- *5.5 Ondare izendapena*
- *5.6 Ekonomia sozial eraldatzailea*

# KOORDINAZIOA

## Deskribapena

| Urteko helburuak | BALORAZIOA |
|---|---|
| - Herrialde eta sailei babesa eta laguntza ematea eta haien jarraipena egitea. | - Post pandemia urtea izan da 2022a. Pandemiak ekarritako ondorioak kudeatzen ibili gara batez ere. Herrialdeetako lantaldeetan egon diren aldaketak kudeatu dira. |
| - Proiektu bateratuaren koordinazioa egitea. | - Proiektu bateratuen koordinazioa egin da eta herrialdeen inplikazioa handia izan da proiektu guztiak aurrera eramateko, besteak beste hauek izan dira elkarrekin egin ditugun proiektuak: eskolarteko sariketa, Txapelketa Nagusia, Bertso eguna eta Udalekuak. |
| - Ekonomia sozial eta eraldatzailea Bertsozale Elkartean lantzea eta egituraren prozesuan txertatzea. | - Bestelako finantza eredu baten hausnarketaren lehen pasuoak eman dira. Horretarako pertsonalean egin da inbertsioa aurtengoan eta baita lehen pausoak emateko gogoetaren diseinuan ere. |
| - Bertsozale Elkartearen harreman sarearen mapa osatzea | - Elkarlan marko berriak eraikitze bidean Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Euskaltzaindiarekin, Kutxa Fundazioarekin eta EITBrekin elkarlan marko berriak jasotzen dituen hitzarmenak landu dira. |

| Sailaren kudeaketa | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **Balorazioa** |

| | | |
|---|---|---|
| **Elkartearen funtzionamenduan eragitea** | **Koordinatzaile talde berriaren funtzionamendua zehaztu eta martxan jartzea**<br><br>**Bileren kudeaketa egokitu:**<br>Batzar Nagusia, Zuzendaritza, Lehendakaritza, Kudeaketa, Koordinazioa… Egutegien eta ordutegien betetzea, bileren iraupena eta dinamizazioa, informazioa landu.<br>**Aurrekontuaren gorabeherei jarraipena egin:**<br>- 50.000 emaitzara gerturatu.<br>- Zerbitzu komunen finantzaziorako ekarpen bateratua aztertu.<br><br>**Pertsonal gaiak landu:**<br>- Lan egutegiaren eta ordutegiaren zehaztea.<br>- Lan erregistroen jarraipena egiteko modua erabaki eta gauzatu.<br>- Irakasleen Langileen Eskubide eta Betebeharren (LEB) araudia berritu eta aplikatu.<br>- EHBEko langileen formazio bateratua bultzatu eta etorkizuneko plana zirriborratu. | Koordinatzaileen egitekoak bi pertsonak egitetik 5 pertsonak egitera pasa gara. Martxoan eman genuen aldaketa. Urte asko modu berean funtzionatzen egon ondoren kosta da lan kultura eta dinamika berriari heltzea baina pixkanaka bere emaitzak ematen ari da.<br>Erabakiguneak berdin mantendu dira. Gai proposamenen kopurua aldakorra izan da urtearen garaiaren arabera eta horregatik bileren dinamika ere aldakorra izan da.<br>Hiru hilabetero egin dugu aurrekontuaren jarraipena eta jarraipen zehatz hori egiteak ekarri du kontrol handiagoa izatea.<br>Finantza eredu berriaren gogoeta egiteko beharra dagoela erabaki da eta eredu berri horren diseinua antolatzen hasiak gara aurten.<br><br>LEB araudiaren berridazketa egin da. Oinarrizko txosten bat sortu da eta hori izango da abiapuntua langile guztien artean eztabaida emateko.<br>Barne araudi horretan bertan zehaztu dira ere formazioa eta lan erregistro sistemaren oinarriak.<br>Lan erregistroarekin langile batzuk hasi dira bakarrik eta haiek egindako lanetik ateratako ondorioetatik |

| | | |
|---|---|---|
| | | hartuko dira aurrera begirako erabakiak. ERPak errefistro honetarako dituen aukerak ezagutu ditugu eta sistema moldatzeko aukerak aztertzen hasi gara. |
| **2018ko gogoeta estrategikoaren dibulgazioa eta sozializazioa, eta funtzionamenduaren eta antolaketaren inguruko partaidetza prozesua garatu** | - Antolaketa eta funtzionamenduaren prozesuak emandakoen jarraipena gauzatu<br>- Borondatezko kideen parte hartzearen gaineko prozesua egin | - Gerora mugitzen aldizkaria frantsesera, gaztelaniara eta ingelesera itzuli dugu eta maketatu ditugu lehengo formatu berdinean. Txapelketako testuinguruan nazioartetik etorri diren kideei banatzeko baliatu ditugu aldiazkariak.<br>- Borondatezko kideen parte hartzearen gainean ez da prozesurik egin ahal izan berrantolaketak aurreikusi zen denbora baino gehiago eskatu diolako egiturari. Ondorioz, txapelketa urtearen ostean helduko zaio prozesu horri. |
| **Sailen eta herrialdeen egitasmoen jarraipena egin; eta egitasmoen eta sailen funtzionamenduaren jarraipena egin. Ikus, sailez sail egitasmoak (segidan)** | - Herrialdeekin harremanak estutzeko bideak topatu<br>- Konfederazioko proiektu bateratua definitu eta finantza bide bateratuen bila jarraitu. | - Sail desberdinek harremanak estutu dituzte herrialde batzuekin. Proiektuaren arabera urteko dinamikaren baitan ego da harreman horien sakontzea. Txapelketa Nagusia dela eta sail eta herrialde guztiak inoiz baino harreman estuagoarekin ibili dira.<br>- Herrialde batzuetako lantaldeetan egon diren aldaketak aitzakia oso ona izan dira harreman berriak eraikitzeko. |

| | | |
|---|---|---|
| **Harremanak eta elkarlanak: administrazioa, gizarte erakundeak eta enpresa.** | **Hitzarmenak zaindu:** Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Euskarabidea, Bizkaiko Foru Aldundia, Laboral Kutxa, Emakunde, Kutxa, EHU.<br>**Diru laguntzen etengabeko bilaketa eta lanketa:**<br>- Kultura, euskara, hezkuntza eta berrikuntza atalean daudenak identifikatu eta deialdi berriak aurkitu.<br>**Babesletza pribatua:**<br>- Babesletza sustatzeko enpresen interesguneak identifikatu.<br>**Gizarte erakundeetan parte-hartzea:**<br>- Euskalgintza: Kontseiluan parte hartu.<br>- Kulturgintzako eragileekin harremanetan jarraitu<br>- Kulturgintzaren transmisioaren gaineko markoetan parte hartu.<br>- Artisten estatutuaren lanketa egin Elkarte barruan eta inguruko eragileekin. | - Genituen hitzarmen guztiak mantendu dira. Jaurlaritzako HPSrekin dugun hitzarmenak igoera izan du, Mintzola proiektuak Euskaltzaindian jarraitzeak eragin ekonomikoa izan duelako ere Elkartean.<br>- Dirulaguntza berriekin saiatu gara. Batzuetan lortu dugu eta beste batzuetan ez (horren adibide da Europako funtsetan oinarrituta atera zen Next Generation deialdia. Ez baitigute onartu). Aldiz, funts berretik datozen Kit Digitalerako laguntzak lortu ditugu.<br>- Babesletza pribatuan babesle berriak topatu dira Txapelketa nagusiaren testuinguru zehatzean.<br>- Euskaraen Kontseiluan parte hartu dugu, aurten Batuz Aldatu dinamikaren baitan zentratuta ibili gara batez ere.<br>- Hezkuntza lege berriak kulturaren transmisioan izango duen eraginaz gogoetatzeko eta administrazioari eskaera zehatzak egiteko plataforman parte hartu dugu.<br>- Lanarteanen parte hartu dugu eta hainbat bilera egin dira Jaurlaritza eta Aldundietako Ogasuneko politikari zein teknikariekin. |

| | | |
|---|---|---|
| | **Publizitatea:**<br>- www.bertsoa.eus bideoen atariko publizitatea landu.<br><br>**Gure egitasmoen gonbidapenak** landu: txapelketen finalak, bereziki.<br><br>**Elkarlan egitasmoak ditugun erakundeen ekitaldietan elkarte ordezkaritza** landu. | - Euskaltzaindiarekin hitzarmen berria sinatu da.<br><br>- EITBrekin elkarlan marko berri bat sinatu da, nahiz eta aurrera begira eztabaida politikoago eta ez hain teknikoa egiteko beharra ikusten dugun.<br><br>- Txapelketaren testuinguruan bertsoa.euseko publizitatea lantzeko irizpideak markatu dira eta horren arabera egin dira proposamenak.<br><br>- Txapelketa Nagusiko gonbidapen irizpideak berrikusi eta birplanteatu dira. Horrela, herrialde, sail eta kanpo harremanetan genituen konpromisoak berrikusi eta bestelako gonbidatzeko moduak aplikatu ditugu.<br><br>- Elkartearentzako garrantzitsutzat jo diren ekitaldietan parte hartu dugu. Aurten, gainera, urteurren asko tokatu dira: Euskaltzaleen Topagunearen urteurrenean, Elhuyarren ospakizun ekitaldian, Euskararen Kontseiluaren ekitaldian eta abar. |

EHBE lantaldea

| Lan eremua | Dedikazioa |
|---|---|
| Elkarte kultura+koordi | 100,00% |
| Hedapen,sustapen+koordi | 100,00% |
| Finantzak eta gb+Koordi | 50,00% |
| Komunikazioa +Koordi | 100,00% |
| Sustapena +Koordi | 100,00% |
| Hezkuntza +Koordi | 100,00% |
| Ikerkuntza eragilea | 100,00% |
| Administrari eragilea | 100,00% |
| Xenpelar Dokumentazio Zentroko eragilea | 100,00% |
| Xenpelar Dokumentazio Zentroko eragilea | 100,00% |
| Elkarte kultura proiektu arduradun | 63% |
| Bertsoa.eus proiektu arduraduna | 100,00% |
| Hitzetik Hortzerako proiektu arduradun | 100,00% |
| Administrari laguntzailea | 50,00% |
| XDZ Dokumentazio zentroko teknikaria | 50,00% |
| XDZ Dokumentazio zentroko teknikaria | 74,00% |
| Diseinu teknikaria | 50,00% |
| Hedapen taldeko teknikaria | 100,00% |
| Hedapen taldeko teknikaria | 100,00% |
| Sustapen eta ikerkuntzako teknikaria | 54,50% |
| Marketineko proiektu arduradun | 100,00% |
| Egile eskubideak teknikaria | 50,00% |
| Saioen kudeaketa teknikaria | 50,00% |
| Lankuko administraria | 87,50% |
| Sustapen ekitaldien teknikaria | 80,00% |

## Proiektuak

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Publizitatea |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar |
| **Deskribapen motza** | Gure euskarrietan –bertsozale.eus edo bertsoa.eus- eta txapelketetan kudeatzen ditugun publizitateen koordinazioa. Euskarri hauek sortu, diseinatu, saldu eta kontabilitateak kudeatzea da proiektu honen oinarria. Era berean, Bertsozale Elkarteak ikuspegi kritikoa sortzea nahi da, eta iragarkien salmentarako irizpide propioak garatzea, bere ideologiarekin bat datozenak. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| Gure euskarri eta txapelketetako iragarkietatik diru sarrerak lortzea.<br><br>Iragarki hitzarmenen bidez, bestelako eragileekin harremanak indartzea.<br><br>Erreleboa prestatzea eta lan deialdia egitea.<br><br>Publizitate kartera berria lantzeko plana egitea | - Datu kualitatiboak eta kuantitatiboak<br>- Publizitatea jartzen dutenen aniztasuna eta gure zehar lerroekin alderaketa |

| **Balorazioa** |
|---|
| Txapelketa urtea izan denez, aprobetxatu dugu publizitate euskarri desberdinak sortzeko. Ohikoak genitun euskarriez harago 8aldizkaria, kartelak, mikrofonoak…) sortu ditugu publizitate euskarri digitalak: bannerrak eta spotak besteak beste.<br><br>Publizitatea jartzen duten enpresen abanikoa zabaldu dugu eta ate berriak jo ditugu. Oraindik gure zeharlerroak gehiago lantzeko beharra dagoen arren, emaitza positiboak eta harrera ona jaso dugu.<br><br>Jarri diren publizitate esukarri guztietan publizitate ez sexista (hizkuntzan eta irudian) bermatuta egon da. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Parte hartze prozesua (borondatezkoena eta aurrekoaren jarraipena) |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Jarraipena urte osoan<br>Borondatezkoena martxoa-ekaina |
| **Deskribapen motza** | Elkarteko egitura eta antolakuntza hobetzeko egin zen parte hartze prozesuan ateratako ekintza planaren jarraipena egin eta etengabeko hobekuntzetan sakontzea.<br>Borondatezko kideen parte hartzea aztertzeko eta aurrera begirako parte hartze moduak definitzeko prozesua diseinatu eta exekutatzea. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|

| | |
|---|---|
| - Gune guztietan jarraipena egitea<br>- Ekintzak aurrera eramateko baliabideak eskaintzea.<br>- Borondatezko kideen asetze eta sentsazioak jasotzea.<br>- Egungo egituran dauden hutsune eta indarguneak identifikatzea.<br>- Parte hartzeko modu berriak sortzea.<br>-<br><br>- Ekonomia Sozial Eraldatzaileak markatzen dituen adierazleen baitan egituraren hobekuntzak planteatzea: erabaki organoak, bazkideekin harremanak, egitura finantzieroa, Bertsozale Elkartearen sare komunitarioa identifikatzea. | - Guneen jarraipena egitea.<br>- Analisirako eta ekintza plana osatzeko tresnak diseinatu eta eskaini<br>- Barne eta kanpo komunikazioa<br><br>- Lanketa bakoitza egiteko diseinua egin eta jarraipena egiteko organoak identifikatu.<br>- Bazkideen Elkarteratzea<br><br>- Finantza ereduaren taldearen jarraipena<br>- Sare komunitarioaren mapa osatu |

| **Balorazioa** |
|---|
| Prozesuaren diseinua zirriborratzera iritsi gara. Izan ere, aurretik egindako partaidetza prozesuak eta berrantolaketak uste baino lan gehiago eskatu digu. Hori dela eta, ezin izan diogu prozesu honi nahi bezala eutsi.<br>Beraz, 2023ko erronketan jarri dugu prozesua diseinatzeaz amaitu eta egikaritzea. |

| **Proiektuaren izena:** | Eraso matxistak kudeatzeko protokoloa |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar |
| **Deskribapen motza** | Dagoeneko diseinatuta eta maketatuta dagoen Elkarte barrurako protokoloa Elkartea barruan ezagutzera ematea. Erantzun azkarreko gidaren aurkezpena egitea. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| - Protokoloaren sozializazioa egiteko saioak antolatzea.<br>- Erasoen lantaldearen jarraipena eta erreleboa pentsatzea eta diseinatzea.<br>- Aktibatzen diren kasuen datuak emateko sistema eta guneak adostea<br>- Komunikaziorako kanalen azterketa egitea.<br>- Berdintasun planean jasotzen den erasoen kudeaketarako ekintzekin uztartzea protokoloa | - Datu kuantitatiboak: zenbat kasu aktibatzen diren, zenbat kasu artxibatzen diren.<br>- Kasuak kudeatzen duten pertsonen zaintza. |

| **Balorazioa** |
|---|

- Protokoloa aurkeztu da herriade gehienetan eta gida azkarra eskuragarri jarri da bertso eskola eta gertuko antolatzaileengan.
- Harrera ona izan du orokorrean baina oraindik antzematen dira erresistentzia batzuk gaiarekin eta kontzientziazio planarekin jarraitzea eta prebentziorako neurriak jartzea ezinbestekotzat jotzen da.
- Kasuren bat kudeatu behar izan denean Emagin elkarteko aholkularitzarekin kontatu dugu. Oso garrantzitusa izan da aurrekontuetan aholkularitza hori egiteko partida bat izatea.
- Argiako erreportaje batean parte hartu dugu gai honen inguruan Bertsozale Elkartea adibidetzat erabili nahi izan zutelako.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Berdintasun plana |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan |
| **Deskribapen motza** | 2018ko gogoeta estrategikoan atera zen lan ildoari (feminismoari) erantzungo dion berdintasun plana diseinatzeaz amaitu eta exekutatzea. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| Berdintasun planaren diseinua amaitu, kontraste fasea buru eta exekuzioan hastea.<br>Zikloa irudikatuta uztea<br>Jarraipenerako mekanismoak martxan jartzea.<br>Ardura eta funtzio banaketak eginda uztea. | Parte hartze kopurua<br>Sail, proiektu eta herrialdeetan ekintza planak.<br>Jarraipen egituraren funtzionamendua |

| **Balorazioa** |
|---|
| Planaren diseinua egin da Farapi kooperatibaren bidelaguntzarekin.<br>Planaren hezurdura egin ostean, sailez sail eta herrialdez herrialde diagnosiak egin dira planak finkatzen dituen aratzen egoera zein zen jakiteko.<br>Diagnosi horietatik ekintza planak sortzea izan da eman den azken pausua. Pauso hau 2023an amaituko dugu eta hor izango ditugu 2023-2027 urte bitarteko plan feministaren diseinu osatua.<br><br>Berdintasun planetik plan feminista terminora pasatzeko erabakia hartu zen kudeaketa batzordean eta zuzendaritzak bere oniritzia eman zuen. Eraldaketa ekarriko duen plana izaki berdintasunaz harago joango den plana delako hartu zen erabaki hori. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Bazkidetza motei buruzko gogoeta eta kanpaina |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Apiriletik abendura |
| **Deskribapen motza** | Bertsozale Elkarteak 2400 bazkide inguru ditu.<br>Gogoeta egin nahi da gure bazkidetza motari buruz: bazkide motak, harreman motak…<br>Gogoeta funtzionamenduaren partaidetza prozesuaren baitan kokatu nahi da.<br>Gogoetaren ostean, 2022. Urteko txapelketa nagusia baliatu nahi da kanpaina egiteko. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| **Gogoeta egin kudeaketan eta zuzendaritzan**<br><br>**“Bazkidetza motak” berrantolatu antolatu:** elkarteak (bertso eskolak, enpresak, aportazio ezberdinak egiten dituzten norbanakoak…).<br><br>**Bazkideekin harremantzeko moduak antolatu**<br><br>**Kanpaina komunikatiboa egin** | Urtearen lehen sehilekoan gogoeta eta kanpainaren diseinua egingo dela ziurtatu, hartara kanpaina exekutatzeko aldia udazkenean izan dadin. |

| Balorazioa |
|---|
| Bakzidetzaren gainean gogoetatzeko sortu nahi ziren espazioak ezin izan ditugu sortu Txapelketak eskatzen zuen antolakuntzak ez digulako utzi eta ez delako egiteko lehentasunetan kokatu.<br>Hala ere, bazkidetzaz gogoeta egiteko beharrak jarraitzen du Elkartean. Beraz, Txapelketa pasa ostean helduko zaio gaiari. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Bertsolaritza Ondare immaterial izendatzea EAEn eta Iparraldean |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar |
| **Deskribapen motza** | 2021ean Frantziar estatuko izendapena egiteko tramiteak egin ziren. EAEn eskaera txostena erregistratuta dago eta erantzunaren zain gaude. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| Izendapen bat dagoenean komunikazio lanketa egokia egitea.<br><br>Jaurlaritzak bertsolaritza Ondare ez material izendatzea.<br>Elkargoarekin lehen harremanak bideratzea.<br>Unescoren hautagaitzarako administrazioan interesik baden aztertzea | Eskaerari baiezkoa edo ezezkoa.<br>Eskaerari baiezkoa edo ezezkoa.<br><br>Eskaerari baiezkoa edo ezezkoa. |

| Balorazioa |
|---|
| Frantziak eman dio azaroan ondare inmaterial izendapena bertsolaritzari. Beñat Iturraldek egin du txostengintza eta Ikerketa lana eta Euskal Herritik eta Bertsularien Lagunaketik egin da Koordinazioa.<br>Nafarroan dagoeneko izendapena badauka. EAEk ez du lehentasunetan sartu eta azkena geratu da tramiteetan. Eskaera duela 3 urte egin zen eta hainbat bilera egin dira honen inguruan.<br>Unesco etxearekin harremanak ere izan ditugu baina emaitzarik eta erantzunik ez dugu jaso. Aurrera begira Unesco Etxearekin eta ondare zuzendaritzarekin bilerak egitea da plana. |

# HEZKUNTZA

## Deskribapena

| Urteko helburuak | BALORAZIOA |
|---|---|
| - EHBE-ko hezkuntzako lantaldea eta egitasmoak koordinatzea.<br>- Herrialdeei hezkuntzan babesa eta laguntza ematea. Haien jarraipena egitea.<br>- Herrialdeekin batera eraikitzea EH-ko hezkuntza egitasmoak, parte hartze arduratsua zainduz denok. Proiektu bateratuaren koordinazioa egitea.<br>- Finantzaketa bateratua gauzatzea, herrialdeekin, ekimen hauetan: Eskolartekoa, materialgintza eta formazioa.<br>- Zaintza. Orekatzea egitasmoa, aurrekontua, eta giza baliabideak. Eta prozesuetan harremanak zaintzea, norberaren eta taldearen hazkunderako. | - EHBEko hezkuntzako lantaldea eta egitasmoak koordinatu dira.<br>- Herrialdeei jarraipena egin zaie, behar zenean laguntza eta babesa emanez.<br>- Proiektu bateratuak koordinatu dira, bertan herrialdeen parte hartzea zainduz eta erabakiak batzordeetan hartuz.<br>- Finantzaketa bateratua gauzatu da herrialdeekin Eskolartekoa, materialgintza eta formazioa proiektuetan.<br>- Prozesuetan harremanak zaintzeari jarri zaio begia. Egitasmoa, aurrekontua eta giza baliabideak orekatzeko ahalegina egin da. |

| Sailaren kudeaketa | | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | |

| | | |
|---|---|---|
| **Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Hezkuntza Saileko lankideen arteko funtzionamendu eraginkorra eta jasangarria lantzea** | - Koordinatzailearen eta saileko eragile/proiektu arduradun bakoitzaren (aisialdia, formazioa, materialgintza, diseinatzailea) funtzioak eta zereginak etengabe zehaztu eta zaintzea.<br>- Saileko lankideen arteko koordinazio iraunkorra lantzea.<br>- Sailean lanpostu jasangarriak antolatzea: zaindu eta jarraipena egin kide bakoitzaren lan-kargari. | - Koordinatzailearen eta saileko eragile/proiektu arduradun bakoitzaren funtzioak zehazteko dokumentuak osatu ditugu. Rol bakoitzaren funtzioak zaintzeari eta errespetatzeari arreta jarri diogu urtean zehar, prozesuetan.<br>- Saileko lankideen arteko koordinazio iraunkorra bermatu dugu urte osoan zehar, behar zenetan bilerak eginez.<br>- Sailean lanpostu bizigarriak antolatzeko, kide bakoitzaren lan-kargari jarraipena egin diogu. |

| | | |
|---|---|---|
| **Hezkuntza Saileko batzordeak kudeatzea, erabakigune bakoitzaren gaiak zainduz** | **Batzorde Txikia**<br>- Hezkuntza Batzordean eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritzan landu beharreko gaiei jarraipena egitea.<br>- Euskal Herriko proiektuak eta gaiak kontrastatzeko baliatzea.<br>- Borondatezko arduradunaren (Oihanaren) parte-hartzea zaintzea, erritmo ezberdinak uztartuz.<br>**Hezkuntza Batzordea**<br>- Herrialdeen parte hartzea eta koordinazioa zaintzea.<br>- Euskal Herriko proiektuak herrialdeekin eraikitzea eta erabaki nagusiak bertan hartzea zaintzea.<br>- Eskolartekoa, formazioa eta materialgintzako aurrekontu bateratuei jarraipena egitea eta ikasturteko erabakiak hartzea batzordean.<br>- Bileren dinamika eta informazio trukea zaintzea.<br>**Batzorde Pedagogikoa**<br>- Herrialdeetako ordezkarien parte-hartzea eta koordinazioa zaintzea.<br>- Didaktikan, formazioan eta materialgintzan erabaki estrategikoak bertan lantzea eta prozesuak lantaldetik bideratzea.<br>- Bileren dinamika eta informazio trukea zaintzea.<br>**Irakasle mintegiak** | **Batzorde Txikia**<br>- Hilero elkartu gara edo kideen arteko kontrastea egin dugu, erabakiguneetan landu beharreko gaiei jarraipena egiteko: hezkuntza batzordean, batzorde pedagogikoan eta EH-ko zuzendaritzan zer gai landu adosteko.<br>- EH-ko proiektuen eta gaien kontrastea egin dugu bertan.<br>- Borondatezko arduradunaren parte-hartzea zaindu dugu, erritmo ezberdinak uztartzeko. Bai bilera hitzorduak jartzerakoan eta baita atseden tarteak emateko ere. Arduradunak akten bidez egin die jarraipena batzordeei; eta Batzorde Txikian koordinatu da eragileokin.<br>**Hezkuntza Batzordea**<br>- Hilean behingo maiztasunez elkartu gara eta herrialdeen parte hartzea eta koordinazioa zaindu dugu.<br>- Euskal Herriko proiektuetan, prozesuan herrialdeei parte hartzeko guneak eta uneak eman zaizkie, erabaki nagusiak elkarrekin hartuz.<br>- Eskolartekoa, formazioa eta materialgintzako aurrekontu bateratuei jarraipena batzordean egin zaie eta ikasturteko erabakiak bertan hartu ditugu.<br>- Bileren dinamika eta informazio trukea zaindu dugu.<br>**Batzorde Pedagogikoa** |

| | | |
|---|---|---|
| | - Didaktikan, formazioan eta materialgintzan irakasleek aktiboki parte har dezaten, ikasturteko prozesuak zaintzea.<br>- Herrialdeetako irakasle mintegietara errondak egitea eta informazio trukea zaintzea.<br>**Aisialdi batzordeak: Udalekuen Batzordea eta Sormen egitasmoen Batzordea**<br>- Batzordean soldatapeko eta borondatezkoen engranaje egokia zaintzea.<br>- Proiektu bakoitzaren barne erabakiak dagokien guneetan hartzea.<br>- COVID-19 egoerara egokitzeko forma eta modu berriak diseinatzea, egiteko aukera ez baztertzen saiatzea. | - Hilean behingo maiztasunez elkartu gara eta herrialdeetako ordezkarien parte-hartzea eta koordinazioa zaindu dugu.<br>- Didaktikan, formazioan eta materialgintzan erabaki estrategikoak bertan landu ditugu eta prozesuak lantaldetik bideratu dira.<br>- Bileren dinamika eta informazio trukea zaindu dugu.<br>**Irakasle mintegiak**<br>- Didaktikan, formazioan eta materialgintzak irakasleek aktiboki parte har dezaten, ikasturteko prozesuak zaindu ditugu.<br>- Herrialdeetako irakasle mintegietara errondak egin ditugu. Informazio trukea zaindu dugu.<br>**Aisialdi batzordeak: Udalekuen Batzordea eta Sormen egitasmoen Batzordea**<br>-Udalekuen Batzordeaz bilerak egin ditugu, egitasmoaren erabaki nagusiak hartu eta jarraipena egiteko. Batzordean soldatapeko eta borondatezkoen engranajea zaindu da.<br>-Aldiz, Sormen egitasmoen batzorderik ez dugu osatu: egitasmo hauek antolatzeko ardura Euskaltzaindiak hartu du eta guk elkarlana egin dugu Euskaltzaindiaz, zegozkigun guneetan parte hartuz.<br>-COVID19-ak oraingoan ez digu landu beharrekorik ekarri, egoera bere onera itzuli denez. |

| | | |
|---|---|---|
| **Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko gainerako sailekin eta lantaldearekin koordinazioa zaintzea** | - EHBEko antolaketa berriaren baitan, hezkuntza sailaren antolaketan ere dagozkion aldaketak bideratzea.<br>- Euskal Herriko Elkarteko lantaldea zaintzea, partaide gisa.<br>- Beste sailekiko eta zehar-lerroekiko koordinazioa zaintzea.<br>- Elkarteko funtzionamenduaren parte-hartze prozesuan gure sailean zehaztutako eraldaketak gauzatu eta planari jarraipena egitea. | -EHBEko antolaketa berriaren baitan, hezkuntza sailaren antolaketan ere aldaketak bideratu ditugu:<br>• Hezkuntza eragile bakarra izatea EHBEn. Eta hezkuntzako proiektuak eta arduradunak koordinatzeko funtzioa izatea.<br>• Hezkuntza eragileak materialgintza ildoaren ardura izatea.<br>• Hezkuntza eragileak dedikazio zati batez EHBEko koordinazio funtzioak hartzea, beste koordinatzaileekin talde lanean.<br>• Udalekuak antolatzeko bi figura sortzea: udaleku koordinatzailea eta proiektu arduraduna.<br>• Eskolartekoa antolatzeko ardura sustapen eragileak hartzea.<br>• Hezkuntza berrikuntza ildoaren ardura Gipuzkoako hezkuntza eragileak hartzea.<br>-Hezkuntza saileko erabakiguneak eta bakoitzeko partaideak eta taldearen koordinatzaileak ere zehaztu ditugu:<br>• Hezkuntza batzorde txikia. Koordinatzailea: EHBEko hezkuntza eragilea.<br>• Hezkuntza batzordea. Koordinatzailea: EHBEko hezkuntza eragilea.<br>• Batzorde pedagogikoa. Koordinatzailea: Hezkuntza berrikuntza arduraduna.<br>• Udaleku batzordea. Koordinatzailea: Udalekuen koordinatzailea.<br>-Euskal Herriko Elkarteko lantaldea, partaide gisa, zaintzeari arreta jarri diogu. |

| | | |
|---|---|---|
| | | -Beste sailekiko eta zehar-lerroekiko Koordinazioa zaindu dugu.<br>-Elkarteko funtzionamenduaren parte-hartze prozesuan gure sailean zehaztutako eraldaketak gauzatu ditugu, planari segiz:<br>• Saileko eragiletza eta azpibatzordeak definitu ditugu.<br>• Batzorde bakoitzaren funtzioak eta kideak zehaztu ditugu.<br>• Kideen arteko ardura banaketa egin dugu. |

## Proiektuak

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Bertso bildumak (Bertsometak eta Bilbertsoak) |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarrila-iraila |
| **Deskribapen motza** | 2021-2022 ikasturteko bertso bildumak diseinatu, argitaratu eta banatzea Gipuzkoan eta Bizkaian.<br>Eta Bertsoikasgelan, diseinuaren automatizatze funtzioa garatzea. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **-2021-2022 ikasturteko bertso bildumak argitaratzea** | -Diseinatzaileak eta herrialdeek (Gipuzkoak eta Bizkaiak), ekoizpen prozesua eta kronograma zehaztea.<br>-Irakasle mintegiek sortutako edukiekin, bildumak maketatzea.<br>-Inprentako ekoizpen prozesua eta aurrekontuak kudeatzea.<br>-Herrialdeetara banaketa epeetan egitea. |
| **-Datozen urtetan, bertso bildumekin jarraitzeko asmoa duten argitzea herrialdeekin** | -Gipuzkoako irakasle mintegia egiten ari den lanketari jarraipena egitea.<br>-Bizkaia eta Gipuzkoarekin argitzea jarraituko duten eta formatua. |
| **-Bildumen diseinua automatizatzeko, Bertsoikasgela.eus garatzea** | -Automatizazioaren diseinua egitea, partaideon artean: Codesyntax, diseinatzailea, materialgintza arduraduna, Gipuzkoa eta Bizkaiako hezkuntza eragileak.<br>-Automatizazioak eskatuko duen maketazioaren diseinua egitea.<br>-2022-2023 ikasturterako prest izatea. |

| **Balorazioa** |
|---|
| -2021-2022 ikasturteko bertso bildumak argitaratu ditugu Bizkaian eta Gipuzkoan, prozesua ondo zainduta. Diseinatzailea eta herrialdeak ondo koordinatu dira; irakasle mintegiek sortutako edukiekin maketatu dira bildumak; inprentako ekoizpen prozesua eta aurrekontuak kudeatu dira.<br><br>-Datozen urteei begira, bertso bildumekin jarraitzeko asmoa adierazi da (edo epe laburrera, alternatibarik ez dela ikusten).<br><br>-Bildumen diseinua automatizatzeko Bertsoikasgela.eus ataria garatu dugu. Codesyntax, diseinatzailea eta Gipuzkoa eta Bizkaiako hezkuntza eragileak koordinatu ditugu diseinua elkarrekin egiteko. Maketazio lana eta web garapena abenduan amaitzera goaz. 2022-2023 ikasturteko bildumak webgunetik automatizatutako ekoizpen prozesuaz egingo ditugu. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | www.bertsoeskola.eus |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar, asteroko maiztasunez berrituz. |
| **Deskribapen motza** | Astero edukiak berrituko dira, aktualitateari jarraipena eginez. Horrez gain, atal hauek garatuko dira: "Hasiberriak" atala, "Gaitegia" atala, "Ganbara" atala eta "Bertso jarriak" atala. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **-Bertso-eskolentzat interesgarria denetik abiatuta, aktualitateari jarraipena egitea** | -Bertso-eskolek antolatzen dituzten ekimenei bozgorailua jarri eta bertso-eskolei jakinaraztea.<br>-Bertso-eskolei Elkartetik eskaini nahi dizkiegun aukera, ekimen, baliabideen berri komunikatzea.<br>-Bertsolaritzaren aktualitateari jarraipena egitea, antolatzaileen eta hedabideen aniztasuna bisibilizatuz. |
| **-Bertso-eskolentzat laguntza eskatzeko gunea izatea, babesa ematea** | |
| **-"Hasiberriak" atala garatzea** | -Bertso-eskoletatik datozen eskariei erantzutea, laguntzeko jarreraz.<br>-Diasporako bertsolariak/bertso-eskolak zaintzea.<br><br>-Karta jolasak- azpiatala garatzea. |
| **-"Gaitegia" atala garatzea** | -2021eko gai hautatuak jarriz bertan. |
| **-"Bertso jarriak" atala garatzea** | |
| **-"Ganbara" atala garatzea** | -Urtean zehar zabaltzen diren bertso jarriei eta sariketei jarraipena egin eta ale hautatuak bertan argitaratzea.<br><br>-Artxiboko zein aktualitateko bertsoaldi eta ikus-entzunezko ale hautatuak bertan argitaratzea. |

| **Balorazioa** |
|---|
| -Google Analytics-en arabera, 2022an (urtarrilaren 1etik azaroaren 23ra arte) atariak 16.000 erabiltzaile ezberdin izan ditu (bertso-eskoletan 1.500 partaide aritzen dira; horietatik, helduak 600 dira). Saioen bataz besteko iraupena 2'20 minutukoa izan da.<br><br>-Aktualitateari jarraipena egin diogu, asteroko maiztasunez albisteak hedatuz: bereziki jarraipena egin diegu bertso-eskolek antolatzen dituzten ekimenei eta Bertsozale Elkartetik bertso-eskolei zuzenduta antolatzen diren egitasmoei. Guztira 170 albisteren zabalkundean eragin dugu. |

-Bertso-eskoletatik etorri diren eskariei erantzun diegu (erreferentziak, euren ekimenen komunikazioan laguntzea…), behar zuten laguntza emanez.

-Diasporako bertsolariekin ere harremana izan dugu webgunearen bidez. Todor Azurtzaren eskutik Boiseko Euskal Etxean egiten ari diren bertso egitasmoaren berri jaso eta zabaldu dugu.

-“Hasiberriak” atalean eduki berriak igo ditugu: 10 karta jolas multzo eta beste 10 pantaila jolas.

-“Gaitegia” atalera eduki berriak igo ditugu, 2021an plazan jarritako gai hautatuak ekarriz bertara, baita bertso-eskolek helarazitako gaiak ere. Guztira 69 gai hautatu ekarri dira.

-“Bertso jarriak” atalera 34 bertso sorta hautatu igo ditugu, euren audio edo-eta bideoekin. Urtean zehar zabaldu diren bertso jarriei eta sariketei jarraipena egin diegu.

-“Ganbara” atalera 17 bertsoaldi hautaturen ikus-entzunezkoak igo ditugu.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | www.bertsoikasgela.eus |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar, asteroko maiztasunez berrituz. |
| **Deskribapen motza** | Astero edukiak berrituko dira, aktualitateari jarraipena eginez eta asteko lanketa didaktikoak proposatuz. Horrez gain, “Zozoak beleari II”ko material berriak sortu eta atariratuko dira. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **-Bertsolaritzako aktualitateari jarraipena egitea** | -Urteko data seinalatuen egutegia osatzea, bakoitzari dagokion albistea sortuz.<br>-Bertsolaritzako albisteak (haurrei zuzenduak) argitaratzea. |
| **-Astero lanketa didaktikoak proposatzea, egutegiko data seinalatuei jarraituz eta bertsoaren lanketa progresiboa zainduz** | -Bi astero portadan lanketa bat proposatzea, gai baten inguruko baliabide ezberdinekin.<br>-Bertsotan egiteko ariketak proposatzen direnean, aldiro mailaren araberako jarduera ezberdinak eskaintzea. |
| **-“Zozoak beleari II” ikasmateriala sortzea, webgunerako bertsioan** | -Sekuentzia didaktikoak sortu eta sareratzea, bakoitzari lotutako eduki guztiekin.<br>-Karta jolasen pantailarako bertsioak sortzea.<br>-Bertso sorten bideoak ekoiztea. |
| **-Haurrentzat bertso saio bat (eredu gisa) grabatzea eta sareratzea** | -Haurrentzat egokia den bat-bateko saio bat grabatzea, hedapen lantaldeaz (ikasturte amaierako jaialdia ala saio didaktiko bat). |

| | |
|---|---|
| | -Zati hautatuak editatu eta webguneratzea. |
| **-Diseinu lanak gauzatzea** | -Diseinu lanei dagokienez, artxiboa ondo antolatzea.<br>-Diseinu lanetarako behar den dedikazioa bermatzea. |
| **-IkasElkarrekin, material trukeak gauzatzea** | -Elkarlan prozedurak argitzea (marko orokorreko hitzarmenaz eta eskariak egiteko fitxaz) eta gauzatzea, beharrak sortu ahala.<br>-Bertsoikasgelan baliatzeko, KIMU-ko bertso sortak eskuragarri jartzea.<br>-Bertsoikasgelan ditugu edukien berri ematea IkasElkarri, hezkuntzan baliatu ditzaten. |

| **Balorazioa** |
|---|
| -Google Analytics-en arabera, 2022an (urtarrilaren 1etik azaroaren 23ra arte) atariak 49.000 erabiltzaile ezberdin izan ditu (ikastetxeetan 29.000 ikasle aritu dira Bertsolaritza lantzen Bertsozale Elkartearen eskutik). Saioen bataz besteko iraupena 5'30 minutukoa izan da.<br><br>-Bi astero portadan lanketa didaktiko bat proposatu dugu, gai bat ardatz hartuta. Batzuetan gaiak egutegiko egun seinalatuen ingurukoak izan dira: martxoak 8, azaroak 25, Euskaraldia, Gabonak…<br><br>-Bertsolaritzaren berri eman dugu, haurrei zuzendutako ekimenen komunikazioa eginez atarian.<br><br>-"Zozoak beleari… Kopla bi!" 2. ikasturteari dagokion materiala sareratu dugu, pantailarako bertsioak sortuz. Bertan, bertsotan egiteko ariketak proposatu ditugu, maila ezberdinei erantzuteko aukerak jarriz. Sekuentzia didaktiko berriak sortu ditugu (guztira 10), bakoitzari lotutako edukiekin. Karta jolasak sareratu ditugu. Bertsolariek haurrei zuzenduta espreski jarritako bertso sortak ekoiztu ditugu eta ikus-entzunezkoekin sareratu.<br><br>-Haurrentzat eredugarri izango den bertso saio bat grabatu dugu: Ondarroako ikastetxeek ikasturte amaieran eskaini zuten jaialdia. Hedapen lantaldeaz egin dugu grabaketa eta zati hautatuak atarira igo ditugu, haurrek euren adinkideak bertsotan bat-batean ikusteko erreferenteak izan ditzaten.<br><br>-Diseinu lanak gauzatu ditugu, EHBEko diseinatzailearen dedikazio iraunkorraz zein kontratazioen bidez. Diseinu lanen artxiboa antolatu eta gorde dugu.<br><br>-Ikaselkar hezkuntza argitaletxearekin material trukeak gauzatu ditugu. Bi erakundeen arteko elkarlan prozedurak argitu ditugu: marko orokorreko hitzarmena sinatuz eta eskariak egiteko fitxa ereduak sortuz. Bertsoikasgelan baliatzeko, Ikaselkarrek bere KIMU ikasmaterialerako sortu dituen bertso-sortak eskuratu ditugu eta gure atarian zabaldu. Bertsoikasgelan ditugun edukien berri ere eman diogu Ikaselkarri, euren proiektuetan baliatu ditzaten. Eta KIMU 3. mailarako bertso sorten ekoizpenean aholkularitza eta bidelaguntza eskaini diogu Ikaselkarri. |

-“Gure mitologia” proiektuan ere elkarlanean aritu gara Urko Egaña bertsolaria eta bere sortzaile taldearekin. Bertso sorta eta ikus-entzunezkoa gure atarian dago ikusgai.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Ikasliburua berritzea (“Zozoak beleari… Kopla bi! II”) |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarriletik irailera |
| **Deskribapen motza** | Ikastetxeetan bertsolaritza 2. Ikasturtez lantzeko ikasliburua berritzea. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| **“Zozoak beleari…I” materialean jarritako oinarriei jarraituz, bigarren urteari dagokion ikasliburua diseinatzea.** | -Batzorde pedagogikoan adostea 2. Ikasturteari dagokion oinarria/hezurdura.<br>-Ikasmaterialaren diseinuan, kontutan izatea: webgunean zer joango den, karta jolasetan zer joango den eta ikasliburuan zer joango den. |
| **Ikasliburua paperean inprimatu ala ez, gaia landu eta erabakia hartzea** | -Batzorde pedagogikoan partekatu, liburua paperean zein herrialdeek erabiliko duen eta zer kopurutan. Tiradaren araberako aurrekontua ezagutzera eman herrialdeoi eta hartzen duten erabakia gauzatu (diseinuan eragina du). |
| **“Zozoak beleari… I” materialaren balorazioa egin, irakasle mintegiekin** | -Lehen urteko ikasmaterialetik, balorazioak jaso, 2. ikasturtean zer zaindu jakiteko. |
| **Irakasleek sortzea gero eurek erabiliko duten materiala.** | -Irakasle mintegi guztietan aurkeztea proiektua eta parte hartzeko aukera irakasle denei ematea.<br>-Herrialde bakoitzean lantalde bakoitzari ardura zehatzak eman eta koordinatzea, tokiko ordezkariaren bidez.<br>-Irakasleei (norbanakoei) laguntza zehatza eskatzea. |
| **Prozesuaz gozatzea: gure sormenaz gozatzea (helduok sortzen gozatzea, gero haurrei eman nahi diegun horrekin).** | -Irakasleak sortzaile sentitzea. Nork bere sormenaz eta ekarpenaz gozatzea. Nork bere onena ematea. |
| **Prozesuan harremanak zaintzea. Parte hartze arduratsuaz, besteen lanarekiko errespetuz, norberaren eta taldearen hazkundeaz.** | -Diseinatzailea prozesuaren partaide izatea eta bere sormenetik eman ahal izatea irakasle taldeari.<br>-Taldeko bileren dinamizazioa ondo landuta eramatea. |

| | |
|---|---|
| | -Taldea prozesu osoan zehar zaintzea: informazioa emanez, ekarpenak jasotzeko bideak jarriz.<br>-Taldeko arauak esplizitatzea: besteen lanarekiko errespetua zaintzeko eta ekarpenak modu eraikitzailean egitera erresponsabilizatzeko.<br>-Taldean eraikitzen duguna ospatzea, emaitzaren kalitateari soilik erreparatu gabe. |

**Balorazioa**

-"Zozoak beleari… Kopla bi!" lehen urteko ikasmaterialean jarritako oinarriei jarraituz, bigarren urteari dagokion ikasmateriala ekoiztu dugu. Batzorde pedagogikoan egin dugu materialaren oinarrizko diseinua. Eta kontutan izan dugu formatu bakoitzean zer eskaini: www.bertsoikasgela.eus atarian, karta jolasetan eta ikasliburuan zer eduki argitaratu.

-Ikasliburua paperean inprimatzeko hautua egin dute Arabak eta Bizkaiak. Tiradaren araberako aurrekontuak ezagutzera eman dizkiegu erabakiak har zitzaten.

-Herrialdeetako irakasle mintegietara erronda egin dugu, "Zozoak beleari" 1. ikasturteko materialaren balorazioak jasoz. Ondorio eta proposamen hauek kontutan izan ditugu bigarren urteari dagokion materiala sortzerakoan.

-Irakasleek zuzenean esku-hartu dute materialaren eduki sorkuntzan, ondoren gelara eurek eramango dutenez. Irakasle mintegi guztietan aurkeztu dugu proiektua, eta mintegi denak lantaldeka antolatu ditugu, sormen prozesuan parte har zezaten. Lantalde bakoitzari ardura zehatzak eman zaizkio, eta prozesua koordinatu dugu tokiko arduradun pedagogikoen bidez. Irakasle batzuri (norbanako gisa) laguntza zehatza ere eskatu zaio (esaterako, doinuen hautaketan laguntzeko zein tematika jakinen lanketarako).

-Prozesuaz goza genezan, moduei eman diegu garrantzia: helduok sortzen goza genezan, gero haurrei eman nahi diegun horrekin. Irakasleak sortzaile sentitu zitezen eragin dugu, nork bere onena eman zezan eta bere sormenaz eta ekarpenez goza zezan. Halaber, diseinatzailea ere material sorkuntza prozesuaren partaide izan da, bere sormenetik eman ahal izateko irakasle taldeari. Sormenean parte hartu dute bertsolari, musikari eta ilustratzaileekin ere prozesuaz goza genezan zaintzen eta goxatzen saiatu gara.

-Prozesuan harremanak zaintzeari garrantzia eman diogu: parte hartze arduratsua sustatuz, besteen lanarekiko errespetuz, eta norberaren eta taldearen hazkundea bilatuz. Horretarako, taldeko bileren dinamizazioa ondo landuta eraman dugu. Taldea prozesuan zehar zaindu dugu: informazioa emanez eta ekarpenak egiteko bideak jarriz. Sorkuntza prozesuan taldeko arauak ere esplizitatu ditugu: besteen lanarekiko errespetua zaintzeko eta ekarpenak modu eraikitzailean egitera erresponsabilizatzeko. Taldean eraiki duguna ospatzeari, zoriontzeari eta eskertzeari jarri diogu arreta, emaitzaren kalitateari soilik erreparatu gabe.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Karta jolasak |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarrila-iraila |
| **Deskribapen motza** | "Zozoak beleari…II" ikasmaterialari dagokion karta sorta ekoiztea. Eta 1. eta 2. urteko karta joko hauek, saltzeko aukera landu eta gauzatzea. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **-"Zozoak beleari..I" karta jolasen balorazioa egitea.** | -Irakasle mintegi guztien balorazioak jasotzea, gelan zer moduz funtzionatzen duten jakin eta 2. urteko kartetan zaindu beharrekoak identifikatzeko. |
| **-"Zozoak beleari… II" karta jolasak ekoiztea** | -Ikasmaterial hori osotasunean hartuta, karta jokoetan eman beharreko edukiak sortzea, irakasle mintegietan.<br>-Karta jokoak diseinatzea.<br>-Karta jokoen inprenta gastuak eta gestioak bideratzea. |
| **-"Zozoak beleari…" karta jokoen salmenta aztertu eta gauzatzea** | -Xede taldea zehaztea.<br>-Salmenta prozesua zehaztu (EH-herrialdeak).<br>-Finantzaketa landu. Gastuak, prezioak, kobraketak.<br>-Komunikazioa landu. |

| **Balorazioa** |
|---|
| -"Zozoak beleari… kopla bi!" karta jolasetan, lehen ikasturteari zuzendutako karta bildumen balorazioa jaso dugu, herrialdeetako irakasle mintegietan egindako errondan. Gelan zer moduz funtzionatzen duten azaldu digute irakasleek, 2. urteari zuzendutako karta bilduman zer zaindu azalduz.<br><br>-"Zozoak beleari… kopla bi!" bigarren ikastuteari zuzendutako karta jolasak ekoiztu ditugu. Horretarako, batzorde pedagogikoan diseinatu dugu, ikasmateriala bere osotasunean hartuta, karta jokoetan eman beharreko edukiak zein ziren. Ostean, irakasle mintegietan lantaldeak eratu ditugu eta lantalde bakoitzarekin sorkuntza prozesua koordinatu dugu, eduki zehatzak sortuz. Diseinatzaileaz karta jokoak maketatu ditugu eta inprentaz ekoizpena, banaketa eta gastuak kudeatu ditugu.<br><br>-Karta jokoen salmentaren azterketa ez dugu gauzatu, astirik eman ez digulako. Ikastetxe batzuek azaldu digute erosteko interesa (galdezka etorri dira), baina materialaren finantzaketa, komunikazioa, salmenta eta banaketa tentuz landu beharko genuke gauzak ondo egiteko eta nahikoa astirik ez dugu izan horretarako. Aukera honi beste urteren batean heltzea erabaki dugu. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | AHOSTEGUNAK |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Maiatzetik abendura |
| **Deskribapen motza** | 2019. urtean lehen aldiz martxan jarri zen Ahostegunak proiektua, Mintzola eta EHUko Laboa Katedraren arteko elkarlanean, eta Bertsozale Elkartearen laguntzarekin. Euskaltzaindiako Tolare baserriko ganbaran egiten da.<br><br>Unibertsitatean dabiltzan ikasleei ahozko kultur sorkuntzako disziplina desberdinak ezagutzeko proiektua da. Ahots Batenen ideiatik ateratako egitasmoa da.<br><br>Bost ostegunetan egiten da, egun bakoitzean disziplina bat lantzen da: literatura, bertsolaritza, kantugintza eta antzerkia. Eta azken egunean, parte hartu duten sortzaile guztien artean mahai inguru txiki bat egiten da. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **-Argitu egitasmoaren antolatzailea(k) nor izango den** | -Euskaltzaindiarekin argitu "Ahostegunak" ekimena zein erakundek antolatuko duen. Elkarlanerako aukerak aztertu (antolaketan, finantzaketan). Erabaki egitasmoa antolatu/ez, nola. |
| **-Egitasmoa zein fakultateetan antolatu aztertu** | -Donostian jarraitu ala beste hiriburu batean egin, aztertu. Unibertsitateaz adostu. |
| **-Proiektu arduradunaren funtzioak/baldintzak zehaztu eta gauzatu** | -Proiektu arduradunaren baldintzak/funtzioak zehaztu. Arduraduna izendatu. Akonpañatu, lagundu. |
| **-Hezitzaile taldean erreleboa eman. Taldea osatu, zaindu** | -Partaide berriekin taldea osatu. Transmisioa egin. Akonpañatu. Egiten utzi eta lagundu. |
| **-Ekimena arrakastaz antolatu eta gauzatu** | -Erakundeekiko harremanak/elkarlana bideratu (Euskaltzaindia, Unibertsitatea…).<br>-Azpiegiturak lotu, jarraipena egin, bermatu.<br>-Partaideekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu.<br>-Hezitzaile taldearekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu.<br>-Sortzaileekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu.<br>-Administrazio lanak egin.<br>-Komunikazio lanak egin. |

| Balorazioa |
|---|
| -Euskaltzaindiarekin argitu dugu ekimena antolatzea zein erakunderi dagokion: hemendik aurrera Euskaltzaindiak hartuko dugu egitasmoaren lidertza eta Bertsozale Elkartetik laguntza eskaintzen ariko gara, bertan gazteei zuzenduta bertsolaritzaren lanketa ahalik eta modu erakargarrienean egingo dela bermatzeko.<br><br>-Edizio honetan baina, Ahostegunak-en egitarauan Bertsozale Elkartetik ez dugu ekarpenik egiteko aukerarik izan (ziurrenik, denboraz estu ibili direlako). Koordinazio funtziorako Euskaltzaindiak Eider Perez izendatu du (Bertsozale Elkarteak ekimena antolatzen zuenean ere, funtzio horretan aritzen zena) eta berak bermatu du bertsolaritzaren presentzia. Datorren edizioari begira, baina, Bertsozale Elkarteak erakunde gisa parte hartzeko aukera eskatu behar genioke Euskaltzaindiari.<br><br>-Bertsozale Elkartetik ekimenaren komunikazioan lagundu dugu, bertsolaritzako gazte sarera aukeraren berri iritsi zedin eta parte hartzeko deia eginez.<br><br>-Edizio hau Gasteizen egin da, Euskaltzaindiaren egoitzan (orain arte Donostian egin izan da eta Bertsozale Elkartetik Gasteizen egiteko proposamena luzatu genuen, bertan unibertsitate giro handia dagoenez eta Euskal Filologiako ikasleak izan daitekeenez parte hartzeko perfila dutenak). Guztira 29 gaztek eman dute izena. Azaroaren 17tik abenduaren 1era gauzatu da, ostegunetan egin diren arratsaldeko saioetan. Egitarauan parte hartu duten euskarazko sortzaileak Miren Amuriza eta Uxue Alberdi bertsolariak, Merina Gris taldea eta Marina Suarez artista izan dira. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Ahots baten sormen egonaldia |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Irailetik abendura |
| **Deskribapen motza** | Bertsozale Elkarteak eta Mintzola Ahozko Lantegiak elkarlanean sortu zuten proiektua da.  Euskal Herriko gazte sortzaileek harreman sareak egin, sormen diziplina ezberdinak probatu/gozatu eta euskarazko sortzaileak zuzenean ezagutzea dira bere helburuak.<br>Gabonetan aterpetxe batean egonaldia egiten da gazteekin, hezitzaile talde batek gidatuta, eta artista gonbidatuekin diziplina ezberdinak esperimentatzen dira.<br>EH-ko Eskolartekoko finalisten sari nagusia ere bada egonaldia. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| **-Argitu egitasmoaren antolatzailea(k) nor izango garen** | -Euskaltzaindiarekin argitu “Ahots Baten” ekimena zein erakundek antolatuko duen. Elkarlanerako aukerak (antolaketan, finantzaketan). |
| **-Proiektu arduradunaren funtzioak/baldintzak zehaztu eta gauzatu** | -Proiektu arduradunaren baldintzak/funtzioak zehaztu. Arduraduna izendatu. Akonpañatu, lagundu. |

| | |
|---|---|
| **-Hezitzaile taldean erreleboa eman. Taldea osatu, zaindu**<br><br><br>**-Ekimena arrakastaz antolatu eta gauzatu** | -Partaide berriekin taldea osatu. Transmisioa egin. Akonpañatu. Egiten utzi eta lagundu.<br><br>-Azpiegiturak lotu, jarraipena egin, bermatu.<br>-Partaide/gurasoekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu.<br>-Hezitzaile taldearekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu.<br>-Sortzaileekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu.<br>-Administrazio lanak egin.<br>-Komunikazio lanak egin. |

| **Balorazioa** |
|---|
| -Euskaltzaindiarekin argitu dugu ekimena antolatzea zein erakunderi dagokion: hemendik aurrera Euskaltzaindiak hartuko dugu egitasmoaren lidertza eta Bertsozale Elkartetik laguntza eskaintzen ariko gara, bertan gazteei zuzenduta bertsolaritzaren lanketa ahalik eta modu erakargarrienean egingo dela bermatzeko. Elkarlanerako gure parte hartze modua zein izango den ere argitu dugu, bai antolaketa bileretako parte hartzeari dagokionez eta baita ekarpen ekonomikoari dagokionez ere.<br><br>-Proiektu arduradunaren baldintzak eta funtzioak zein izan diren orain arte, Euskaltzaindiari transmititu diogu (dokumentazioaz). Arduradunaren izendapenean gure erreferentziak eta aholkuak eskaini dizkiogu Euskaltzaindiari. Bertsozale Elkartetik akonpañatzen, laguntzen aritu gara Euskaltzaindian ekimenaren antolaketa ardura izan duen langilea eta Ahots Baten egonaldiko koordinatzailea.<br><br>-Hezitzaile taldean erreleboa eman da, kide berriak sartuz. Gainera, beste diziplinatako hezitzaileekin osatu eta zabaldu da lantaldea.<br><br>-Ekimena arrakastaz antolatu zedin Bertsozale Elkartetik elkarlanean aritu gara: azpiegiturak lotzen lagundu dugu; ekimenaren komunikazioa egin dugu bertso munduko gazte sarean (Bertso Udalekuetan, bertso-eskoletan zein Eskolartekoan abestu duten bertsolariei informazioa bidali eta parte hartzea eraginez); egonaldian bertsolaritza zer-nola landu aholkatu dugu eta arlo horri zegokion kudeaketa lana egin dugu; EH-ko Eskolartekoko bertsolari finalisten parte hartzea sustatu dugu.<br><br>-Ahots Baten egonaldia urriaren 29tik azaroaren 1era egin da, Amaiurko aterpean. Guztira 27 gaztek hartu dute parte, denak bertso mundukoak (gehienak Bertso Udalekuetan izanak) eta horietatik 9 EH-ko Eskolarteko finalistak. Bertsolaritzaren presentziari dagokionean, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurreko saioa ikustera joan ziren gazteak Donibane Garazira, eta Amaia Castorene gai-emailea izan zuten bisitari. |

| **Proiektuaren izena:** | MINTZA JOLAS- BERTSO UDALEKUAK |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarrila-iraila |
| **Deskribapen motza** | Udan haur eta gazteei, elkar ezagutu eta bertsotan gozatzeko gune bat eskaintzea da, sorreratik, Bertso-udalekuen funtzioa. |

| | |
|---|---|
| | Udalekuak egiten dituzten hezitzaile talde gaztea bera ere bada xede talde bat (gazteak aktibatzea, sortzeko/egiteko espazio bat ematea, mugimendua sortzea). |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| - **Bertso-udalekuen antolaketa sistematizatzea** | -Antolaketan aritzen diren EHBEko langileen funtzioak eta dedikazioak zehaztea.<br>-Ardatza antolatzea: egiteko bakoitzaren azalpena eta oinarrizko dokumentuak (eredu gisa baliatzekoak).<br>-Kronograma zehaztea.<br>-Txanda bakoitzaren oinarrizko informazio dokumentua osatzea. |
| - **Udalekuen antolaketarako figura berriak sortu, bakoitzaren funtzioak argitu eta elkarlanean udalekuak arrakastaz antolatu** | -Proiektu arduradunaren figura sortu. Dedikazioak, funtzioak argitu. Dagozkion lanak gauzatu, beste figurekin elkarlanean. Figura honi akonpañamendua eskaini.<br>-Koordinatzailearen figura sortu. Dedikazioak, funtzioak argitu. Kontratazioa bideratu. Elkartean harrera eta transmisioa egin. Akonpañamendua eskaini. Koordinatzaileak dagozkion lanak gauzatu, beste figurekin elkarlanean.<br>-Esperientzia baloratu eta edizio berrirako hobekuntzak pentsatu. |
| - **Batzorde bakoitza sustatu, jarraipena egin, eta erabakiak dagozkion lekuetan hartu** | -Antolaketa prozesuan zehar, erabaki bakoitza zein gunetan landu, erabaki eta komunikatu behar den, berariaz zaindu.<br>-Batzorde bakoitza sustatu, zaindu, jarraipena egin. |
| - **Hezitzaileen asteburua antolatu, udalekuak prestatzeko eta partaideak formatzeko** | -Aisialdi batzordeaz, hezitzaileen asteburua prestatu eta gauzatu.<br>-Asteburuan, udalekuen antolaketa erabakiak hartu, hezitzaile taldeekin.<br>-Hezitzaileekin barne formazioa egin. |
| - **Covid protokoloa eguneratu, osatu, adostu** | -Pasa den urtean sortutakotik abiatuta, eta gizarteko egoeraren zein araudiaren arabera, protokoloa egokitu. Lanketa dagozkien batzordeetan bideratu, zaindu. |
| - **Txandak arrakastaz antolatu eta gauzatu** | -Azpiegiturak lotu, jarraipena egin, bermatu.<br>-Haur/gurasoekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu.<br>-Zuzendari taldea eta hezitzaile taldearekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu. |

| | |
|---|---|
| | -Bertsolari/kolaboratzaileekiko komunikazioa eta egitekoak gauzatu.<br>-Administrazio lanak egin.<br>-Komunikazio lanak egin. |

| Balorazioa |
|---|
| -Bertso Udalekuen antolaketa sistematizatzeko lana egin dugu: antolaketan aritzen diren EHBEko langileen funtzioak eta dedikazioak zehaztu ditugu. "Ardatza" antolatu dugu, egiteko bakoitzaren azalpena eta oinarrizko dokumentuak (eredu gisa baliatzekoak) sailkatuz bertan. Kronograma zehaztu dugu eta egunean eraman ditugu ardurak. Txanda bakoitzaren oinarrizko informazio dokumentua osatu dugu.<br><br>-Udalekuen antolaketarako figura berriak sortu ditugu, bakoitzaren funtzioak argitu ditugu eta elkarlanean udalekuak arrakastaz antolatu genitzan zaindu dugu:<br>• Proiektu arduradunaren figura sortu dugu. Dedikazioak eta funtzioak argitu ditugu. Dagozkion lanak gauzatu ditu, beste figurekin elkarlanean. Figura honi akonpañamendua eskaini diogu prozesu osoan zehar.<br>• Koordinatzailearen figura sortu dugu. Dedikazioak eta funtzioak argitu ditugu. Kontratazioa bideratu dugu. Elkartean harrera eta transmisio lana egin dugu eta akonpañamendua eskaini diogu prozesu osoan zehar. Koordinatzaileak dagozkion lanak gauzatu ditu, beste figurekin elkarlanean.<br>• Aurtengo antolaketa ereduaren esperientzia baloratu dugu udalekuen amaieran, partaide izan garen lankideon artean eta edizio berrirako hobekuntzak jaso ditugu.<br><br>-Udaleku Batzordea sustatu dugu eta jarraipena egin diogu. Antolaketa prozesuan zehar, erabaki bakoitza zein gunetan landu, erabaki eta komunikatu behar den, berariaz zaindu dugu.<br><br>-Hezitzaileen asteburua antolatu dugu Alloko aterpean. Hezitzaileekin udalekuak prestatzeko lana egin dugu bertan eta partaideak formatzeko baliatu dugu. Udaleku batzordeaz prestatu eta dinamizatu dugu hezitzaileen asteburua. Bertan, hezitzaile taldeekin udalekuen antolaketari dagozkion erabakiak hartu ditugu.<br><br>-Covid protokoloa eguneratzeko beharrik ez dugu izan, egoera bere onera itzuli denez.<br><br>-Txandak arrakastaz antolatu eta gauzatu ditugu:<br>• Azpiegiturak lotu, jarraipena egin eta bermatu ditugu.<br>• Haur/gurasoekiko komunikazioa eta egitekoak egoki gauzatu ditugu.<br>• Zuzendari taldea eta hezitzaile taldearekiko komunikazioa zaindu dugu eta egitekoak gauzatu ditugu.<br>• Bertsolari/kolaboratzaileekiko komunikazioa zaindu dugu eta egitekoak gauzatu ditugu.<br>• Administrazio lanak egoki egin ditugu.<br>• Komunikazio lanak egoki egin ditugu.<br><br>-Txandak hauek izan dira:<br>• Amaiur (Nafarroa), Amaiurko aterpetxea. Uztailaren 6tik 15era. 16-18 urte bitarteko gazteak.<br>• Irañeta (Nafarroa), Irañetako aterpetxea. Uztailaren 16tik 22ra. 12-13 urte bitarteko haurrak.<br>• Zuhatza (Araba), irlako aterpetxea. 9-11 urte bitarteko haurrak: |

1. txanda: uztailaren 23tik 27ra.
2. txanda: uztailaren 27tik 31ra.

- Larraul (Gipuzkoa), Larraulgo aterpetxea. Uztailaren 25etik 31ra. 14-15 urte bitarteko gaztetxoak.

-Guztira 158 haur eta gaztetxok hartu dute parte egitasmoan eta 28 hezitzaileko lantaldea arduratu da antolaketaz.
KIDEAK, ADINKA SAILKATUTA:
• 9-11 urtekoak, guztira: 61 haur
• 12-13 urtekoak, guztira: 42 haur
• 14-15 urtekoak, guztira: 21 gaztetxo
• 16-18 urtekoak, guztira: 34 gazte.
KIDEAK, LURRALDEAREN ARABERA:

- Gipuzkoarrak: 63 haur eta gaztetxo (%40)
- Bizkaitarrak: 43 haur eta gaztetxo (%27)
- Nafarrak: 26 haur eta gaztetxo (%16)
- Lapurtarrak: 15 haur eta gaztetxo (%9)
- Arabarrak: 11 haur eta gaztetxo (%7)

KIDEAK GENEROARI DAGOKIONEZ:
Partaideen %63 neskak izan dira eta %37 mutilak.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Hezkuntza berrikuntzako plangintza zehaztea (2022-2026) |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022ko urtarrila-2022ko uztaila |
| **Deskribapen motza** | Pedagogia Batzordeak bi kurtsoko ibilbidea egin du. Ibilbide horri jarraipena emateko, batzordeak datozen lau urtetan egingo duenaren plan zehatza diseinatzea dagokio orain. Plan horrek jasoko du zazpi lan ildoren garapena: (1) bertsolaritzaren ikas-irakaskuntzarako gakoen ikerketarekin jarraitzea, (2) irakasleentzako gida osatzea, (3) irakasleentzako oinarrizko ikastaroa, (4) materialgintza, (5) formazio gogoetatsua sustatzea autokonfrontazio saioen bidez, (6) proiektuaren ebaluazioa eta (7) curriculuma berritzea.<br><br>Uztailerako plana eginda egongo da, eta irailetik aurrera zazpi lan ildo horiek proiektu bana izatera pasako dira. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| 1.Pedagogiaren inguruan hurrengo zikloan ditugun helburuei erantzuteko plangintza osatzea.<br><br>2. Plangintza hori gauzatzeko antolakuntza modu egokia aurkitzea. | 1. Plangintza osatu eta den eta helburuei erantzuten dien.<br>2. Herrialde guztietan landu den, eta hura gauzatzeko moduan antolatu garen. |

| **Balorazioa** |
|---|

**Plangintza egin da** eta **baita horretarako antolakuntza modua erabaki ere**. Herrialde bakoitzean pedagogia arduradun bat izendatu da, eta horiek pedagogia batzordean biltzen dira materialgintza arduradunarekin batera.

Zehazki, hau da **lan ildo bakoitzeko egoera**:
**(1)** bertsolaritzaren ikas-irakaskuntzarako gakoen **ikerketa**rekin jarraitzea: ikerketa martxan dago, bi modutara. Batetik, irakasleen egungo prestakuntzan beharrezko delako, "irakasleen erdiguneko praktikak" zeintzuk diren jakiteko lehen ahalegina egin da. Bestetik, praktika horiek modu sakonagoan aztertzeko ikerketa martxan dago Mikel Artolaren bidez.
**(2)** irakasleentzako **gida** osatzea: oraindik ez da gidarik osatu. Hala ere, oinarrizko ikastaroarekin batera garatuko da hau, eta ikastaroa martxan dago dagoeneko. Ikastaro horrek ematen dituen ondorioekin gida osatuko da kurtso amaieran.
**(3)** irakasleentzako **oinarrizko ikastaroa**: martxan dago. Moodleen sortu da ikastaroa eta presentzialki ere egin da saioren bat. Lau atal ditu: bertsolaritzarako sarrera –orain arteko ibilbidearen errepasoa egiten duena—; erdiguneko praktikak; saioaren diseinua; norbere lana aztertzea. Hogei irakasletik gora matrikulatu ditugu, gehienak bertso-eskoletakoak.
**(4)** materialgintza: **ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko oinarrizko materiala sortu dugu.** "Zozoak beleari… kopla bi!" materiala ekoizten amaitu dugu, formatu ezberdinetan: www.bertsoikasgela.eus ataria (*azken edukiak pantailara egokitzeko lana falta da), karta jolasak, ikasliburuak. Materialaren oinarrizko diseinua batzorde pedagogikoan egin dugu; sorkuntza lanean irakasle mintegiek zuzenean esku-hartu dute.
**(5) formazio gogoetatsua** sustatzea autokonfrontazio saioen bidez: irakasle batzuk HUHEZIn ari dira horretan (Bizkaiko 6, Gipuzkoako 4 eta Arabako 1), eta beste batzuk herrialdeko prestatzailearekin (Nafarroan guztiek egin dute, esate baterako). Hiru kurtsoren buruan denek egingo dituzte konfrontazio saioak. Balorazioa positiboa da.
**(6)** proiektuaren **ebaluazioa**: Gipuzkoan berrikuntza proiektuaren inguruko ebaluazioa egin da ikastetxeekin. Horretarako galdetegi berezi bat erabili zen. Orain Euskal Herri osorako galdetegia osatzen ari gara haren eta lehen zegoenaren arteko bat osatuz. Proiektuaren ebaluazioak, hala ere, osoagoa behar du izan: bertso-eskoletako izen ematek, jarraikortasuna, Eskolartekoa, aisialdikoa… Hori egiteke dago modu bateratuan.
**(7) curriculuma** berritzea: aurrerago egiteko lantzat ikusten da.

# IKERKUNTZA

## Deskribapena

| Urteko helburuak | BALORAZIOA |
|---|---|
| - Ikerkuntza eta dokumentazio sailen berregituraketa gauzatu eta egitekoen definitzea<br>- Elkarte barruko zein kanpoko ikerkuntza eta dokumentazio beharrei erantzutea<br>- Herrialdeetan ikerkuntza eta dokumentazio ikuspegian sakontzea | - Ezin izan dugu berregituraketa gauzatu eta horren araberako lan egitekoen definitzea.<br>- Elkarteko zein kanpoko ikerkuntza eta dokumentazio beharrei erantzun diegu.<br>- XDZrekin partekatutako helburua zen; XDZren baliabide eskasarengatik, bide erdian geratu gara. |

| Sailaren kudeaketa | | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | |

| | | |
|---|---|---|
| - Ikerkuntzako eta XDZko kideek ikuspegi partekatua edukitzea.<br>- Ikerkuntza Batzordearen funtzio, egiteko eta osaketa berrikustea<br>- Azpibatzordeen sendotzea eta garatzea: Doinutegia Batzordea, *Bapatean*, …<br>- Herrialde eta sailekin ditugun proiektuak zaindu eta jarraitzea | - Ikerkuntza eta dokumentazioko kideen arteko gogoeta eta ekiteko guneak partekatzea.<br>- Ikerkuntza Batzordearen funtzionamendua aztertzea; egitekoak identifikatzea eta banatzea; lurralde gehiagoren eta kide berrien parte hartzea.<br>- Azpibatzordeen dinamika eragitea eta zaintzea.<br>- Herrialde eta sailekin harremana koordinatzea eta zaintzea. | - Ikerkuntza Sailaren berregituraketari ez zaio heldu batetik, eta sailen zein pertsonen egoera delikatua zenez bestetik, ez dugu gogoeta gunerik partekatu.<br>- Berregituraketa prozesurik ez denez egin, batzordearen funtzionamendua ez dugu aztertu. Indefinizio egoera horregatik eta bilketa berritzeko egitasmoa geldirik zegoelako ez dugu herrialdeetako kide berririk erakartzen ahaleginik egin.<br>- Doinutegia batzordea, bertso testuak transkribatzeko batzordea zein Bapateaneko batzordeak eragin eta zaindu ditugu.<br>- Sailekin harremana koordinatu eta zaindu dugu. Herrialdeekin, ordea ez, arestian aipatutako arrazoiengatik. Dena den, Nafarroarekin Euskarabideko hitzarmenaren harira harreman aski jarraitua eduki dugu. |

## Proiektuak

| Proiektuaren izena: | BAPATEAN |
|---|---|
| Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera) | 2022 urtarrila - 2023 martxoa |
| Deskribapen motza | Urtean zeharreko bertso plazen kopuruak, datuak, argazkiak, informazioa zein bertsoaldi hautatuak dakartzan bilduma da. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| **Urte horretako bertsoplazaren berri ematea. Bertsozaletasuna hedatzea** | • Datu bilketa egin da<br>• Hautaketa eta transkribaketa egin da<br>• Argazki hautaketa egin da<br>• Argitalpena ekoitzi da |

| Balorazioa |
|---|
| Datu bilketa, bertsoen hautaketa eta transkribapena zein argazkien hautaketa egin da. Une honetan argitalpenaren ekoizpen lanetan gabiltza. |

| Proiektuaren izena: | BTN22ko Liburua |
|---|---|
| Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera) | 2022 martxoa – 2023 martxoa |
| Deskribapen motza | BTN22aren isla eta emaitza jasoko duen liburuaren koordinazioa eta ekoizpena. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| • BTN22aren sorkuntzaren eta lekukotasunaren biltzea.<br>• BTN22a izan denaren isla eta eragin duenaren ezagutza gizarteratzea. | • BTN22ko bertsoaldiak transkribatzea<br>• BTN22ko bertsoaldiak hautatzea<br>• Bertsogintza eta hainbat alderdiri buruzko kolaborazioak jasotzea<br>• BTN22an plazaratutako doinu berrien azterketa jasotzea<br>• BTN22ko argazkiak jasotzea<br>• Saio bakoitzeko testuingurua jasotzea<br>• Parte hartzaileak eta sailkapenak jasotzea<br>• Argitalpena ekoiztea<br>• … |

| Balorazioa |
|---|
| • BTN22KO bertsoaldiak transkribatu eta hautatu dira.<br>• Bertsogintza eta hainbat alderdiri buruzko kolaborazioak jaso eta zuzendu ditugu.<br>• BTN22an plazaratutako doinu berrien azterketa jaso dugu.<br>• BTN22ko argazkiak jaso ditugu<br>• Saio bakoitzeko testuingurua jaso dugu |

- Parte hartzaile eta sailkapenak jaso ditugu
- Argitalpena ekoizten gabiltza uneotan.

| | | |
|---|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | **Doinutegia** | |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte guztian zehar | |
| **Deskribapen motza** | Doinuak bildu, aztertu eta sareratzen ditu. | |
| **Helburuak** | | **Ebaluazio adierazleak** |
| **Doinu berriak bildu, aztertu eta sarearen bidez gizarteratzea**<br>**Doinu identifikatzailea lortzeko bidean urratsak ematea** | | Sareratu diren doinu berri kopurua<br>Doinu identifikatzailearen harira urratsak ematea |

| **Balorazioa** |
|---|
| Doinutegian zeuden hainbat akats zuzendu ditugu.<br>20 doinu berri jarri ditugu sarean kontsultagarri.<br>Doinu identifikatzailearen harira kontsulta mailako urratsak eman ditugu. Gainera, horren karietara BTN22ko finalera musikaren tratamenduan goi mailako espezialista den Emilio Ros gonbidatu eta harekin bildu gara identifikatzaileaz aritzeko.<br>BTN22ko doinuei buruzko analisi artikulu bat argitaratu dugu BTN22ko liburuan. |

| | | |
|---|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | **BTN22ko atzerriko ikertzaile eta sortzaileen zaintza** | |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022 martxoa – 2022 abendua | |
| **Deskribapen motza** | Kantu inprobisatua ikertzen edota sortzen aritzen diren atzerritarren BTN22rako gonbidapena eta zaintzaren kudeaketa | |
| **Helburuak** | | **Ebaluazio adierazleak** |
| BTNren zuzeneko ezagutza eragitea atzerriko ikertzaile eta sortzaileei.<br>Bertsolaritza mundura hedatzea.<br>Ikertzaileen eta sortzaileen munduko harreman sarea sendotzea. | | Ikertzaileak gonbidatu<br>Inprobisatzaileak gonbidatu<br>Itzultze zerbitzua prestatu<br>Finaleko zaintza antolatu eta gauzatu<br>Haien lekukotasunen bat artikulu batean jaso |

| **Balorazioa** |
|---|
| BTN22ko finalera etorritako 100 atzerritarren gonbidapena eta zaintza kudeatu ditugu. Etorritako 100 horietako 30 ziren gonbidatuak eta 70 ez gonbidatuak, baina denak zaindu eta kudeatu ditugu, nahiz 30 horiek beraraiz zaindu ditugun. |

| |
|---|
| 30 horietan ziren ikertzaileak eta inprobisatzaileak.<br>Itzulpen zerbitzua prestatu dugu<br>Eta lekukotasun bat artikulu batean jaso dugu, BTN22ko liburuan argitaratuko dena. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | **Kilometroak-BE ikerketa beka** |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022 maiatza 2023 maiatza |
| **Deskribapen motza** | Kilometroak fundazioak eta BEk deituko duten bertsolaritzari buruzko ikerketa beka. 3.000 euroko saria eta urtebeteko epean burutu beharrekoa |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| Tokian tokiko bertsolaritzari buruzko ikerketa sustatzea | Deialdia egin<br>Aurkeztutako proiektuen azterketa eta ebazpena<br>Proiektuaren jarraipena<br>Proiektu bukatua jaso eta komunikatzea |

| Balorazioa |
|---|
| Kilometroak Fundazioarekin bildu ginen deialdia gauzatzeko prest geundela adierazteko, baina ez ziguten baieztatu deialdia egiteko prest zirela, beraz, ez dugu egin. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | **Euskarabidea ikerketa-bilketa** |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022 martxoa – 2022 abendua |
| **Deskribapen motza** | Euskarabidea eta Nafarroako Bertsozaleen Elkartearen arteko hitzarmenean jasotako bilketa eta ikerketa ekimenen gauzaketa. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| Nafarroako bertsolaritzaren bilketa eta ikerketa eragitea eta gauzatzea | Biografia atalaren eguneraketa<br>Bertso ekitaldien informazioa bilketa<br>Ekitaldien grabazioa<br>Ikerketarako dokumentazio bilketa<br>Bilketa eta dokumentazio formazioa ematea<br>Bertsoen transkripzioa eta zuzenketa<br>Ikerketarako urteko bildumaren prestaketa<br>Ikerketa bat zehaztu, zaindu eta gauzatzea<br>Ikerketa txostenaren prestaketa eta erredakzioa |

| Balorazioa |
|---|
| Ebaluazio adierazle guziak egin ditugu eta oso ongi baloratu dituzte atal bat izan ezik, ikerketari buruzkoa. Izan ere, Ikerketa txostenak marko teorikorik ez zuen eta halamoduz zegoen idatzita. Dena den, aurretiaz gaztigatu genituen eta agidanez ados zeuden denbora faltagatik marko teorikorik gabeko lana aurkez zedin. Eta bestalde, idazlana azken unean helarazi zitzaigunez ez zegoen astirik egileak edo guk behar bezala zuzentzeko (ez ziguten eperik luzatu nahi izan). |

| **Proiektuaren izena:** | **Euskaltzaindia-BE Ikerketa beka** |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022ko apirila – 2023ko urria |
| **Deskribapen motza** | Euskaltzaindiak eta Bertsozale Elkarteak deituko duten bertsolaritzari buruzko ikerketa beka. saria eta adosten den epean burutu beharrekoa |
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
| Bertsolaritzari eta hizkuntzalaritzari buruzko ikerketa sustatzea | Deialdia egin<br>Aurkeztutako proiektuak aztertu<br>Hautatu den proiektua jarraitu<br>Ikerketa aurkeztu, egin dela komunikatu |

| Balorazioa |
|---|
| Deialdia egin genuen baina ez zen proiekturik aurkeztu. Deialdia egiteko unea uda aurretik egitea adostu genuen, une hori egokien bezala iritzita, baina Euskaltzaindiak ez zituen etxeko lanak garaiz egin eta irailean egin behar izan genuen. Hori izan daiteke proiekturik aurkeztu ez izanaren zioetako bat. |

| **Proiektuaren izena:** | **Laboa Katedra-BE Ikerketa proiektu saria** |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022ko apirila – 2023ko urria |
| **Deskribapen motza** | Mikel Laboa Katedrak eta Bertsozale Elkarteak deituko duten bertsolaritzari buruzko ikerketa proiektu saria da. 2.500 euroko saria eta urtebeteko epean burutu beharrekoa |
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
| Bertsolaritzari buruzko ikerketa sustatzea | Deialdia egin den<br>Aurkeztutako proiektuak baloratu<br>Hautatutako proiektua jarraitu<br>Ikerlana aurkeztu eta bere berri eman |

| Balorazioa |
|---|

| |
|---|
| Deialdia egin genuen baita proiektuak baloratu.<br>Hautatuko proiektuaren berri eman genuen.<br>Hautatutako proiektua martxan da eta jarraitzen dugu. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | **Laboa Katedra-BE Ikerketa proiektu saria** |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022ko apirila – 2023ko urria |
| **Deskribapen motza** | Mikel Laboa Katedrak eta Bertsozale Elkarteak deituko duten bertsolaritzari buruzko GRAL saria da. 600 euroko saria da. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| Bertsolaritzari buruzko ikerketa sustatzea | Deialdia egin den<br>Aurkeztutako GRALak baloratu<br>Hautatutako proiektua jarraitu<br>Ikerlana aurkeztu eta bere berri eman |

| Balorazioa |
|---|
| Deialdia egin genuen baita ikerlanak baloratu.<br>Hautatuko ikerlanaren berri eman genuen.<br>Ikerlanaren berri eman genuen. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | **Bilketa sarea berritu** |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtean osoan zehar |
| **Deskribapen motza** | Dokumentazio eta informazio BILKETA sarea berritu eta funtzionamendu berria bultzatu. Iaz hasitako lanaren jarraipena: jasotako ekarpenak aurkeztu genuen proposamenean txertatu eta herrialde zein sailetara egokitutako proposamenak landu eta aplikatzen hasi |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| Bilketa hobetzea | Bilketa hobetzeko proposamen zehatzak egitea<br>Bilketako proposamen berri zehatzak jakinaraztea<br>Bilketa modu hobetuaren ondorioen berri jasotzea<br>Bilketa hobeto eta gehiago egitea |

| Balorazioa |
|---|
| Bilketa hobetzeko proposamen zehatzak landu genituen baina XDZren baliabide faltagatik ezin izan dugu aitzina jo. Hots, zehaztapena ez da bururaino egin eta beraz ezin izan dugu deus jakinarazi, ez gainerako ebaluazio adierazleak gauzatu. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | **Mintegia** |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Abuztua – azaroa |
| **Deskribapen motza** | Bertsolaritzari buruzko ikerketen mintegia; uneko ikerketen arabera osatuko da egitaraua.<br>Laboa Katedrak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatu dezagun interesik duen ikusi behar da. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| Bertsolaritzari buruzko azken ikerketak, burutuak ala bidean direnak, gizarteratzea, hitzaldi, mahai-inguru zein performanceen bidez.<br>Ikertzaileen topagune izatea | Antolatu den |

| **Balorazioa** |
|---|
| Mintegia Mintzola-Euskaltzaindiak eta Laboak elkarrekin antolatuko zutela adierazi zitzaigun eta guk ez dugu parte hartu. |

# XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

## Deskribapena

| Urteko helburuak | BALORAZIOA |
|---|---|
| - Bertsogintzaren tratamendu dokumentala sendotu:<br>o Ez bat-bateko bertsoen tratamendu dokumentalaren eta katalogazio politikaren diseinua finkatu talde dinamiken bidez.<br>o Bertsoen eta doinuen arteko tratamendu dokumentala finkatu talde dinamiken bidez.<br>- Datu-base dokumentalak OMEKA programaren bidez garatzea bukatu eta lan-taldean garbiketa planak eta formazioa gauzatu.<br>- XDZren oinarrizko funtzionamendua ziurtatzea, zerbitzuaren gainbeherarako arriskuari aurre egiteko.<br>- XDZ egitasmoaren eta lan-prozesuen osotasunezko ezagutza izatea ziurtatuz.<br>- Lan taldearen berregituraketa eta ezagutzaren transmisioa egitea. | o Bertsogintzaren tratamendu dokumentala sendotu da:<br>o 1. Ez bat-bateko bertsoen tratamendu dokumentalaren eta katalogazio politikaren gako nagusiak landu dira talde dinamiken bidez.<br>o 2. Bertsoen eta doinuen arteko tratamendu dokumentala ez dugu finkatzerik izan baliabide faltagatik.<br>o  Datu-base dokumentalak OMEKA programaren bidez garatzea abiatu da eta lan-taldean garbiketa planak eta formazioa gauzatu da.<br>o  XDZren oinarrizko funtzionamendua ziurtatu da.<br>o  XDZ egitasmoaren eta lan-prozesuen osotasunezko ezagutza partekatu eta bermatu da.<br>o  Lan taldearen berregituraketa bideratzen ari gara.<br>- |

| Sailaren kudeaketa | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| **XDZren kudeaketa** | - 2022eko egitasmoa zehaztu eta ZBri proposatu<br>- Urteko balorazioa eta memoria ZBri aurkeztu urte amaieran.<br>- Egitasmo eta aurrekontuaren garapena jarraitu<br>- Barne orrian eta *BertsoZalean* XDZren berri eman<br>- Bertsolaritzaren eta BEren Sail eta Herrialdeetako beharrak detektatu, aztertu, lanak antolatu eta elkarlanean bideratu:<br>➢ Iker taldeko bileretan parte hartu.<br>➢ Kudeaketa eta Koordinazio taldeetan parte hartu eta beharrizanak detektatu.<br>- Lehendakaritzatik XDZ eta Ikerkuntzarako planteatutako gogoetan parte hartu.<br>- XDZren talde-funtzionamendua sustatu eta kudeatu: lanen ikuspegi orokorra denek txertatzea bultzatu.<br>- 2021. urtean egindako egitasmoaren proiektukako banaketan XDZko lan-prozesuen mapa egokiago txertatzeko modua garatu. | - 2022eko egitasmoa zehaztu da eta ZBri proposatu zaio<br>- - Urteko balorazioa eta memoria ZBri aurkeztu zaio urte amaieran.<br>- - Egitasmo eta aurrekontuaren garapena jarraitu da.<br>- - Barne orrian eta BertsoZaleanXDZren berri eman da.<br>- - Bertsolaritzaren eta BEren Sail eta Herrialdeetako beharrak detektatu, aztertu, lanak antolatu eta elkarlanean bideratu dira:<br>- Iker taldeko bileretan parte hartuz.<br>- Kudeaketa eta Koordinazio taldeetan parte hartu eta beharrizanak detektatuz.<br>- - Lehendakaritzatik XDZ eta Ikerkuntzarako planteatutako gogoeta 2023 urterakoutzi da.<br>- - XDZren talde-funtzionamendua sustatu eta kudeatu da: lanen ikuspegi orokorra denek txertatzea bultzatu da.<br>- - 2021. urtean egindako egitasmoaren atalkako banaketan XDZko lan-prozesuen mapa egokiago txertatzeko modua garatu da.<br>- |

| | | |
|---|---|---|
| **XDZren oinarrizko funtzionamendua ziurtatzea** | - XDZren aurrekontu errealaren argazkia egin.<br>- 1998ko lan-taldearekin eta orain arte izandako egitasmoetarako baliabideekin lan egiteak sortutako eraginak identifikatu.<br>- Etorkizun hurbilean prekarietate honek sortu ditzakeen arriskuak identifikatu.<br>- XDZk 2022ko Bertsozale Elkartearen tamainari eta gizartearen beharrei erantzuteko gutxieneko kalitatea mantentzeko eta XDZren gizarteratzerako gutxieneko ekintzak egiteko baliabideak identifikatu<br>- XDZrako oinarrizko funtzionamendua eta lan-taldearen finantziazioa ziurtatu: txosten eta aurkezpenak prestatu.<br>- Erakunde ezberdinei XDZren balioa aurkeztu eta finantziaziorako bideak landu. | - - XDZren aurrekontu errealaren argazkia lantzen hasi gara.<br>- - Egungo lan-taldearekin XDZren egitasmoari erantzutearen eraginak identifikatu eta epe laburrean eragin ditzakeen arriskuak identifikatu.<br>- - 2022an Bertsozale Elkartearen tamainari eta gizartearen beharrei gutxieneko kalitatez erantzun zaie.<br>- - XDZrako oinarrizko funtzionamendua eta lan-taldearen finantziazioa ziurtatu da txosten eta aurkezpenak prestatuz.<br>- - Erakunde ezberdinei XDZren balioa aurkeztu zaie eta finantziaziorako bideak lantzen jarraitu dugu.<br>- |
| **XDZ egitasmoaren eta lan-prozesuen osotasunezko ezagutza izatea ziurtatzea** | - Lan-taldeko kideen artean XDZ egitasmo osoaren eta prozesu dokumentalen gainbegiratua egin talde-dinamiken bidez:<br>✓ Atal bakoitzeko datu-baseen datuen egoeraren txostena egitea eta datu-garbiketa eta zuzenketa beharrak identifikatzea<br>✓ Atal guztietako manual eta azalpenak eguneratuta daudela ziurtatu: Biografiak (pertsonak, entitateak eta adierazpideak (Kulturartea)), Doinutegia, Bat-bateko bertsoen corpusa (Bapatean), Grabazioak, Argazkiak, Liburutegia eta Artxiboa<br>✓ Bilketa eta gizarteratzerako prozesuen eta behaketa tresna guztien gainbegiratua<br>✓ Katalogatu gabeko materialaren ezagutza:<br>1. Aurretik pilatutako materiala jasotzeko lekuak adostu, denak modu bateratuan eta ezagunean egoteko.<br>2. Aurrerantzean pilatuko denaren erregistroa eta kokapenak adostu<br>3. Atzera begirako katalogazio lehentasunak adostu | ✓ Lan-taldeko kideen artean XDZ egitasmo osoaren eta prozesu dokumentalen gainbegiratua egin da talde dinamiken bidez:<br>✓ 1. Atal bakoitzeko datu-baseen datuen egoeraren txostena egin da eta datu-garbiketa eta zuzenketa beharrak identifikatu dira.<br>✓ 2. Atal guztietako manual eta azalpenak eguneratu dira: Biografiak (pertsonak, entitateak eta adierazpideak (Kulturartea)), Doinutegia, Bat-bateko bertsoen corpusa (Bapatean), Grabazioak, Argazkiak, Liburutegia eta Artxiboa<br>✓ 3. Bilketa eta gizarteratzerako prozesuen eta behaketa tresna guztien gainbegiratua egin da.<br>✓ 4. Katalogatu gabeko materialaren ezagutza partekatu da:<br>✓ 4.1 Aurretik pilatutako materiala jasotzeko lekuak adostuz, denak modu bateratuan eta ezagunean egoteko.<br>✓ 4.2 Aurrerantzean pilatuko denaren erregistroa eta kokapenak adostuz<br>✓ 4.3 Atzera begirako katalogazio lehentasunak adostuz |

| | | |
|---|---|---|
| **Lan-taldearen berregituraketa** | - Kide bakoitzak hartuko dituen ardurak definitu.<br>- Kideen artean ezagutzaren transmisioa bideratu.<br>- Proiektua aurrera eramateko dedikazioak bermatu. | - Lan-deialdi egin da Koordinatzaile postua berritzeko.<br>- - Kide bakoitzaren urteko ardurak definitu dira.<br>- Egitura dokumentalaren ezagutzaren transmisioa egin da:<br>- - Datu-baseen egituraketa eta garapen beharrak eta atal bakoitzaren garapen egoera identifikatu da.<br>- - Etorkizunean egiteko hobekuntzak identifikatuta utzi dira |
| **Langileen formazioa ziurtatzea** | - Behar eta eskaintzaren arabera eta baliabide ekonomikoek eskaintzen duten aukeren araberako langileen formazioa bideratu. | - Artiumek antolatutako Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen XI. Topaketetan parte hartu da. Ondare erakundeetako artxibo eta dokumentu funtsen inguruko topaketak izan dira. |
| **Beste informazio zentro eta ikerketa erakundeekin harremanak lantzea** | - Aurretik egindako harremanak zaindu: Renoko Euskal Liburutegia; HABE liburutegia; Koldo Mitxelena Liburutegia; Eresbil; Labayru; Herri Musikaren Txokoa, Topic Txotxongilo Zentroa | Dokumentazio eta ikerketa erakundeekin harremanetan jarraitu dugu: Renoko Euskal Liburutegia; HABE liburutegia; Koldo Mitxelena Liburutegia; Eresbil; Labayru; Herri Musikaren Txokoa, Topic Txotxongilo Zentroa<br>- |

| 5.4.2. XDZ: Koordinazio Orokorra. Bilketa | | | |
|---|---|---|---|
| **Helburu zehatzak** | | **Ebaluazio adierazleak** | **Egindakoa** |
| **5.4.2.1** | **Bertsolaritzaren Funtsa: Oinarrizko funtsaren bilketa** | - XDZren oinarrizko egitura osatzen duten, eta bertsolaritzak egunero sortzen duen dokumentu eta datuak bildu, sail eta herrialde eta bertsozaleekin elkarlanean. | - XDZren oinarrizko egitura osatzen duten, eta bertsolaritzak egunero sortzen duen dokumentu eta datuak bildu dira, sail eta herrialde eta bertsozaleekin elkarlanean. |
| **5.4.2.2** | **Eremu hurbilarekin oinarrizko harremanak mantendu eta sendotzea** | - Elkarteko sail eta herrialdeek dokumentazioa jasotzeko harremanak bideratu:<br>✓ Grabazio-sarea zaindu<br>✓ Bilketa aniztasuna bermatzeko bitartekoak jarri<br>✓ Transkripzio eta antologien bilketa egin<br>✓ Argazkien bilketaren garrantzia azaldu<br>✓ Saioen informazio-bilketaren garrantzia azaldu<br>- *Hitzetik Hortzera* telebista programak sortutako materiala eskuratu<br>- *Bertsoa.eus* atariak sortutako materiala eskuratu<br>- Lankurekin harremana zaindu eta sortutako materiala eskuratu.<br>- *Bertsolari* Aldizkaria: aldizkariak sortzen duen materiala eta aldizkari aleak eskuratu eta elkarlana zaindu<br>- Dohaintzak zuzen erregistratu | - Elkarteko sail eta herrialdeek dokumentazioa jasotzea bermatu da:<br>✓ Grabazio-sarearen beharrei erantzunez<br>✓ Bilketa aniztasuna bermatzeko bitartekoak jarriz<br>✓ Transkripzio eta antologien bilketa eginez<br>✓ Argazkien bilketaren garrantzia azalduz<br>✓ Saioen informazio-bilketaren garrantzia azalduz<br>- *Hitzetik Hortzera* telebista programak sortutako materiala eskuratu da<br>- *Bertsoa.eus* atariak sortutako materiala eskuratu da<br>- Lankurekin elkarlanari jarraipena eman zaio eta sortutako materiala eskuratu da.<br>- *Bertsolari* Aldizkaria: aldizkariak aurten sortu duen materiala eta aldizkari aleak eskuratu dira<br>- Dohaintzak zuzen erregistratu dira |
| **5.4.2.3** | **Bilketa erregistroaren lan-prozesua finkatu eta atal guztietan ezartzea** | - Bilketa Erregistroa datu-basearen erabilera atal guztietan ezarri.<br>- Kodeketa eta lan-prozesua talde-dinamiken bidez adostu<br>- Bilketa dokumentuak errepasatu eta adostu | - Bilketa Erregistroaren kodea datu-basearen erabilera atal guztietan finkatu da eta erabilera martxan jarri da.<br>- Kodeketa eta lan-prozesua adostu da<br>- Bilketa dokumentuak errepasatu eta adostu dira. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | (hitzarmena etaeskaintza). | |

## 5.4.3. XDZ: Koordinazio Orokorra. Antolaketa eta Digitalizazioa

| Helburu zehatzak | | Ebaluazio adierazleak | Egindakoa |
|---|---|---|---|
| 5.4.3.1 | **Bilduma digitala: dokumentu elektronikoen kudeaketa** | - Antolaketa dokumentu Nagusian egindako egokitzapen etahobekuntzak egunera mantendu.<br>✓ SGXDZ euskarrien tratamendua<br>✓ Kokapen moten azalpenak<br>✓ Izendapen mota guztien azalpenak<br>- SGXDZ bilduma digitalaren kontrola egin: fitxategien formatuaren, bolumenaren eta ezaugarrien araberakoinformazioa eskuratzea bideratu.<br>- SGXDZ euskarrien kontrola egin: kopiak egitea eskatu, | - Antolaketa dokumentu Nagusian egindako egokitzapen etahobekuntzak eguneratu dira:<br>✓ SGXDZ euskarrien tratamendua<br>✓ Kokapen moten azalpenak<br>✓ Izendapen mota guztien azalpenak<br>- SGXDZ bilduma digitalaren kontrola egin da: fitxategienformatuaren, bolumenaren eta ezaugarrien araberako informazioa jaso da.<br>- SGXDZ euskarrien kontrola egin da: kopiak egin, *robocopy-* |
| | | *robocopy*-ren jarraipena egiteko eskatu eta materialarenerosketaren kontrola egin.<br>- SGXDZ edukiaren hirugarren kopia, seguritate zinta, Subijana etxetik kanpo Eresbilen egoitzan gorde. | ren jarraipena egin eta materialaren erosketaren kontrolaegin da<br>- SGXDZ edukiaren hirugarren kopia, segurtasun zinta, Subijana etxetik kanpo jaso da. |
| 5.4.3.2 | **Zerbitzuen berrikuntza teknologikoa: Ikus-entzunezkoen gunea** | Ikus-entzunezkoen Lan-guneko eta Digitalizaziorako Unitatekoekipamendua funtzionamendu egokian mantendu. | kus-entzunezkoen Lan-guneko eta DigitalizaziorakoUnitateko ekipamendua funtzionamendu egokian mantendu da |
| 5.4.3.3 | **Ikus-entzunezko bilduma digitalaren antolaketa** | - Hedapen Sailarekin dokumentazio elkarlanari jarraipena eman. | - Hedapen Sailarekin dokumentazio elkarlanari jarraipena eman zaio |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 5.4.3.4 | **Ikus-entzunezko bilduma: digitalizazioa** | - XDZ Audio grabazio bilduma beharren arabera digitalizatu.<br>- XDZ Bideo grabazio bilduma beharren arabera digitalizatu. | - XDZ Audio grabazio bilduma beharren arabera digitalizatu da.<br>- XDZ Bideo grabazio bilduma beharren arabera digitalizatu da. |

| **5.4.4. XDZ: Koordinazio Orokorra. Antolaketa: Datu-baseen egituraketa eta informazioaren kudeaketa** | | | |
|---|---|---|---|
| **Helburu zehatzak** | | **Ebaluazio adierazleak** | **Egindakoa** |
| **5.4.4.1** | **BDB datu-basearen garapen dokumentala gauzatu** | - Informatikariek datu-base dokumentalak *Omeka* programa informatikoaren bidez garatzea eta bukatzea bultzatu<br>- *Omeka* bidez garatutako datu-baseen garbiketa-lanak aztertu eta lan-taldean banatu, lehentasunen arabera egiteko.<br>- Fitxategi digitalen antolaketa eta argitalpen sistema ziurtatu eta lan-taldean ezagutarazi.<br>- *Omeka* programaren formazioa bideratu | - Informatikariek datu-base dokumentalak *Omeka* programa informatikoaren bidez garatu dituzte.<br>- *Omeka* bidez garatutako datu-baseen garbiketa-lanak aztertu dira eta lan-taldean banatu dira, lehentasunen arabera egiteko.<br>- Fitxategi digitalen antolaketa eta argitalpen sistema ziurtatu da eta lan-taldean ezagutarazi da.<br>- *Omeka* programaren formazioa bideratu da. |
| **5.4.4.2** | **Ez bat-bateko bertsoen egituraketa dokumentala eta katalogazio politika diseinatu talde dinamikaren bidez** | - Ez bat-bateko bertsoen euskarri dokumentalen azterketa egin.<br>- Ez bat-bateko bertsoen ezaugarrien analisia egin<br>- Euskarri eta ezaugarrien zaintza ahalbidetuko duen prozesu dokumentala eta datu-basearen egituraketa diseinatu:<br>1. Aldaeren eta errepikapenen gaia konpondu<br>2. Idatziz jasotako bat-bateko bertsoen kasuistika konpondu<br>3. Doinuen aldaeren kasuistika konpondu<br>4. Datu-base ezberdinetako eremuak identifikatu<br>- Ez bat-bateko bertsoen katalogazio mailakatua diseinatu: bertso-dokumentu maila eta bertsoaren katalogazio analitikoaren maila.<br>- Ez bat-bateko bertsoen katalogaziorako iturriak identifikatu | - Ez bat-bateko bertsoen euskarri dokumentalen azterketa egin da.<br>- Ez bat-bateko bertsoen ezaugarrien analisia egin da.<br>- Euskarri eta ezaugarrien zaintza ahalbidetuko duen prozesu dokumentala eta datu-basearen egituraketa definitiboa ez da diseinatu baliabide faltagatik.<br>- Ez bat-bateko bertsoen katalogazio mailakatua ez da diseinatu baliabide faltagatik.<br>- Ez bat-bateko bertsoen katalogaziorako iturriak identifikatu dira eta garrantziaren araberako mailaketa egin da.<br>- Idatziz jasotako bertsoen corpusa eratzeko politika zirriborratu da:<br>1. Eguneroko lanaren bidez egitekoa |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | eta garrantziaren araberako mailaketa egin.<br>- Idatziz jasotako bertsoen corpusa eratzeko politikazirriborratu:<br>1. Eguneroko lanaren bidez egitekoa<br>2. Katalogazio plan berezien bidez egitekoa | 2. Katalogazio plan berezien bidez egitekoa |
| **5.4.4.3** | **Doinutegia datu-basearen egituraketa Bertsoak datu-basearen elkar-lotuta diseinatu** | - Doinutegia datu-basearen berregituraketa diseinatu, Bertsoak datu-basearekin elkar-loturak finkatuta eta doinuen“ibilbidea” erakusteko aukerak eskainiaz.<br>1. Doinuen katalogazio mailakatua ahalbidetu: plazako doinuak eta partituradun doinuak eskaintzeko bidea egin.<br>2. Bertsoen neurri eta Doinuen neurrien arteko aldeengaia konpondu.<br>3. Bertsoen izendapen eta Doinuen izendapen gaiakonpondu (izendapen errepikapenak ekidin)<br>4. Doinu aldaeren gaia landu ikerkuntza taldearekin<br>5. Doinuen katalogazio politika berraztertu | Doinutegia datu-basearen berregituraketa ez da diseinatubaliabide faltagatik. |
| **5.4.4.4** | **Artxiboen tratamendu dokumentalaren ezagutza finkatu eta partekatu talde dinamiken bidez** | - Jatorrizko ordenazioaren printzipioaren lanketa egin eta Orotariko eta Bertsozale artxiboen sailkapen taula errepasatu<br>- XDZk artxiboekin (elkarteko eta kanpokoekin) egin beharrekotratamendu dokumentalak finkatu: inbentario maila eta katalogazio maila. | - Jatorrizko ordenazioaren printzipioaren lanketa egin da etaOrotariko eta Bertsozale artxiboen sailkapen taula errepasatu eta partekatu da.<br>- XDZk artxiboekin (elkarteko eta kanpokoekin) egin beharreko tratamendu dokumentalak zirriborratu dira:inbentario eta katalogazio mailan. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **5.4.4.5** | **Beste datu-base eta plataformekin datu-trukea** | - Bertsozale.eus-erako prestatutako datu-bidalketak ziurtatu.<br>- Bertsoa.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatu<br>- *Bertsoikasgela.eus*: bidaltzen eta jasotzen diren datuakziurtatu<br>- *Bertsoeskolak.eus*: bidaltzen eta jasotzen diren datuakziurtatu<br>- Sortu daitezkeen datu-truke eskaerei erantzun ahal izatekodokumentazio estandarrak zaindu | - Bertsozale.eus-erako prestatutako datu-bidalketak ziurtatudira.<br>- Bertsoa.eus: bidaltzen eta jasotzen diren datuak ziurtatudira.<br>- *Bertsoikasgela.eus*: bidaltzen eta jasotzen diren datuakziurtatu dira.<br>- *Bertsoeskolak.eus*: bidaltzen eta jasotzen diren datuakziurtatu dira.<br>- *Lanku*.eus webgune berria garatzeko datu-truke eskaereierantzun zaie. |
| **5.4.4.6** | **XDZ egituraketa dokumentalaren ezagutzarentransmisioa** | - Datu-baseen egituraketa eta garapen beharrak identifikatu<br>(atal bakoitzaren garapen egoera).<br>- Etorkizunean egiteko hobekuntzak identifikatuta utzi | - Datu-baseen egituraketa, garapen beharrak eta atal<br>bakoitzaren garapen egoera identifikatu da.<br>- Etorkizunean egiteko hobekuntzak identifikatuta utzi dira. |

## 5.4.5. XDZ: Koordinazio Orokorra. Gizarteratzea

| Helburu zehatzak | | Ebaluazio adierazleak | Egindakoa |
|---|---|---|---|
| **5.4.5. 1** | **XDZren bilduma digitalaren eta datu-baseen gizarteratzea** | nternet: Bat-bateko 200 bertsoaldi inguru *mp3* fitxategi bidezentzuteko moduan eskaini, dagokien grabazioen digitalizazioa<br>eta tratamendua eginez. | nternet: Bat-bateko 250 bertsoaldi *mp3* fitxategi bidezentzuteko moduan eskaini dira, dagokien grabazioen<br>digitalizazioa eta tratamendua eginez. |
| **5.4.5. 2** | **XDZren zerbitzuen gizarteratzea** | Harrera zerbitzuaren gutxieneko bitartekoak bermatu: Erabiltzaileen languneko ordenagailua eta entzungailuak<br>ziurtatu. | Harrera zerbitzuaren gutxieneko bitartekoak bermatudira: Erabiltzaileen languneko ordenagailua eta<br>entzungailuak bermatu dira. |
| **5.4.5. 3** | **Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak** | - XDZ barne gogoeta eta berrantolaketa beharrari erantzuteko<br>Dokumentazio jardunaldien 8. edizioa antolatu gabe utzi. | - XDZ barne gogoeta eta berrantolaketa beharrari erantzun<br>zaio. |

## 5.4.6. XDZ: Atalkako Egitasmoak

| Helburu zehatzak atalka | Ebaluazio adierazleak | Egindakoa |
|---|---|---|

| | | | |
|---|---|---|---|
| 5.4.6.<br>1 | **Biografiak: Pertsonen biografiak, Entitateak eta KulturarteaMapa (adierazpideak)** | - Biografien datu-basean:<br>1. Katalogazio eta tratamenduaren manuala sortu<br>2. Sustapen sailarekin plazetan dabiltzanen biografiakeguneratzeko garapenak gauzatu.<br>- Kulturartea Maparen katalogazio eta tratamendu manuala sortu<br>- Entitateak datu-basean:<br>1. Hezkuntza sailekin Bertso-eskolen eta Ikastetxeen datu-bilketarako garapenen eta datu-trukeen funtzionamendua finkatu eta transmisioa egin.<br>- Internet bidez jasotzen diren iradokizunak dagokion arduradunaribideratu. | - Biografien datu-basean:<br>1. Katalogazio eta tratamenduaren manualasortu da<br>2. Sustapen sailarekin plazetan dabiltzanen biografiak eguneratzeko garapenak gauzatu dira.<br>- Kulturartea Maparen katalogazio eta tratamendumanuala sortu da<br>- Entitateak datu-basean:<br>1. Hezkuntza sailekin Bertso-eskolen eta Ikastetxeen datu-bilketarako garapenen eta datu-trukeen funtzionamendua finkatu da eta transmisioa egin da.<br>- Internet bidez jasotako iradokizunak erantzun dira. |
| 5.4.6.<br>2 | **Saioak eta Aldizkako Ekitaldiak**<br>*Aldizkako ekitaldiak, aldizkakotasun batekin errepikatzen diren ekitaldiakdira: Txapelketak, Sariketak, Bertso-paper Lehiaketak, bertso-asteak, ...* | - Agendaren bilketa modu berriak zaindu:<br>• Sare sozialak arakatzeko modua sistematikoki egin.<br>• Hedabideetako hustuketa eguneratuta mantendu.<br>- Agenda bilketaren garrantzia eragileekin elkarbanatu<br>- *Kulturklik* egitasmoari bidalitako datuak zaindu:<br>• Lanku agendaren zabalkundea zaindu<br>• Eusko Jaurlaritzaren *Open Data* zerbitzuan eskaintzendituen bertsolaritzari buruzko datuak zaindu. | • Sare sozialak sistematikoki arakatu dira.<br>• Hedabideetako hustuketa modu jarraitu batean egin da.<br>• Bilketaren garrantzia eragile guztiekin landu da.<br>• *Kulturklik* egitasmoari bidalitako datuak zaindu dira:<br>✓ Lanku agendaren zabalkundea zaindu<br>✓ Eusko Jaurlaritzaren *Open Data* zerbitzuaneskaintzen dituen bertsolaritzari buruzko datuak zaindu. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **5.4.6.3** | **Bertsoak**<br>*Bat-bateko bertsoak* | - Bat-bateko bertsoen katalogazio eta tratamenduaren manuala sortu<br>- Bat-bateko bertsoen corpusaren berrikuspena egin eta osatzea gauzatu:<br>1. Bat-bateko bertsoen tratamendua manualari, corpusaren egoera txostena gehitu (urteka, erregistroen egoera).<br>2. Bilduma moduan jasoko diren fitxak identifikatu eta egoera aldatu.<br>3. Ikerkuntza taldean bat-bateko corpusaren egoeraren berri eman eta beharrak komunikatu:<br>3.1 Hautatzaile talde baten beharra<br>3.2 *Bapatean* antologia historikoak egiteko beharra<br>- Urtero jaso beharreko transkripzioen bilduma eskuratu:<br>• *Bapatean 2021* antologiako transkripzioak<br>• Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen saioetako transkripzioak eskuratu: Arabako Txapelketa 2022, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2022 eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 2022.<br>• Transkribatzaileek behar duten informazioa (irizpideak, grabazioak, ereduak) antolatu eta ezagutzera eman<br>• Transkribatzaile taldearen beharrei erantzun<br>- Bat-bateko bertsoen katalogazioa egin:<br>• *Bapatean 2021* antologiako bilduma<br>• Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen saioetako transkripzioak eskuratu: Arabako Txapelketa 2022, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2022 eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 2022.<br>- Bat-bateko bertsoen antologiak publikatzeko irizpideak jarraitu eta BDBn publikatu:<br>• *Bapatean 2021* bilduma<br>• Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen | - Bat-bateko bertsoen katalogazio eta tratamenduaren manuala eguneratu da.<br>- Bat-bateko bertsoen corpusaren berrikuspena egin da eta osatzea gauzatu:<br>1. Bat-bateko bertsoen tratamendua manualari, corpusaren egoera txostena gehitu zaio.<br>2. Bilduma moduan jasotako fitxak identifikatu dira.<br>3. Ikerkuntza taldean bat-bateko corpusaren egoeraren berri eman da eta beharrak komunikatu dira:<br>3.1 Hautatzaile talde baten beharra<br>3.2 *Bapatean* antologia historikoak egiteko beharra<br>- Urtero jaso beharreko transkripzioen bilduma eskuratu da:<br>• *Bapatean 2021* antologiako transkripzioak<br>• Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen saioetako transkripzioak eskuratu: Arabako Txapelketa 2022, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2022 eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 2022.<br>• Transkribatzaileek behar duten informazioa (irizpideak, grabazioak, ereduak) eguneratu da eta ezagutzera eman da datu-basearen bidez.<br>• Transkribatzaile taldearen beharrei erantzun zaie<br>- Bat-bateko bertsoen katalogazioa egin dira:<br>• *Bapatean 2021* antologiako bilduma<br>• Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen saioetako transkripzioak |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | saioetako transkripzioak eskuratu: Arabako Txapelketa 2022, EuskalHerriko Eskolarteko Txapelketa 2022 eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 2022.<br>- Gaiburuetako *pertsonak*, *entitateak* eta *lekuak* deskriptoreen bidezkatalogatu eta loturarik ez dutenak ezabatu. | eskuratu: Arabako Txapelketa 2022, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2022 eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 2022.<br>- Bat-bateko bertsoen antologiak publikatzeko irizpideakjarraituz BDBn publikatu dira:<br>  *Bapatean 2021* bilduma<br>  Euskal Herriko eta Herrialdeetako txapelketen |
| | | | saioetako transkripzioak eskuratu: Arabako Txapelketa 2022, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2022 eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 2022.<br>- Gaiburuetako *pertsonak*, *entitateak* eta *lekuak* deskriptoreen bidez katalogatu dira eta loturarik ez dutenak ezabatu. |
| | *Doinuak* | - Doinutegia datu-baseak bat-bateko bertsoen eta ez bat-bateko bertsoen datu-baseekin izango duen egituraketa dokumentalaren diseinatu<br>- Doinutegia datu-basearen manuala egin (egungoa eta ahal bada, etorkizunekoa).<br>- Doinutegiari lotutako lanak burutu:<br>✓ Doinutegiaren katalogazio eta tratamenduaren manuala garatu. Antolaketa orokorrean sarbidea jarri eta sail guztietako lankideen artean azaldu. | ✓Doinutegia datu-baseak bat-bateko bertsoen eta ez bat- bateko bertsoen datu-baseekin izango duen egituraketa dokumentalaren diseinua ez da egin baliabide faltagatik.<br>✓Doinutegia datu-basearen manuala ez da egin.<br>✓Doinutegiari lotutako lanak burutu dira:<br>✓ Doinutegiaren katalogazio eta tratamenduaren manuala ez da garatu. |
| | *Ez bat-bateko (edo idatziz) jasotako bertsoak* | - Ez bat-bateko edo idatziz jasotako bertsoen tratamendu dokumentala eta katalogazio politikarako diseinua egin.<br>- Ez bat-bateko (edo idatziz jasotako) bertsoen manuala sortu | - Ez bat-bateko edo idatziz jasotako bertsoen tratamendu dokumentala eta katalogazio politikarako diseinua ez da finkatu baliabide faltagatik. Gako nagusien lanketa egin da eta diseinua egiteko prest utzi da.<br>- Ez bat-bateko edo idatziz jasotako bertsoen manuala ez da sortu. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **5.4.6.4** | **Grabazioak**<br>*Ikus-entzunezkoak* | - Grabazioen bilketa eta bildumaren manuala finkatu<br>- Grabazioen katalogaziorako manuala finkatu<br>- Grabazioen digitalizaziorako manuala finkatu<br>- Grabazioen zerbitzurako manuala finkatu<br>- 2021ko plazako jarduna jasotzeko Grabazio Sarea zaindu:<br>✓ Herrialdeetako eragileekin eta herrialdeko ikerkuntza arduradunarekin elkarlanean<br>✓ Bertso-eskolekin elkar-truke tratuak egin<br>✓ Baliabide tekniko egokiak eskaini<br>✓ Grabatzaileen formazioa bideratu, irizpideak ezagutarazi<br>✓ Urteko saioen % 15a grabatzeko irizpidea zaindu<br>- Aurreko urteko bilketaren argazkia atera, herrialdeka: izandako saioak eta jasotako grabazioen arteko lotura egin eta modu grafikoan erakutsi: BDBko grafikak baliatu.<br>- *Hitzetik Hortzera* eta Bertsoa.eus egitasmoek 2021-2022<br>ikasturtean egindako grabazioak tratatu eta antolatu. | - Grabazioen bilketa, katalogazio, digitalizazio eta zerbitzurako manualak adostu dira.<br>- 2021ko plazako jarduna jasotzeko Grabazio Sarea zaindu da:<br>✓ Herrialdeetako eragileekin eta herrialdeko ikerkuntza arduradunarekin elkarlanean<br>✓ Bertso-eskolekin elkar-truke tratuak egin dira<br>✓ Baliabide tekniko egokiak eskaini dira<br>✓ Grabatzaileen formazioa bideratu da, irizpideak ezagutaraziz<br>✓ Urteko saioen % 15a grabatzeko irizpidea zaindu da<br>- Aurreko urteko bilketaren argazkia atera da, herrialdeka: izandako saioak eta jasotako grabazioen arteko lotura egin da.<br>- *Hitzetik Hortzera* eta Bertsoa.eus egitasmoek 2021- |
| | | - 2022 urteko grabazioen tratamendua eta oinarrizko katalogazioa burutu, fitxategien izendapena eta kokapena aplikatuz.<br>- Urtean zehar edozein euskarritan jaso diren beste grabazioen oinarrizko tratamendua egin eta kokapena aplikatu. | 2022 ikasturtean egindako grabazioak tratatu eta antolatu dira.<br>- 2022 urteko grabazioen tratamendua eta oinarrizko katalogazioa burutu da, fitxategien izendapena eta kokapena aplikatuz.<br>- Urtean zehar edozein euskarritan jaso diren beste grabazioen oinarrizko tratamendua egin da eta<br>kokapena eman zaie. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 5.4.6.5 | **Argazkiak**<br>*Paper, negatibo, positibo, digital eta digitalizatuak* | - Argazkiak OMEKA datu-basean eskaini:<br>1. Interneten argitaratu ahal diren fitxak identifikatu, markatu eta argitaratu.<br>2. Interneten argitaratu ahal diren fitxategiak identifikatu eta argitaratu: xdz4 eta xdz5 fitxategiak prestatu<br>3. Eskubideen esaldia(k) adostu eta fitxei aplikatu<br>- Argazkien deskriptoreak (*txt* motadunak) finkatu.<br>- Etorkizuneko garbiketak identifikatu: datak,…<br>- Urteko gutxieneko argazki-erreportajeak finkatu eta koordinatu.<br>- Jasotako argazki bildumen informazioa bildu eta oinarrizko tratamendua ziurtatu.<br>- *Bertsolari* aldizkariaren argazki bilduma eskuratu eta oinarrizko tratamendua ziurtatu (2021eko aleak). | - Argazkiak OMEKA datu-basean eskaintzeko lanak egin dira:<br>1. Interneten argitaratu ahal diren fitxak identifikatu dira.<br>2. Interneten argitaratu ahal diren fitxategiak identifikatu dira.<br>3. Eskubideen esaldia(k) adostu dira.<br>- Argazkien deskriptoreak (*txt* motadunak) finkatuta daude.<br>- Etorkizuneko garbiketa batzuk identifikatu dira: datak osatzea, data tarteak finkatzea…<br>- Urteko gutxieneko argazki-erreportajeak finkatu eta koordinatu dira.<br>- Jasotako argazki bildumen informazioa bildu eta oinarrizko tratamendua ziurtatu da.<br>- *Bertsolari* aldizkariaren argazki bilduma eskuratu eta oinarrizko tratamendua eman zaie. |
| 5.4.6.6 | **Liburutegia**<br>*Liburuak (zentzu zabalenean) eta Hemeroteka (Paperezko aldizkari, aldizkari elektroniko, eta artikuluen datu-baseak)* | - Kokapen sistema finkatu eta prestatuta utzi, etorkizunean berkatalogatu eta kokapen berriak emateko.<br>- Liburutegiko manuala bukatu<br>- *Deskriptoreak* autoritateak finkatu, etorkizunean berkatalogatu eta interneten erakutsi ahal izateko.<br>- Liburutegiko bilduma osatu,<br>✓ Bertsolaritzaz argitaratzen den liburu oro eskuratzen saiatu.<br>✓ Osagarriak diren gaiei buruzko argitalpenak eskuratzen saiatu (ahozkotasuna, munduko kantu inprobisatuak eta euskarazko ahozko sorkuntzak).<br>✓ Elkarteek eta Lankuk edozein euskarritan argitaratutako materiala bildu (*BertsoZalea*, herrialdeetako buletinak eta | - Ez da kokapen sistema finkatu.<br>- Liburutegiko manuala bukatu da.<br>- Ez dira *deskriptoreak* autoritateak finkatu baliabide faltagatik.<br>- Liburutegiko bilduma osatu da:<br>✓ Bertsolaritzaz argitaratutako liburuak eskuratu dira.<br>✓ Osagarriak diren gaiei buruzko argitalpenak eskuratu dira (ahozkotasuna, munduko kantu inprobisatuak eta euskarazko ahozko sorkuntzak).<br>✓ Elkarteek eta Lankuk edozein euskarritan argitaratutako materiala bildu da (*BertsoZalea*, |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | bestelako argitalpenak).<br>- Bildutako materialaren tratamendua eta oinarrizko katalogazioa burutu,<br>✓ 2021an jasotako liburuen tratamendua eta oinarrizko katalogazioa egin.<br>✓ '*Bapatean 2021'* liburuaren *pdf* formatudun bertsioa interneten eskaini.<br>✓ Elkarteek eta Lankuk edozein euskarritan argitaratutako materialaren tratamendua eta oinarrizko katalogazioa egin. | herrialdeetako buletinak eta bestelako argitalpenak).<br>- Bildutako materialaren tratamendua eta oinarrizko katalogazioa burutu da,<br>✓ 2021an jasotako liburuen tratamendua eta oinarrizko katalogazioa egin da.<br>✓ '*Bapatean 2021'* liburuaren *pdf* formatudun bertsioa interneten eskaini da.<br>✓ Elkarteek eta Lankuk edozein euskarritan argitaratutako materialaren tratamendua eta oinarrizko katalogazioa egin da. |
| **5.4.6 .7** | **Prentsa**<br>*Paperean eta interneten argitaratutako egunkari, aldizkari eta webguneetako artikuluak* | - 2019an finkatutako prentsa atalaren katalogazioa eta tratamendua egunera eraman.<br>- Prentsa iturriak egunean mantendu, behar direnak kendu eta gehituz. | - 2019an finkatutako prentsa atalaren katalogazioa eta tratamendua egunera eraman da.<br>- Prentsa iturriak egunean mantendu dira, behar direnak kendu eta gehituz. |
| **5.4.6 .8** | **Iragarkiak**<br>*Saio eta ekitaldien inguruan argitaratutako bilduma (eskuorri, kartel, sarrera, itsasgarri, ...) eta bestelako materiala* | Urtean zehar edozein euskarritan jasotzen diren kartel eta bestelako materialaren oinarrizko tratamendua eta dagokion kasuan, katalogazioa, egin. | - Urtean zehar jasotako diren kartel eta bestelako materialaren oinarrizko tratamendua egin da. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **5.4.6.9** | **Artxiboa**<br>*Bertsozale Elkartearen Artxiboa eta Orotariko Artxiboa* | - Bertsozale Elkartetik jasotako dokumentazioaren inbentarioa egin.<br>- Goierriko Bertso-eskolatik 2014an jasotako dokumentazioa katalogatu<br>- Artxiboa datu-basearen oinarrizko manuala idatzita jarri.<br>- Elkarteek sortutako barne buletinak bildu: barne orria. | - Bertsozale Elkartetik jasotako dokumentazioaren inbentarioa egin da.<br>- Goierriko Bertso-eskolatik 2014an jasotako dokumentazioa katalogatu da.<br>- Artxiboa datu-basearen oinarrizko manuala idatzita jarri da.<br>- Elkarteek sortutako barne buletinak bildu dira: barne orria. |

## 5.4.7. XDZ: Elkarte eta Sailekin elkarlana

| Helburu zehatzak | | Ebaluazio adierazleak | Egindakoa |
|---|---|---|---|
| **5.4.7.1** | **Orokorra**<br>*Lan-prozesuen zaintza Sail eta Herrialdeekin* | Bertsozale Elkarteko Sail eta Herrialdeekin, egitasmoetako lan- prozesuak bermatzeko elkarlana bideratu eta behar diren bilkurak egin, beti ere, XDZko gizarteratze planaren zaintzarekin orekan. | Bertsozale Elkarteko Sail eta Herrialdeekin, egitasmoetako lan-prozesuak bermatzeko elkarlana bideratu da eta behar diren bilkurak egin dira, beti ere, XDZko gizarteratze planaren zaintzarekin orekan. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **5.4.7.2** | **Ikerkuntza**<br>*Dokumentazioa ikerkuntzaren beharrizanetarako prestatu.* | - Ikerkuntza bileretan parte hartu.<br>- Ikerkuntza sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun.<br>- Biografiak, Kulturarteko mapa eta Doinutegia egitasmoen ardura Ikerkuntza sailera bideratu.<br>- Doinutegia egitasmoari lotutako lanak burutu,<br>1. Doinutegi Batzordeko bileratan parte hartu eta dokumentazio beharrizanak detektatu.<br>2. Egitasmoa burutzeko behar diren datu guztiak eta elkarlana eskaini.<br>3. Doinutegia datu-basea eguneratu.<br>- Urteko bat-bateko bertso corpusaren iturri den *Bapatean* antologia libururako lanak ikerkuntza eta sustapen taldearekin batera bideratu:<br>✓ Saioei buruzko informazioa helarazi<br>✓ Transkripzioak koordinatu eta transkribatzaileei grabazioak prestatu<br>✓ *Bapatean 2021* edizio digitala prestatu eta audio fitxategiekin batera interneten publikatu<br>✓ Urtean zehar izan diren saio eta aldizkako ekitaldiei buruzko informazio guztia prestatu, taulen bidez kopuru orokor eta ehunekoak eskainiz.<br>✓ Urtean zehar egin diren aldizkako ekitaldien fitxa osatuak eskaini<br>✓ Urtean zehar izandako jarduna irudikatzeko behar diren argazkiak eskaini. | ✓ Ikerkuntza bileratan parte hartu da.<br>✓ Ikerkuntza sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie.<br>✓ Biografiak, Kulturarteko mapa eta Doinutegia egitasmoen ardura Ikerkuntza sailera bideratu dira.<br>✓ Doinutegia egitasmoari lotutako lanak burutu dira,<br>1. Doinutegi Batzordeko bileratan parte hartu eta dokumentazio beharrizanak detektatu dira.<br>2. Egitasmoa burutzeko behar diren datu guztiak eta elkarlana eskaini da.<br>3. Doinutegia datu-basea eguneratu da.<br>✓ Urteko bat-bateko bertso corpusaren iturri den *Bapatean* antologia libururako lanak ikerkuntza eta sustapen taldearekin batera bideratu dira:<br>✓ Saioei buruzko informazioa helarazi zaie<br>✓ Transkripzioak koordinatu dira eta transkribatzaileei grabazioak prestatu zaizkie<br>✓ *Bapatean 2021* edizio digitala prestatu eta audio fitxategiekin batera interneten publikatu da<br>✓ Urtean zehar izan diren saio eta aldizkako ekitaldiei buruzko informazio guztia prestatu da, taulen bidez kopuru orokor eta ehunekoak eskainiz.<br>✓ Urtean zehar egin diren aldizkako ekitaldien fitxa osatuak eskaini dira<br>✓ Urtean zehar izandako jarduna irudikatzeko behar diren argazkiak eskaini dira |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 5.4.7 .3 | **Hezkuntza**<br>*Hezkuntza Sailaren beharrei erantzun* | - Hezkuntza sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun.<br>- *Bertsoikasgela.eus* hezkuntza arautuko ikasmaterialaren ataria elikatzeko dokumentazio zerbitzua eskaini.<br>- *Bertso eskola* atariaren ikasmateriala elikatzeko dokumentazio zerbitzua eskaini. | - Hezkuntza sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie.<br>- *Bertsoikasgela.eus* hezkuntza arautuko ikasmaterialaren ataria elikatzeko dokumentazio zerbitzua eskaini da.<br>- *Bertso eskola* atariaren ikasmateriala elikatzeko dokumentazio zerbitzua eskaini da. |
| 5.4.7 .4 | **Sustapena**<br>*Sail eta Herrialdetako Sustapen sailekin elkarlana bermatu.* | - Sustapen sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun.<br>- Plaza azterketa egiteko behar diren dokumentazio baliabideak eskaini eta jarraipena egin.<br>- Plazako azterketa sustatzeko lanetan jasotako dokumentazioa<br>eskuratu. | - Sustapen sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie.<br>- Plaza azterketa egiteko behar diren dokumentazio baliabideak eskaini dira eta jarraipena egin zaie.<br>- Plazako azterketa sustatzeko lanetan jasotako |
| | | - Antolatzen diren txapelketa eta ekitaldietarako dokumentazioa jaso eta behar diren dokumentazio-zerbitzuak eskaini eta ziurtatu:<br>Bertso Eguna 2022, Arabako Txapelketa 2022, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2022 eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 2022.<br>- Gai-jartzaileen plataformak behar duen dokumentazioa eskaini.<br>- Epaileen plataformak behar duen dokumentazioa eskaini. | dokumentazioa eskuratu eta katalogatu da.<br>- Antolatzen diren txapelketa eta ekitaldietarako dokumentazioa jaso da eta behar diren dokumentazio- zerbitzuak eskaini eta ziurtatu dira:<br>Bertso Eguna 2022, Arabako Txapelketa 2022, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2022 eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusia 2022.<br>- Gai-jartzaileen plataformak behar duen dokumentazioa bideratu da.<br>- Epaileen plataformak behar duen dokumentazioa bideratu da. |
| 5.4.7 .5 | **Hedapena**<br>*Hedapen taldearen beharrei erantzun* | - *Hitzetik Hortzera* eta *Bertsoa.eus* egitasmoen dokumentazio beharrei erantzun eta sortutako materialaren bilketa eta katalogazioa ziurtatu.<br>- Hedapen lantaldeak egindako ekoizpen berezien dokumentazio beharrei erantzun eta sortutako materialaren bilketa eta<br>katalogazioa ziurtatu. | - *Hitzetik Hortzera* eta *Bertsoa.eus* egitasmoen dokumentazio beharrei erantzun zaie eta sortutako materialaren bilketa eta katalogazioa ziurtatu da.<br>- Hedapen lantaldeak egindako ekoizpen berezien dokumentazio beharrei erantzun zaie eta sortutako<br>materialaren bilketa eta katalogazioa ziurtatu da. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **5.4.7.6** | **Komunikazioa**<br>*Elkartearen komunikazio beharrei erantzuten lagundu* | - Komunikazio sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun. | Komunikazio sailak behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie. |
| **5.4.7.7** | **Feminismoa** | - Feminismo batzordearen dokumentazio beharrei erantzun<br>- Emakume historikoen dokumentazioa lehenetsi eta argitaratu. (Biografiak, bertsoak…)<br>- Datu-base eta testuetan genero ikuspegia txertatu. | - Feminismo batzordearen dokumentazio beharrei erantzun zaie.<br>- Emakume historikoen dokumentazioa lehenetsi eta argitaratu da.<br>- Datu-base eta testuetan genero ikuspegia txertatu da. |
| **5.4.7.8** | **Administrazioa** | - Dokumentazio administratiboaren kudeaketa bateratua eguneratuta mantendu: Ordainagirien jarraipena egin.<br>- Erabiltzaile guztiei (partikularrak, erakundeak…) emandako zerbitzuen ordainagiriak bidali. | - Dokumentazio administratiboaren kudeaketa eguneratuta mantendu da: Ordainagirien jarraipena egin da.<br>- Erabiltzaile guztiei (partikularrak, erakundeak…) emandako zerbitzuen ordainagiriak bidali zaizkie. |
| **5.4.7.9** | **Lanku** | - Lankuk behar dituen informazio eskaerei erantzun.<br>- Lankuk bere jardunean sortutako materialaren bilketa ziurtatu.<br>- Lankuren webgune berria egiteko behar diren datu-baseak sortzeko datu-trukea egituratu, eta informatikariekin bideratu: bertsolari eta gai-jartzaileen zerrendak; emanaldien katalogoa eta Lankuren agenda. | - Lankuk behar dituen informazio eskaerei erantzun zaie.<br>- Lankuk bere jardunean sortutako materialaren bilketa ziurtatu da.<br>- Lankuren webgune berria egiteko behar diren datu- baseak sortzeko datu-trukea egituratu eta informatikariekin bideratu da: bertsolari eta gai- jartzaileen zerrendak; emanaldien katalogoa eta Lankuren agenda. |

# SUSTAPENA

## Deskribapena

| Urteko helburuak | BALORAZIOA |
|---|---|
| - Bertso saio eta ekitaldiak sustatzea. Plaza aztertu, jarraipena egin eta biziberritzeko ekintzak gauzatzea.<br>- Bertsogintza indartzea.<br>- Lankuren plazako posizionamendua indartzea eta barne funtzionamendua eraginkortzea..<br>- Lurralde mailan sustapen proiektuen jarraipena eta koordinazioa egitea.<br>- Bertsolari Txapelketa Nagusia gauzatzea. | - Urte oso ona izan da 2022. Nola hasi genuen eta nola amaitu dugun kontutan hartuko bagenu, urte bikaina izan da. Pandemia garaiko eskasiari erantzun paregabea eman dio bertso munduak.<br>- Lankuren erreferentzialtasuna goraka doa urtez urte, eta garai zailenetan ere plazarako eta bertsolarientzako babesa eta bermea izatea lortu du 2022an ere.<br>- Lurralde mailako sustapen egitasmo guztiak atera dira aurrera, aurreikusitako moduan.<br>- Bertsolari Txapelketa Nagusia emaitza borobilarekin gauzatu da. |

| Sailaren kudeaketa | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |

| | | |
|---|---|---|
| - **Sustapen sailaren kudeaketa eraginkorra lortu.** | - Eragilearen lan modua aztertu eta eraginkortasuna bilatu.<br>- Lan-karga eta lan eremu jasangarria izatea.<br>- Elkartearen funtzionamenduaren barruan ondo moldatzea.<br>- Beste sail eta herrialdeekin harreman eta lan jardunak onak izatea.<br>- Sustapen Batzordearen osasuna eta funtzionamenduaz arduratzea.<br>  - Soldatapeko eta borondatezkoen engranaje egokia.<br>  - Batzordearen funtzioa eta funtzionamendua berdefinitzea.<br>- Sustapeneko proiektuak eta parte-hartzen dituen proiektuak aurrera eramateko gaitasuna erakustea.<br>- Lan talde osoaren talde izaera indartu eta giro osasuntsua bermatzea. | - Elkartearen funtzionamendu berrira ongi egokitu da Sustapen Saila. Funtzionamendu berrian egonkortzeko pausuak falta badira ere, bide onetik goaz.<br>- Txapelketa Nagusiak lan-kargak asko gogortu ditu eta oreka topatzea oso zaila izan da. Dena den, lau urteko zikloa izanik, jasangarria dela esan daiteke.<br>- Beste herrialde eta sailekin elkarlan handia egin da 2022an zehar.<br>- Sustapen batzordeak urte oparoa izan du. Lehen seihilekoan Txapelketako kontuetan arduratu da, eta bigarrenean 2023k bertso eguna antolatzeaz.<br>- Aurreikusi diren proiektu gehienak aurrera ateratzea lortu da, markatutako helburuak betez.<br>- Lan taldearen harremanak asko hobetu dira urte honetan. |
| - **Erraminta bateratuen kudeaketa** | • Lankuren lan-taldearen jarraipena eta laguntza.<br>• Lankuren ikuspegi estrategikoa marrazten lagundu eta sustapeneko ikuspegia txertatu.<br>• Lankuren beharrak identifikatu, eta aldaketak inplementatzen lagundu.<br>• Publizitatearen inguruko gogoeta iraunkorra egin, bide berriak jorratu.<br>• Bertsosarrerak.eus atariaren egokitzapenak egin.<br>• Biltegi berriaren egokitzapena egin.<br>• Furgonetaren mantenimendua kudeaketa ona egin | - Lankuko lan-taldearen jarraipena ondo egin da. Txapelketa garian antzeman da denbora falta, baina ongi egokitu da lantaldea.<br>- Publizitatean urte ona izan da, Txapelketaren baitan diru sarrera handiak lortu dira. Orain, Xebastian Lizasoren ziklo amaiera gauzatzea geratzen da.<br>- Bertsosarrerak.eus ataria Ticket Bai-en beharretara egokitu da. Horretarako aurreikusi gabeko 10.000€ inguru inbertitu behar izan dira.<br>- Biltegi berriaren egokitzapena bukatu da, dena ondo dago.<br>- Furgoneta berriaren erosketa proposamena onartu da. |

| | | |
|---|---|---|
| - **Sustapeneko proiektuak diseinatu, garatu, koordinatu eta kudeatu** | • Bidaiak, Eskolartekoa, Bertso-eguna eta plazako proiektuen koordinazioa eta kudeaketa egin.<br>• Herrialdeen jarraipena egin eta inplikazioa lortu.<br>• BTN22 koordinatu, garatu eta gauzatu.<br>• Beste antolatzaileekin elkarlanean plaza indartzeko egitasmoak aurrera eraman. | - Bidaiak izan ezik, beste egitasmo guztiak gauzatu dira arazorik gabe.<br>- Herrialdeetako sustapen egitasmoetan laguntza eman da.<br>- BTN22a oso balorazio onarekin gauzatu da.<br>- Hainbat eragilerekin gauzatu dira plazako egitasmoak: Herri Urrats, Ikastolen Elkartea, Elkano Fundazioa, Itsas Museoa, Athletick fundazioa, Real Sociedad fundazioa, … |
| - **Bertsogintza indartu** | • Bertsolari, epaile, gai-jartzaile eta abarren formazioak diseinatu eta egoki kudeatu.<br>• Sortzaileen baldintzetan aurrera pausoak.<br>• Gazteen plazaratzearen diagnosia egin.<br>• Zehar-lerroen garrantzia eta presentzia bermatu.<br>• Bertsogintzaren zentraltasuna bisibilizatu.<br>• BTN22a baliatu bertsogintza balioan jartzeko. | - Epaile Eskola Iraunkorreko ziklo berezia bikain gauzatu da, 30 bat epailek hartu dute parte 6 lan saiotan.<br>- Lanartea Elkartearekin aurrerapauso handiak eman dira bertsolarien baldintza duinak lortzeko bidean.<br>- EKKI Elkarteak aurrera pauso batzuk eman ditu, baina asko dago egiteko oraindik.<br>- Elkartearen 3 zehar-lerroak oso presente egon dira sustapeneko urte osoko egitasmoetan.<br>- BTN22ari esker bertsolaritza euskal kulturaren lehen lerrora ekartzea lortu da. 3 hilabetetan zehar hizketagai nagusia izan da euskal kulturaren barruan. |

| | | |
|---|---|---|
| - **Lanku koordinatu**<br>• Lan lerroen zaintza eta koordinazioa<br>• Egile Eskubideak<br>• Lan taldearen kudeaketa<br>• Sustapen ikuspegia eta estrategia<br>- **Lankuren egituraketa berriari jarraipena ematea.**<br>- **Elkartea eta Lankuren arteko zubi lana egitea.**<br>- **Administrazio kontseilu berria egituratzea.**<br>- **Lanku.eus atari berria garatzea.** | • Plazatik kudeatzen diren saioen proportzioak gora egitea.<br>• Saio eta emanaldien barne kudeaketa eraginkorra egitea.<br>• Emanaldien ziklo aldaketari segida eman, eta zirkuitoa handitzea.<br>• Euskaraldirako proposamena landu, eta asmoak gauzatzea.<br>• Lan giro jasangarri bat edukitzea.<br>• Lan taldearen motibazioa indartu eta eta erronka berriei gogoz heltzeko bermeak lortzea.<br>• Administraziorako ERP berria inplementatzea.<br>• EKKI-ri jarraipena egin eta bertsolarientzat aurrerapausoak lortzea.<br>• Egile eskubideetatik diru sarrerak igotzea.<br>• Bertsolariei SGAEn edo EKKIn alta ematen laguntzea. | - Urtean zehar kudeatzen diren plazako saio eta emanaldi bereziek gora egin dute nabarmen.<br>- Egile eskubideen kudeaketan asko dago egiteko oraindik, baina EKKI ari da aurrera pausuak ematen.<br>- Lan giro lasaiago bat lortu da aurtengo urtean zehar.<br>- Lan taldea aldaketa berrira ondo egonkortu da, eta lanerako jarrera onarekin dabil.<br>- ERP berriaren guztizko inplementazioa lortu ez bada ere, 2023 urte hasieran martxan egotea espero dugu. Lan asko eman digu atal honek.<br>- 8 bat bertsolarik eman dute alta EKKIn.<br>- Lanku.eus ataria ia amaituta dago, urte amaieran martxan egotea espero dugu. Gure asmoa irailerako martxan egotea zen, baina ez gara iritxi.<br>- Administrazio kontseilu berria eratu da, eta dokumentu legal guztiak berritu dira. |

| | | |
|---|---|---|
| - **Herraminta bateratuen kudeaketa** | • Lankuren lan-taldearen jarraipena eta laguntza.<br>• Lankuren ikuspegi estrategikoa marrazten lagundu eta sustapeneko ikuspegia txertatu.<br>• Lankuren beharrak identifikatu, eta aldaketak inplementatzen lagundu.<br>• Publizitatearen inguruko gogoeta iraunkorra egin, bide berriak jorratu.<br>• Bertsosarrerak.eus atariaren egokitzapenak egin.<br>• Biltegi berriaren egokitzapena egin.<br>• Furgonetaren mantenimendua kudeaketa ona egin | - Lankuko lan-taldearen jarraipena ondo egin da. Txapelketa garian antzeman da denbora falta, baina ongi egokitu da lantaldea.<br>- Publizitatean urte ona izan da, Txapelketaren baitan diru sarrera handiak lortu dira. Orain, Xebastian Lizasoren ziklo amaiera gauzatzea geratzen da.<br>- Bertsosarrerak.eus ataria Ticket Bai-en beharretara egokitu da. Horretarako aurreikusi gabeko 10.000€ inguru inbertitu behar izan dira.<br>- Biltegi berriaren egokitzapena bukatu da, dena ondo dago.<br>- Furgoneta berriaren erosketa proposamena onartu da. |

Proiektuak

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Plaza Biziberritzen Bidaiak |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarriletik irailera |
| **Deskribapen motza** | Bidaiak Bertsozale Elkarteak bere ekimenez antolatutako saio esperimentalak dira. Plazatik harago, bestelako emanaldi eta saiakera berritzaileei aukera eman nahi genieke atal honetan. Plazaren formatuaren ertzak zorrozteko eta zabaltzeko helburuez ari gara. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **Helburu nagusiak:**<br><br>a. Bertsolaritzarako espazio berriak eskaintzea<br>b. Beste ikuspegi batetik bertsolaritzari begiratzeko aukera ematea<br>c. Kultur disziplina desberdinetako kideekin sormen prozesuak partekatzea<br><br>**Zeharkako helburuak**<br>d. Publiko berria: perfil desberdineko hartzaileengana iristea<br>e. Etorkizuneko plaza formatu berriak sortzea<br>f. Gaiaren araberako espazioetan kultur jarduerak antolatzea<br>g. Teknologia berrien erabileran sakontzea<br>h. Emakume bertsolari eta kultur eragileen ikusgarritasuna areagotzea | - 2022. urtean 3 bidaia egitea.<br>- Berritasunari lekua egin eta proposamen berriak plazaratzea.<br>- Beste disziplinekin elkarlana egitea.<br>- Publiko berria erakartzea, ohiko bertso saioetan ibiltzen denaz haratago.<br>- Gure zehar lerroak presente izan eta oreka mantentzea.<br>- Gazteen presentzia bermatzea.<br>- Herrialdeen inplikazioa lortzea.<br>- Saioek hedapena izatea.<br>- GFA-aren Oreka diru-laguntza kontutan izatea. |

| **Balorazioa** |
|---|
| Bidaiak ekimena pandemia garaiak utzitako egoerari aurre egiteko sortu zen, Plaza Biziberritzen-en barruan. 2022. urtea berreskurapen urtea izan da, eta sustapen batzordeak ez du Bidaiak antolatzeko beharrik ikusi. |

Hala ere helburu hauek betetzeko asmoarekin, berrikuntza kutsu bat eman zitzaion Izpuran ospatu zen Bertso-egunari.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Bertsolari Txapelketa Nagusia |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar. Saioak udazkenean. |
| **Deskribapen motza** | |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| - Bertsogintza erdigunean kokatu<br>- Herrialdetako bertsogintza eta bertsolaritza islatu.<br>- Bertsozaleak erakarri/aktibatu<br>- Kulturgintzan eta euskalgintzan ekarpenak egitea.<br>- Bertsozale elkartea indartu. | • Txapelketari neurriko proportzioa eman, bertsotarako baldintza egokiak sortzea.<br>• Sortzaile guztiak errepresentatuak eta baloratuak sentituak izatea.<br>• Bertsolarien aniztasuna erakustea.<br>• Herrietako bertso eskolak balioan jartzea.<br>• Finantzaketan lagunduko duten bidelagunak erakartzea<br>• Saio jendetsuak eta inpaktu handikoak izatea.<br>• Plazaren sustapenean edo aktibazioan lagungarri izatea.<br>• Ekarpen ekonomiko handia egitea Bertsozale Elkarteari.<br>• Gure baliabide propioak indartzea.<br>• Talde kohesioan laguntzea. |

**Balorazioa**

- Oso balorazio onarekin bukatu da Bertsolari Txapelketa Nagusia.
- Euskal Herri osoko plazako errealitatearen isla izatea du helburuetako bat Txapelketak, eta hein handi batean lortu du.
- Bertsolaritza modu ezberdinean ulertu eta praktikatzen duten hainbat bertsolari egon dira oholtza gainean, eta horrek asko aberastu du aurtengo Txapelketa.
- Finantzazio iturri nagusia izan da aurten ere Txapelketa. Datozen urteetarako egonkortasun ekonomikoa emango dio Bertsozale Elkarteari.
- Plazaren sustapen eta indartzean bultzada izugarria da Txapelketa. 3 hilabetetan zehar lehen lerroan egon den euskal egitasmo kulturala izan da, eta horrek hedapen handia ematen dio bertsolaritzari.
- Bertsozale Elkarteko beste hainbat proiektu ikusgarri egiteko ere aproposa izan da Txapelketa Nagusia.
- Beste sail eta herrialdeekin talde kohesioa lantzeko ere paregabea izan da.

| Proiektuaren izena: | Plaza azterketa |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar |
| **Deskribapen motza** | Bertsozale Elkartearen Gogoeta Estrategikoan garbi geratu zen plazan pedagogia egiteko beharra. Plazaren azterketa lehentasunetan 5. Tokian zegoen, baina lehenengoarekin oso lotuta: Plazaren eragitea eremu ezberdinetan.<br>Eragin edo pedagogia hau gauzatu ahal izateko, beharrezkoa ikusten da plazaren azterketa sakona egitea.<br>Xenpelar Dokumentazio Zentroa oinarri hartuta, plazaren jarraipen iraunkorra egiteko oinarriak jartzen segi eta plaza ezagutzea da asmoa. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| Plazaren ezagutza areagotzea.<br><br>Beste proiektuentzat eta lurraldeentzat kokapen objetibo bat eskaintzea<br><br>Egiten ditugun ekintzen inpaktua neurtzeko tresna bilakatzea<br><br>Datu bilketa eraginkortzea<br><br>Datuen eguneraketa. | • Gure proiektuen diseinuetan plaza azterketaren presentzia handitzea.<br>• Beste sail eta lurraldeetatik etortzen diren eskaerei erantzutea.<br>• Elkartearetzat tresna baliagarria izatea.<br>• Begia jarri nahi den lerroak aukeratu, eta hauen datuen analisi jarraitua egitea urtean zehar.<br>• Datuen bilketa nola areagotu pentsatu, eta praktikan jartzea.<br>• Datu basearen berritzea eta osatzea. Bibliografietan jaiotze datak eta generoa osatzea. |

| Balorazioa |
|---|
| - Ezinbesteko erraminta bihurtu da plaza azterketa sustapeneko egitasmoei jarraipena egiteko. Azken bi urteetan asko indartu da atal hau eta bere emaitzak ikusten hasiak gara dagoeneko.<br>- Datu bilketa indartu da horretarako dedikazio erdi bat jarriz. Horri esker plazako datu gehiago biltzen dira, eta antolatzaileen datu basea berritu da.<br>- Aurten, urteroko 3 txosten erregular egin dira: Seihileko azterketa, udako azterketa eta urte osoko azterketa.<br>- Sail eta Herrialdeetatik 12 eskaera zehatz jaso eta erantzun dira.<br>- Honek garbi uzten du erraminta baliagarria dela beste proiektu eta herrialdeentzat.<br>- Bertsolarien hainbat bibliografia ere berritu dira. |

| Proiektuaren izena: | Gizonezkoen bertso eskola feminista |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarriletik ekainera eta urritik abendura |
| **Deskribapen motza** | Gizonezko bertsolari eta gai-jartzaileek lanketa feminista egiteko bertso-eskola da. Hilean behineko maiztasuna du. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|

| | |
|---|---|
| Lanketa feminista egingo duen bertso-eskola izatea, gizontasunetik abiatuta.<br><br>Konfiantza eta zaintza erdigunean jarriko dituen taldea izatea.<br><br>Maskulinitatearekiko ikuspegi kritikoa landu, eta norbere bidetik aurrera pausoak emateko erraminta izatea. | • Formazio zikloaren kudeaketa egokia egin.<br>• Taldearen osasuna eta giro atsegina mantendu.<br>• Parte hartzaileei gogoetarako eta begirada kritikoa eduki dezaten gunea eskaini.<br>• Formazioaren gizarteratzean aurrera pausoak eman.<br>• Datozen urteetako norabidea marraztu.<br>• Finantzaketa bide berriak bilatu. |

| **Balorazioa** |
|---|
| - Talde kohesio handia eta oinarri sendoak jarri dira aurrera begirako lanketa feministak egiteko.<br>- Partaideen parte-hartze aktiboa bilatu da. 9 saioetatik 2tan, diseinuan eta edukien prestaketan parte hartu dute 11 taldekideek.<br>- Saio irekia egiteko saiakera egin zen Iruñean, baina ez zuen arrakastarik izan.<br>- 2 partaide berri izan ditugu aurtengo ikasturtean.<br>- Txapelketa Nagusia baliatuz, 4 hilabeteko geldialdia egitea erabaki da.<br>- Txapelketak utzitako gogoetak bildu, eta urtea hastearekin batera martxan jartzea da asmoa. |

| **Proiektuaren izena:** | Ahalduntze bertso eskola feminista |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarriletik ekainera eta urritik abendura |
| **Deskribapen motza** | Emakume bertsolarien plazaratzea landu eta ahalduntzea lantzeko hilean behineko maiztasunarekin egiten den bertso eskola |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| - Lanketa feminista egingo duen bertso-eskola izatea.<br>- Dauden ibilbide desberdinen beharren uztarketa egitea.<br>- Gai jartzaile-dinamizatzaileen taldea egonkortzea.<br>- Bizkaia eta Gipuzkoa lotura sakondu (bi tokietan egiten diren taldeak elkar harremanetan egotea)<br>- Konfiantza eta zaintza erdigunean jarriko dituen taldea izatea.<br>- Esperimentaziorako bideak eskaintzea | - Taldetasuna<br>- Proiektuaren asetze maila<br>- Parte hartzaileen asebetetzea<br>- Kanpo irakasleak<br>- Bi talde izatearen balorazioa<br>- Belaunaldien arteko uztarketa<br>- Datozen urteetako norabidea marraztu.<br>- Finantzaketa bide berriak bilatu. |

| **Balorazioa** |
|---|
| - 7 urte daramatza Ahalduntze bertso-eskolak lanketa feminista egiten.<br>- Denera 27 bertsolari aritu dira kantuan 2021-2022 ikasturtean.<br>- Pasa den urteko aforoa zela eta parte hartzaile batzuk bidaia luzea egin behar zutela kontuan hartuta, ikasturte honetarako bi talde proposatu ziren eta emaitza oso ona eman du. |

| |
|---|
| - Egitasmo honetatik atera zen Bizkaiko bertso munduko emakumeen topaketa egiteko iniziatiba, eta halaxe egin zuten Markina-Xemeinen maiatzaren 22an. Egun osoko egitaraua antolatu zuten eta 90 emakume inguru bildu ziren bertara.<br>- Ahalduntze Bertso eskolan 2022-2023ko ikasturtean 23k eman dute izena. Azpimarratzekoa da bertsolari gazteak batu direla proiektura. Beraz, belaunaldi gazteenak ere sartu dira Ahalduntzen. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Eskolartekoa |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarriletik ekainera |
| **Deskribapen motza** | Euskal Herri mailako ekimena den Eskolartekoa Ikastolen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak antolatzen dute elkarlanean, bertso-eskolen laguntzari esker. Bertso-eskoletako 15-18 urteko gazteek hartzen dute parte Eskolartekoan, bat-bateko txapelketan. Lehenik lurraldeetako Eskolarteko txapelketak jokatzen dira, eta EH ko finala dator gero. Finalean herrialde bakoitzeko bertsolari bi aritzen dira kantuan, aurretik jokatuko diren herrialdeetako finaletatik sailkatuko direnak. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| • Bertsotan hasi berriak direnei jendaurrean bat-batekoan plazaratzeko aukera ematea.<br>• Belaunaldi gazteak bertsolaritzara zaletzea.<br>• Bertso eskolan eta ikastetxean talde izaera indartzea.<br>• Bertsolaritzaren komunitatearen parte sentiaraztea. | • Lurraldeetako eta EH-ko Eskolarteko txapelketak gauzatzea.<br>• Eskolartekoaren hedapena handitzea. Jende gehiagorengana iristea.<br>• Gazteen plazaratzean duen garrantziaz jabetzea, lehiaren zentraltasuna saihestuz.<br>• Gaztetxoen bertsozaletasunean eta motibazioan eragitea. |

| **Balorazioa** |
|---|
| - 90 gazte inguru aritu dira kantuan Eskolartekoan.<br>- Herrialdeetan 12 kanporaketa saio egin dira eta ostean herrialdeetako 5 finalak Bertso-eskolen Eguneko festen barnean ospatu dira.<br>- Txapeldunari, Irantzu Idoateri, Unai Iturriagak jarri zion txapela.<br>- Euskal Herriko Eskolarteko finalera iritxi ziren 13 bertsolaritatik 9k, Ahots Baten egonaldian hartu dute parte.<br>- Hedabideetan inpaktu nabarmena izan du finalak, honek gazte promozioaren bistaratzean asko laguntzen du. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Epaile Eskola Iraunkorra |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtarriletik-ekainera |
| **Deskribapen motza** | Euskal Herriko epailetzari formazio jarraitua ematen dion proiektua da. Euskal herri osoko epaileentzat trebakuntza eskaintzen da. Aurrez aurreko saioak ere antolatzen dira gai zehatz bati lotuta. |

| | |
|---|---|
| | Hizlari gonbidatuen aurkezpenak eta ikerlanen txostenak ere epaileen esku uzten dira. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| • Lurralde osoa errepresentatuko duen epailetza anitza lortzea, gaurko bertsogintzara egokitua.<br>• Txapelketen inguruan egiten diren hausnarketak barneratuta dituzten epaileak formatzea.<br>• Gure zehar-lerroekin bat egiten duten epaile taldea osatzea.<br>• Epaile gazteen sarrera erraztea, eta epaile gazteak erakartzea. | • 6 hilabeteko trebakuntza ziklo bat gauzatzea.<br>• Formazioan aurrera pausoak ematea.<br>• Epaileen artean formazioaren beharraren garrantzia zabaltzea.<br>• Ariketak osatzen dituzten epaile taldea handitzea.<br>• Formazioaren diseinuan epaileen inplikazioa handitzea. |

| Balorazioa |
|---|
| - Oso urte emankorra izan da Epaile Eskola Iraunkorrarentzat.<br>- Bertsolari Txapelketa Nagusia hizpide hartuta, 6 hilabeteko ziklo intentsibo bat antolatu da eta 30-35 epailek hartu dute parte egin diren formazioetan.<br>- Formazio honi esker epaile talde emankor bat sortu da, lurraldetasun ikuspegitik aberatsa eta epaile gazteen presentzia nabarmenarekin.<br>- Bertsogintza berrira egokitzeko kezkaren aurrean, formazioak indartu beharra dago.<br>- Epai irizpideen berrikuspena eta moldaketa onartu zen 2022ko uztailean. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Bertso Eguna |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Martxoaren 26a |
| **Deskribapen motza** | 1968. urtetik antolatu izan den jaialdi edo saio berezia da. Bere sorreratik eraldaketa izan du egitasmoak, izaeran zein antolaketan. Omenaldi kutsua zuen ospakizuna izatetik, esperimentaziorako espazio izatera pasa zen eta azken urteetan Donostiako mugetatik harago lurralde osoan eragitera pasatzeko saiakera egin da ibiltari bilakatuz. Lurraldez lurralde mugitzen da eta lekuan lekuko gaitegi edo errealitateari erantzuten dio. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| - Bertsolari eta bertsozaleen elkargune izatea.<br>- Esperimentazioari tarte bat egitea.<br>- Antolatzaileak, bertso eskolak eta eragileak aktibatzea.<br>- Bertso plazari eustea eta bertsolariek proposamen ordainduak izatea | - Bertso eguneko egitarauaren baitan bertsozale kopuru esanguratsu bat biltzea.<br>- Bertso saioak esperimentatzeko tarte bat eskaintzea.<br>- Lekuko bertso eskola eta bestelako kultur edo euskara eragileekin harremantzea.<br>- Lan aukera ordainduak eskaintzea. |

| Balorazioa |
|---|
| - Izpuran ospatu zen Bertso Eguna, martxoaren 26an.<br>- Bertako beste hainbat sortzaileekin batera 2 orduko emanaldi bat antolatu zen Izpurako herriko gelan. |

- Proposamen berritzaile bat probatzeko ausardiari bikain erantzun zion bertsozaleak, eta bete egin zen aretoa.
- Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia ere egun berean antolatu genuen.

# HEDAPENA

## Deskribapena

| Urteko helburuak | BALORAZIOA |
|---|---|
| - GRABAZIOAK: plazaren bilketa egingo dugu astero bi bertso-saio grabatuz.<br>- HITZETIK HORTZERA: 26 programa egingo ditugu.<br>- BERTSOA.EUS: asteroko jarioari eutsi eta ahal dela sareratutako eduki kopurua igoko dugu.<br>- APARTEKO EKOIZPENAK: Euskal Telebistarako hiru aparteko ekoizpen prestatuko ditugu (Araba eta Txapelketa nagusia); Bertsozale Elkarteko egitasmoen zabalkunderako ikus-entzunezkoak ekoiztuko ditugu.<br>- ZUZENEKOAK SAREAN: 'Plaza biziberritzen' egitasmoaren baitan, streaming bidez eskainiko ditugu hainbat saio.<br>- IRRATI-HEDAPENA / Hedabideak: 2022rako hitzarmenak berritu eta asteroko zerbitzua eskainiko dugu. | - Grabazioak: markatu geniten helburuetara iritsi gara astean bi saio grabatuz.<br>- Hitzetik hortzera: 26 programa egin ditugu.<br>- Bertsoa.eus: barne hausnarketa bat egin genuen eta bestelako aire bat eman diogu edukiari, jarioari eta produkzioari. Horrela sortu dira eduki bereziak, podkastak eta txapelketa nagusian egindako lan guztiak.<br>- Aparteko ekoizpenak: txapelketa nagusiak ekarri dituen lanak, saio guztiak grabatu eta ekoizi dira.<br>- Zuzenekoak sarean: aurten ez da plaza biziberritzeneko saiorik egin eta beraz ez dira grabaketa hauek burutu.<br>- Irrati hedapena: hitzarmenak berritu ditugu txapelketaren testuinguruan eta harreman berriak eraiki ditugu. |

| Sailaren kudeaketa | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |

| | | |
|---|---|---|
| **Taldekideen lan baldintzak egonkortu** | **Lantaldea**<br>- Lantaldeko lanaldiak eta egitasmoa doitu eta zaindu<br>- Barne formazio bidez, taldekideen eta lankideen ordezkagarritasuna landu.<br>**Hitzetik Hortzera**<br>- Post-produkzioa: Bertsozale Elkarteak Haritz Arrizabalagarekin duen harremanari forma eman eta lan-taldea egokitu.<br>- EITBrekin aurrekontuaren igoera negoziatu. | **Lantaldea:**<br>-Urtearen hasiera gora beheratsua izan zen eta ezin izan genion urteari lan-taldeari dagokionez ondo hasi. Urte hasieran egindako esfortzua udaran berreskuratzeko ahalegina egin da, hein batean lortu dugu. Udazkenean txapelketa nagusiak ekarri duen olatuak hartu gaitu baina aurre egiteko egindako kontratazioak positiboki baloratzen ditugu. Erabaki onak hartu dira eta lan-taldeak ondo erantzun dio hedapeneko egitekoei. 2023. Urtera begira jartzeko baliagarri izan zaigu 2022ko urte amaiera eta lan-taldea indartzeko pausoak eman dira urte amaiera honetan.<br>-2022. Urte hasieran lan karga handiaren ondorioz ordezkagarritasun eta formazio planak gelditu egin dira. Bakoitza bere lanetan zentratu da. Horrek lan espezifikoetan hobetzea ekarri du. Dena den, hedapen taldeko kideak uneoro jardun dugu lan ezberdinak egiten eta zehazki ez bada ere ordezkagarritasun taller espezifikorik egin, batez ere udazkenean, jardunean landu dugu ordezkagarritasuna (baja aldi eta aldaketen ondorioz).<br><br>**Hitzetik Hortzera:** |

| | | |
|---|---|---|
| | | -Urte hasieran Haritz Arrizabalagaren harremanari forma emateko hasitako prozesuak ez du jarraipenik izan. Elkarteko lan-taldean txertatzeko aukera ez da bideragarri ikusi, momentuz behintzat. Lantzen jarraitzeko gaia da.<br>-ETBrekin aurrekontuan igoera lortu da ( 2022ko udazkenean egin diren 15 programetan, bakoitzean, 1000 euro inguruko igoera). |

| | | |
|---|---|---|
| **Bertso-edukiak aberastu Bertsozale Elkartearen zehar lerroetan oinarrituta** | **Bilketa:**<br>- Bertsolaritzaren mugimenduko informazio/grabazio bilketa indartu, lurralde guztietako informazioa/bertsoak hedatzeko (lurraldetasuna).<br>**Emisioa:**<br>- Erredaktore berriak bilatu: Bertsozale Elkarteko lankideak eta kazetariak.<br>- Emakume bertsolariei ikusgarritasuna eman (feminismoa).<br>- Editore-taldearen bidez, komunikazio ikuspuntu bateratua landu. | **Bilketa:**<br>-Hedapen taldeko funtzioak zehazten joan garen heinean bertsolaritzaren mugimenduko informazio/grabazio bilketa indartzen joan gara. Bertsoa.eus atariak erreferentzialtasun handia lortu du txapelketaren olatuak lagunduta ( audientzia datuek erakusten dute). Hori dela eta mugimenduko aktiboek eskurago eta erakargarriago ikusi dute edozelako materiala bidaltzeko aukera.<br>**Emisioa:**<br>-2022ko urte hasieran forma hartzen joan zen arren elkarteko erredaktore sareak ez zuen ondo funtzionatu apiriletik aurrera. Lantzen jarraitu beharreko gaia da.<br>-2022. Urtean emakume bertsolarien presentzia elkarteko hedabideetan gizonezkoena baino handiagoa izanda, jarritako helburuak betez. Dena den, udazkenean eta txapelketak baldintzatuta datuak aldatu egin dira. Arrazoia da txapelketako grabazioetako bertsolariak ez dituela hedapen taldeko lan-taldeak aukeratzen.<br>-2022. Urteko lehen erdian ondo funtzionatu du editore taldeak. Dena den, txapelketan geroz eta barneratuago egoteak sare hau ahuldu du. Berriz heldu beharreko gaia. Dena den zer den ikusita balorazio positiboa egiten dugu eta 2023an errez ber-ekiteko moduan. |

| | | |
|---|---|---|
| **Gure hedabideen bideragarritasuna landu** | **Hitzetik Hortzera:**<br>- Euskal Telebistarekin lankidetzarako marko orokorra landu, Hitzetik Hortzera, txapelketen finaletako emisioak eta bestelako edukiak ekoizteko.<br>**Bertsoa.eus:**<br>- Administrazio-publikoarekin Bertsoa.eus atariaren diru-laguntzen igoera aztertu.<br>- Ordainpeko *streaming* saioak eskaini. | **Hitzetik Hortzera:**<br>-Marko orokorraren lanketa arrakala handi bat izan da. Hedapen taldetik zein elkartetik landu nahi ziren gaiak ezin izan dira landu eta azkenerako EITBrekin lankidetzarako marko orokorra izan behar zuenak HHren denboraldira laburtzen den kontratu batean amaitu du. Euskadi Irratiekin genuen lankidetzan eragin zuzena izan du eta HHko denboraldia amaitzean izan ditzakeen ondorion beldu gara. Urte hasieran lantzen hasteko gaia.<br><br>**Bertsoa.eus:**<br>-Diru laguntza eskatzeko bideak aldatu dira aurten eta zalantza genuen ber-bideratze onek izango zituen ondorioak onak edo txarrak izango ziren guretzat. 2022. urte amaierako notizio on bat izango da 2021. Urtean baino 10.000 euro gehiagoko laguntza jaso dugula.<br><br>-Ez dugu ordainpeko streming saiorik eskaini. |

| | | |
|---|---|---|
| **Beste hedabideetan bertsolaritzak duen presentzia zaindu** | **Irrati-hedapena:**<br>- Hitzarmenak ditugun irratietako kazetariekin hartu-emana izan eta zaindu.<br>**Hedapen bide berriak:**<br>- Ikus-entzunezko euskarri berriek eta ingurune digitalak bertsolaritzaren zabalkunderako eskaintzen dituen aukera berriak aztertu. | **Irrati-hedapena:**<br>-Txapelketako urtea izan dela baliatuta hitzarmenak ditugun kazetarietakin hartu emanak indartu ditugu. Indartze hau zaintzan eta emandako zerbitzu on eta azkarrean oinarritzen da. Gainera urteroko hitzarmenik ez dugun bestelako irratiekin harremanak egiteko balio izan digu txapelketako urteak eta agian aurrera begira hitzarmen berriak lortzeko pausoak izan daitezke. Besteak beste hauek dira txapelketa aitzaki hartuta ikus-entzunezko formatuan bertsolaritza landu dutenak: Beleixe irratia, Mozoilo irratia, Argia, berria.eus eta Naiz.<br>**Hedapen bide berriak:**<br>-Sare sozialetan diharduten mugimenduko kolektiboekin bilerak egin ditugu( poto.eus, eitblab…) txapelketaren bueltan jarraipen edo sorkuntza bereziak egiteko proposamenak entzuteko. Elkarlanerako biderik ez dugu topatu. Lantzen jarraitzeko gaia. |

## Proiektuak

| **Proiektuaren izena:** | BERTSOA.EUS |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan |
| **Deskribapen motza** | Bertsolaritzaren zabalkunderako sareko plaza |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **Proiektua berdefinitu** | o BERTSOA.EUS zer izango den pentsatu eta erabaki<br>o Lan-dinamikari jarraipena eman<br>o Elkartean kokatu eta arduraduna zein izango den erabaki<br>o Proiektuak bere hedapen beharrak betetzeko besteko lan dedikazioa bermatzea. |
| **Lantaldea osatu** | o Identifikaturiko perfilen araberako lan-taldea |
| **Bideragarritasun ekonomikoa landu** | o Administrazio-publikoarekin Bertsoa.eus atariaren diru-laguntza berriak kudeatu.<br>o Bideoetan publizitatea txertatu |

| **Balorazioa** |
|---|
| ·Bertsoa.eus atariari bere izaera eta egitekoak zehaztu ditugu. EITBrekin dugun hitzarmenak jartzen dizkigun mugak, batez ere bideo formatuan, gainditzeko audio euskarria indartzeko ahalegina egin dugu emaitza onak lortuz.<br>·Lan-dinamikari jarraipena emateko lan-taldea osatu genuen urte hasieran baina txapelketa xurgatu gaitu amaitzerako, datorren urtean berriz dinamika fintzeko beharra.<br>·Jexux Mari Irazu da arduraduna Gaizka Azkarateren laguntzarekin. Komunikazio sailarekin geroz eta uztartuago edukiari dokionean.<br>·Lan dedikazioak bermatzeko erabaki onak hartu dira, 2023. Urteari begira aurreikuspen onak.<br>·Txapelketa urteak egitera behartu gaitu, beharretik. 2023. Urtean identifikatutako perfilen araberako lan-taldea izango dugu.<br>·diru laguntza publikoan igoera, ondo!<br>·Bideoetan publizitatea txertatzen joan gara, emaitza onekin. Salneurriak edota lankidetzetan zorrotzago jokatzeko unea izango da datorren urtea. |

| **Proiektuaren izena:** | HITZETIK HORTZERA |
|---|---|

| | |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan |
| **Deskribapen motza** | Euskal Telebistako asteroko saioa, irailetik martxora emititzen dena. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **BTN-ko proiektua diseinatu eta gauzatu** | **Lan-taldea**<br>o Gauzatzeko behar diren baliabideak identifikatu eta lan-taldea osatu.<br>**Hitzetik Hortzera**<br>o Post produkzioa: Programaren azken edizioa pertsona bakar baten gainean ez egoteko pausoak ematen jarraitu.<br>o Grabazioak: Bertso saioen eta elkarrizketen grabazioetan lidergoak banatu.<br><br>o ETBrekin elkarlanerako marko berria adostu. Udazkeneko Hitzetik Hortzera bereziaren eta urtarriletik martxora arteko aurrekontua negoziatu eta adostu. |
| **Bertso-edukiak aberastu Bertsozale Elkartearen zehar lerroetan oinarrituta** | **Bilketa:**<br>o Bertsolaritzaren mugimenduko informazio/grabazio bilketa indartu, lurralde guztietako informazioa/bertsoak hedatzeko (lurraldetasuna).<br><br>**Emisioa:**<br>o Emakume bertsolariei ikusgarritasuna eman (feminismoa).<br>o Komunikazioa batzordearekin komunikazio ikuspuntu bateratua adostu<br>o Elkarte barruan programan lantzeko gaien proposamenak jasotzeko zubiak eraiki |
| **Bideragarritasun ekonomikoa landu** | o Euskal Telebistarekin lankidetzarako marko orokorra landu, Hitzetik Hortzera, txapelketen finaletako emisioak eta bestelako edukiak ekoizteko. |
| **Emakume bertsolarien sorkuntzari plaza bat eskaintzea** | Emakume bertsolarien, lehenengo zein gaur egungo, sorkuntzaren zabalkunderako propio sorturiko espazioa izango da, txapelketa garaian. |
| **Feminismoa ardatz izango duten bertso-sortak pantailara eramatea** | Ikuspuntu feminista abiapuntu hartuta landuko da atala |

| Balorazioa |
|---|
| **Lan-taldea:**<br>·Egin beharrekoak egiteko lan-taldea osatzeko erronka ondo bete dugu, jakinda proiektuagatik denok dena eman dugula.<br>**Hitzetik Hortzera:**<br>-Pos-produkzioa pertsona bakar baten gaineran ez usteko lanen jarraipena ez dugu egin, txapelketak xurgaitu gaitu.<br>-Grabaketa ezberdinetan lidergoak banatu ditugu, badago zer hobetua oraindik.<br>-Marko berriaren lanketa ez da izan nahi genuena. Aurrekontuan igoera lortu da eta emisioek audientzia onak izan dituzte. 2023ko apirilera bitarte eTB1en izango gara.<br>**Bilketa:**<br>-Lanean jarraitzen dugu, badago non hobetua.<br>**Emisioa:**<br>-Urtearen lehen tartean bermatzeko aukera gehiago izan ditugu. Behin txapelketan sartuta eta oholtzako bertsolarien edo gaien arabera grabazioak ezin izan ditugunean aukera ez da bermatua egon emakume bertsolarien ikusgarritasuna.<br>-Lanean hasita eta bide onean.<br>-Elkarte barruan gaiak jasotzeko proposamenak lantzeko zubietan sakondu beharra.<br>**Bideragarritasun ekonomia:**<br>Txapelketa garaian sarrera gehiago. Udazkeneko programetako igoera mantentzeko erronka.<br>**Bertso sortak,(feminismoa):**<br>Eduki hau lantzeko finantziaziorik ez genuen lortu eta bere horretan ez da horrelako edukirik landu. Dena den, elkarrizketatuen eta gaien aukeraketan landu ditugu edukiak eta sorkuntza ikuspuntu feministatik. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | BERTSO-SAIOEN GRABAZIOAK |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan |
| **Deskribapen motza** | Astero bi bertso-saio grabatuko ditugu |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| **Lan taldea egonkortu** | **Lan-taldea**<br>o Lan-taldeko izandako bajak ordezkatu talde egonkor bat izateko.<br>o Hutsuneak identifikatu eta beharrezkoak diren perfilak identifikatu<br><br>**Baliabide teknikoak**<br>o Behar diren inbertsioak egin grabaziorako behar diren baliabide teknikoak izateko |

| | |
|---|---|
| **Bertso-edukiak aberastu Bertsozale Elkartearen zehar lerroetan oinarrituta** | **Bilketa:**<br>o Lurralde guztietako saioak grabatu (lurraldetasuna)<br>o Saio parekideenak grabatu (feminismoa)<br>o Adin ezberdinetako bertsolariak grabatu (belaunaldiartekotasuna) |
| **Dokumentazioa hobetu** | XDZ-arekin materialaren katalogazioa arindu |

| **Balorazioa** |
|---|
| **Lan-taldea:**<br>·Bajak ordezkatzeko zailtasunak hilabete batzuetan. Txapelketa garaian indartu da taldea eta jarraipena izango du.<br>·Teknikari espezialisten beharra identifikatu da, ordezkapenak bidean.<br>**Baliabide teknikoak:**<br>Inbertsioak egin dira eta momento honetan hedapen taldeko ekipoak aspaldiko osatuen daude.<br>**Bilketa:**<br>Lurraldetasuna ondo bermatuta.<br>·Saio parekideak bermatuta, batez ere urtarrila eta abuztua bitarte. Txapelketa garaian ez da hedapen taldearen esku egon grabazioan aukeraketa.<br>**XDZ:**<br>Felix-en bajak katalogazioa arintzeko arikera moteldu du. Ezin izan gara nahi beste fintzera iritsi gai honetan. Edukiak ahalik eta ordenatuen izaten saiatu arren katalogazio pausoak ematea kosta zaigu. 2023rako egiteko garrantzitsua. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Hedabideak – hedapena ( irratiak eta bestelako hedabideak) |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Irailetik ekainera ( uztaila abuztua zehazteke) |
| **Deskribapen motza** | Hitzarmenak ditugun irratiei bertsoaldien audioak bidaliko zaizkie eurak bertsolaritzari buruzko irratsaioa egin dezaten. BTN-ra begira bestelako hedabideetatik izango ditugun eskariak aurre-ikusi eta erantzuna eman. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| **Irrati hitzarmenak berritu** | • Arraio<br>• Bilbo Hiria<br>• Hala Bedi<br>• Laixiar<br>• Xorroxin<br>• Ataria<br>• Euskadi Irratia |

| | |
|---|---|
| **Irrati hedapenerako irizpideak zehaztu** | - Orain arte egindakoaren errepasoa eta eta idatzi.<br>- Zer, noiz eta nola hedatu zehatu<br>- Fitxak osatzeko irizpideak errepasatu eta erredaktore guztiek garbi izan.<br>- Bertsolariak nahi ez duena ez da zerbitzatuko<br>- Txapelketak edota eskolarteko saioak lurralde osora banatuko dira. |
| **Beste hedabideetan bertsolaritzak duen presentzia zaindu** | - Hitzarmenak ditugun irratietako kazetariekin hartu-emana izan eta zaindu |
| **Bertso-edukiak aberastu Bertsozale Elkartearen zehar lerroetan oinarrituta** | - Grabatzaile-sarea indartu<br>- Plazako azterketa lan-taldearekin harremanak eraiki |
| **Ikus-entzunezko hedabideak elikatu** | - BTN-ra begira ikus-entzunezko bestelako hedabieengatik izango ditugun eskariak aurreko ikusi eta erantzuna emateko lan-taldea osatu. |

**Balorazioa**

**Irrati hitzarmenak:**
Hitzarmenak berritu dira eta arduradunekin harremanak zaindu ditugu.
Txapelketaren bueltan lan akordio berriak sortu dira, agian, Aurrera begira hitzarmen iraunkor bilakatu daitezteke hauetako batzuk. 2023rako erronka.
Baina bakarra euskai irratiarena izango da. EITBrekin elkarteak osatu nahi zuen baina HHko denboraldira mugatu den akordioak Euskadi irratiari zuzenean eragingo dio. Ikusteko dago zer gertatuko den apiriletik Aurrera, hau da, HH denboraldia amaitzen denean. 2023. Urte hasiera urgentziaz lantzen hasi beharko den Gaia.
**Grabatzaileak eta plaza:**
Indartze bidean eta emaitzak jasotzen hasi gara. Bertsoa.eus audio euskarria lantzen hasteak ekarri du mugimenduko jendeak zuzenean hedapenera materiala bidaltzea. 2023an indarra jarriko da esparru honetan.
**BTN22:**
Txapelketako loturiko irrati zerbitzu ona eskaini dugu.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | APARTEKO EKOIZPENAK / ZUZENEKOAK |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Udaberrian eta udazkenean. |
| **Deskribapen motza** | ETBrentzat ekoiztuko ditugu Arabako Bertsolari Txapelketako finaleko zuzenekoa ( adostu gabe) eta BTN22ko finalaurrekoen bigarren bueltako saioen zuzenekoak (adostu gabe). |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| **Taldekideen lan baldintzak egonkortu** | **Lan-taldea**<br>o Lan-taldeko lanaldiak eta egitasmoa doitu eta zaindu<br>o Barne-formazio bidez, taldekideen eta lankideen ordezkagarritasuna landu. |
| **Bideragarritasun ekonomikoa landu** | o Euskal Telebistarekin lankidetzarako marko orokorra landu, Hitzetik Hortzera, txapelketen finaletako emisioak eta bestelako edukiak ekoizteko.<br>o Ikus-entzunezko euskarri berriek eta ingurune digitalak bertsolaritzaren zabalkunderako eskaintzen dituen aukera berriak aztertu. |

| Balorazioa |
|---|
| **Lan-taldea:**<br>Behar izanen araberako lan-taldeak osatu dira astez-aste. Emaitza ona lortu dugu eta kanpo kontratazio bidez lan egin duten profesionalak baloratuak eta zainduak sentitu dira ( beraiek adierazita). Profesionalen eta elkarteko langileen arteko harremana batzutan ez da erraza eta hedapenetik arreta berezia jarri da zaintza honetan.<br>Zuzenekoetan lankideen arteko ordezkagarritasuna landu dugu esparru batzuetan eta emaitza oso onak lortu ditugu.<br>**Bideragarritasuna ekonomikoa:**<br>Zuzenekoak egiteko aurrekontuen lanketa arreta berezia jarri da. Sarrera eta irteerak zehatz aztertu dira eta egin nahi genuena eta egingarri izan dena logika baten barruan burutu da. |

# KOMUNIKAZIOA

Deskribapena

| Urteko helburuak | BALORAZIOA |
| --- | --- |

| | |
|---|---|
| - BTN22 – komunikazio estrategia eraginkorra diseinatu, planifikatu eta exekutatu. | - Txapelketa nagusian zentrala izan da komunikazio estrategia. Talde antolatzailearen ardatzetako bat izan da komunikazioa. Bai barrura eta baita kanpora begira. |
| - Komunikazio Sailaren eta Komunikazio Batzordearen funtzionamendua eragin eta hobetu. | - Lantaldean aldaketak egon dira eta sortu diren beharrak betetzeko ahaleginak egin dira. Urtea amaitzerako nahiko bideratuta geratu da sailaren osaera. Komunikazio batzordearen eginkizuna oso markatua egon da txapelketa nagusiarengatik eta batzordearen maiztasuna eta dinamika taldearen beharretara egokitu da. Bilerak bestelako espazioetan egin dira inspirazio berrien bila eta gogoeta berriak egin ahal izateko, adibidez. |
| - Borondatezko arduraduna izendatu. | - Komunikazio batzordeko borondatezko arduraduna behar den ala ez eztabaidatzeko beharra dagoela adierazi da. Zuzendaritzara eraman behar da gaia. |
| - Webguneetako editoreen arteko koordinazioa dinamizatu. | - Ditugun webguneen arteko koordinazioa estutu da, funtzioak eta tempoak aurretik adostu dira. |
| - Hedapen sailarekin elkarlana areagotu. | - Hedapen taldearekin koordinazioa estutu da. Lagundu du txapelketak lan horretan, lantalde berdina partekatu eta gaiak elkarrekin adosteko espazioa izan dugulako. |
| - Diseinu lanen koordinazioa eta exekuzioa hobetu eta optimizatu. | - Kanpo hornitzaileekin koordinatzeko beharra izan dugu eta aukera berri bezala hartu dugu, diseinu lanak egingo dituen |

| | |
|---|---|
| - Taldearen formazioa sustatu.<br><br>- Gero®a mugitzen – aldizkari korporatiboko edukia erdal hizkuntzetara itzuli.<br><br>-www.bertsozale.eus-en berrikuntza estetikoak diseinatu eta inplementatu.<br><br>-www.lanku.eus berritu. | pertsona bakar bati lotuta egon beharrean. Lan gehiago izan da hori guztia koordinatzea baina baita aberasgarria ere.<br>- Formazioaren gaiari ez diogu nahi bezala heldu ez dugulako aukerarik izan formazio plan integral bat osatzeko, baina momentuko beharrizanak betetzeko ikastaro txikibat egin genuen Indesing eta Phothosopa erabiltzen ikasteko.<br>- Aldizkaria itzuli dugu hiru hizkuntzetara. Urtea amaitzerako argitaratu nahi bagenituen ere eskuan 2023an izango ditugu.<br>- Webgunearen edukiak mantenduz estetika berritu dugu eta Txapelketa Nagusiaren webgunea gehitu zaio aurtengoan.<br>- Lankuren webgunea berritzeko laguntza ere eman dugu. Oraindik webgune honek barneko garapena egiteko daukan arren, aholkularitza eta koordinazio lanak egiten jarraitzen dugu. |

| Sailaren kudeaketa | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |

| | | |
|---|---|---|
| **Funtzionamendua eta sailaren kudeaketa** | – Txapelketari begira saila indartu egitasmoa gauzatzeko beharrezkoak diren dedikazioak bermatuz.<br>– Hedapen sailarekin elkarlana areagotu<br>– Komunikazio Batzordea dinamizatu.<br>– Komunikazio Batzordeko borondatezko arduraduna izendatu.<br>– Webguneetako editoreen sarea dinamizatu.<br>– Lurraldeetako elkarteetako eta Lankuko komunikazio beharrei arreta eskaini: aholkularitza<br>– Aurrekontua landu eta sailaren funtzionamendurako beharrezkoa den aurrekontuaren bolumen osoa bistaratu.<br>– Komunikazio Sailaren egitasmo orokorra landu eta planifikatu.<br>– Diseinu eta maketazio lanak koordinatu. Diseinu lanen artxiboa osatu eta antolatu.<br>– Lan erregistroen eta dedikazioen jarraipena egiteko egokitzapenak egin eta gauzatu. | – Sailean izan diren gora beherak kudeatzeko aldaketa batzuk egin dira lantaldean.<br>– Hedapen sailarekin elkarlana estutu da eta beste edizioetan baino koordinazio estuagoa egin da, asteroko bileretan horretarako zehazki atal bat eskainiz.<br>– Komunikazio batzordeak egin dira normalean baino maiztasun handiagoarekin urtearen hasieran Txapelketa Nagusiari begira eta urtearen amaieran batzordeko kide bakoitzari beste funtzio batzuk eman zaizkio.<br>– Komunikazio batzordeko borondatezko arduraduna behar den ala ez eztabaidatzeko beharra dagoela adierazi da. Zuzendaritzara eraman behar da gaia.<br>– Txapelketaren bidez kolaboratzaileen sarea handia izan da aurten.<br>– Lankuko webgunea berritu da eta lan horretan aholkularitza eman du komunikazio sailak. Horrez gain, herrialdeetako lantaldeetan eman diren aldaketen ondorioz herrialdeetan ere azalpenak eta koordinazio lanak areagotu dira.<br>– Aurrekontu orekatua izatea lortu da Gipuzkoako Aldundiko dirulaguntza baten bidez.<br>– Aurtengo egitasmoa Txapelketak baldintzatu du eta horren arabera egin da planifikazio osoa emaitza oso onekin.<br>– Diseinu lanak artxibatu eta antolatu dira intraneten. Behar izan diren diseinu lanak kanpo hornitzaileekin koordinatu dira modu egokian.<br>– Lan erregistroa egiteko aukerarik ez dugu izan baina jarraipena egiteko tresnen diseinua egin da. |

| | | |
|---|---|---|
| | – Partaidetza prozesuaren baitan komunikazio sailaren ondorioak kontutan izan eta aurrera begirako plangintza diseinatu.<br>– Komunikazioko kideen formazioa sustatu: photoshop, Indesign, CSSak | - Komunikazio sailan zeuden funtzionamendu beharrei heltzeko aukerarik ez dugu izan lantaldean egon diren aldaketak direla eta.<br>- Formazio planari ezin izan zaio heldu baina Photoshop eta Indesing lizentziak eskuratu dira eta lankideen eskura jarri dira. Formazio txiki bat egin da editatze minimoak ikasteko. |
| **Barne Komunikazioa** | – Zuzendaritza, Sail, lan-talde desberdinetako kide eta bazkideen arteko komunikazioa bermatu.<br>– Informazioa lehentasunez helarazi elkarte-kideei.<br>– Barne Orria prestatu eta helarazi, hamabostean behin lurralde eta sailen lankidetzaz.<br>– Bertsozalea berripaperaren hamar ale prestatu eta helarazi.<br>– Txapelketako Batzordean parte hartu.<br>– Koordinazio batzordean parte hartu komunikazio ikuspegia eskainiz.<br>– Kudeaketa batzordean parte hartu komunikazio ikuspegia eskainiz.<br>– Zuzendaritza batzordean parte hartu komunikazio ikuspegia eskainiz. | - Gune desberdinak informatuta izateko kanalak elikatu dira: bertsozalea, barne orria eta asteroko newsletterra.<br>- Txapelketa, lantaldeko aldaketak eta bestelako gai konkretu batzuen kasuan informazioa mailakatu egin da denboretan eta formetan ere.<br>- Barne orria hamabostean behin bidali da. Oraindik gehiago lantzeko beharra dago lankideen artean barne orrian zein informazio den pertinentea ala ez zehazteko.<br>- Bertsozalea berripapera ale guztiak bidali dira. Azken biak Txapelketa Nagusiko informazioan zentratu dira batez ere.<br>- Talde antolatzailean parte hartu eta asteroko jarraipen bileretan komunikazioak atal berezitu bat izan du.<br>- Koordinazio, zuzendaritza eta komunikazio batzordeetan parte hartu dute. Berrantolaketan sortu den koordinatzaileen bileretan ere parte hartu du komunikazio eragileak komunikazio ikuspegia ez ezik elkarte egituran dauden beharrizanei erantzunez. |

| | | |
|---|---|---|
| **Kanpo Komunikazioa** | – Hedabideekiko harreman iraunkorra landu: hitzarmenak landu, prentsa bulegoaren zerbitzua eskaini…<br><br>– Elkarteak antolatutako ekintzak gizarteratzeko ahalegin berezia egin: egitasmoen komunikazio plana diseinatu eta exekutatu.<br>– Harreman publikoak zaindu, koordinatu eta bistarazi. Bozeramaleak prestatu. Gonbidapenak kudeatu.<br><br>– Publizitatearen akordioen jarraipena eta exekuzioa.<br><br>– Azoketan parte hartu. Lanak koordinatu eta exekutatu: Durangoko Azoka…<br>– Legezko ohar, datuen pribatutasuna, cookie politikak… jarraipena<br><br>– Elkartea bazkide den erakundeetako komunikazio estrategia amankomunak bideratu: Kontseilua, … | - Txapelketa urtea izanik hitzarmen asko egin dira. Ohikoak eguneratu eta berriak lantzeko aukera izan da eta erantzuna eta emaitza oso aberatsak izan dira.<br>- Urtean zehar izan diren ekintzetan komunikazio sailak kubritu du eta egin du kanpora begira transmititu beharreko informazioa.<br>- Txapelketaren kasuan lanketa handia egin da, bai parte hartzaileen beharrak eta interesak errespetatzen eta baita lantaldearen bozeramaletzan. Hedabideetatik etorri diren eskaerak asko eta askotarikoak izan dira eta lan handia izan da guzti hori koordinatzea eta erantzungo zioten bozeramaleak nahiz eman beharreko mezuak prestatzea.<br>- Txapelketaren testuinguruan lortu dira babesle berriak<br>- Egoerak hala eskatuta aurten ez dugu Durangoko azokan parte hartu.<br>- Legezko oharren jarraipena egin da Sigacus enpresarekin batera. Elkarte osoan jarraipen hori egingo duen pertsona bat izendatu da eta berak koordinatu ditu lan horiek.<br>- Elkarteak parte hartu duen plataforma, mintegi eta jardunaldien berri emanteaz gain, erakunde bakotizeko komunikazio arduradunekin koordinazio lana egin da. Euskal Kultur sorkuntzaren transmisioa, Euskararen kontseilua, Euskaraldia eta Euskaltzaleen topagunea, Elhuyar… |

| | | |
|---|---|---|
| **Komunikazio Politika** | – Bazkidetza politika berrikusi<br><br>– Internet sareko estrategia osoa, eta, bereziki Youtubeko estrategia, berrikusi<br>– EITBrekin dugun lankidetza marko osoa berrikusi: TB, Irratia, Internet, Publizitatea, Komunikazioa, Eskubideak, Artxiboa.<br>– BTN22: komunikazio estrategia definitu:<br>o Mezua, iruditeria, sintonia, sariak, protokoloak… | - Bazkidetza politika berrikusteko aukerarik ez dugu izan.<br>- Sarearen estrategia osoa berrikusteko aukerarik ez dugu izan baina Txapelketaren testuinguruan sarearen erabilera eta gure erraminten erabilera definituta geratu da.<br>- EITBrekin genuen elkarlan markoa berritu dugu eta hitzarmen berri bat sinatu dugu.<br>- Txapelketa Nagusiko iruditegia, sariak eta protokoloak diseinatu eta helarazi zaizkie talde antolatzaile eta parte hartzaileei. |

| | | |
|---|---|---|
| **Komunikazio erreminten kudeaketa** | – Hedabideen datu baseak: EH + estatua + atzerria eguneratu<br>– Sare sozialetan pausuak eman eta garaietara egokitu<br>– Sare sozialen bidez albisteak hedatu: whatsapp, Facebook, twitter, Instagram, Linked-in, youtube<br><br>– Webguneen ostatatzea, mantenimendua eta etengabeko berrikuntza eragin.<br>– www.bertsozale.eus-en estetika berrikusi eta egokitu.<br>– www.lanku.eus berritu.<br><br>– Webguneen etengabe eguneraketa eragin: EUS, ES, FR, EN<br><br>– Gero®a mugitzen aldizkaria itzuli eta maketatu: ES, FR, EN<br><br>– Seinaleztapena: Subijana etxeko atariko zein barruko seinaletika berritu.<br>– Gabonetako postala, gauzatu eta zabaldu | - Txapelketaren urteak balio izan digu datu basea eguneratzeko. Berriak gehitu eta zaharrak kendu dira.<br>- Sare sozialetan erabiltzen diren bestelako kanalak erabiltzeko aukerak aztertu dira: TikTok eta Instagrama batez ere. Azke hori aurrez bagenuen ere bere erabilera eguneratu dugu. Albisteak eta Elkartearentzako garrantzitsuak ziren edukiak argitaratu dira.<br>- Webgunearen diseinua berritu da eta egungo erabilerara egokitu da. Atalak eta edukiak errespetatu dira baina estetikoki aldaketak eman dira.<br>- Lankuko webgunea berritu da.<br>- Webguneko edukia beste hizkuntzetara moldatzeko ahalegina handia izan da, batez ere nazioarteko gonbidatu asko izan direlako txapelketaren harira eta transmititu nahi genuen eduki horretan jarri dugu atentzio berezia.<br>- Aldizkaria itzuli da hiru hizkuntzetara baina 2023an izango ditugu ikusgai.<br>- MIntzolaren likidatzearekin batera Subijana etxearen kanpoko seinaletika aldatu da. Barruko seinaletika 2023an aldatuko da.<br>- Gabonetan horretarako espreski diseinatutako postala bidali zaie bazkide, lankide eta txapelketan lanean aritu diren borondatezko kide guztiei. |

## Proiektuak

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Gero®a mugitzen aldizkaria gazteleraz, frantsesez eta ingelesez |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Otsaila - ekaina |
| **Deskribapen motza** | 2020an elkarteari buruz argitaratutako euskarazko aldizkaria gaztelerara, frantsesera eta ingelesera itzultzea |

| Helburuak | Balorazioa |
|---|---|
| Elkartearen aurkezpenerako aldizkariko edukiak erdal hizkuntzetara itzultzea. | Aldizkaria itzuli dugu hiru hizkuntzatara. |
| Bertako zein kanpoko erakunde, ikerlari eta norbanakoei elkartearen proiektuaren berri emateko baliatzea. | Txapelketan ibili diren ia 40 ikerlari eta nazioarteko gonbidatuei Elkartearen proiektua ezagutarazteko erabili dugu. |
| Bertsolaritza ondare immaterial izendatzeko bidean baliagarria izango da. | Aldizkariaren edukia Frantziak ondare inmateriala izendatzeko egin den lanean baliatu da. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Bertsozale.eus atari korporatiboaren itxura aldaketa |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022ko otsailean hasi eta ekainean amaituko da |
| **Deskribapen motza** | Elkartearen atari korporatiboaren orrialde nagusiak, webgune garaikideek duten arkitekturara egokitzea, estetikoki berritze bat emanez. |

| Helburuak | Balorazioa |
|---|---|
| Atari nagusiaren berrikuntza estetikoa | Aldaketa estetikoa egin da.<br>Aurten txapelketaren webgunea ere martxan jarri da eta bi atariak uztertzen aritu gara.<br>Emaitza oso ona izan du estetika berriak. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Bertsozalea berripapera |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar 10 ale. Maiztasuna, hilean behin, uda partean etenaldiarekin. |
| **Deskribapen motza** | Elkartearen berripapera. Bazkideei, erakunde laguntzaileei, euskalgintza zein kulturgintzako erakundeei, hedabideei bidaltzen zaie, elkartearen proiektuaren berri emateko. |

| Helburuak | Balorazioa |
|---|---|
| Elkartearen egitasmoari buruzko zabalkundea eta mugimenduaren kohesioa eragitea.. | Bertsozalea bidaltzeko modua aldatu dugu. Gehienak digitalki bidaltzen diren arren, oraindik |

| | |
|---|---|
| | papera aukeratzen duenik ere badago. Beraz, bi moduak uztartu ditugu aurten.<br>Bertsozalea berripapererako zein albiste eta informazio den pertinentzea zehazteko dago eta uarrera begira horiek zehazteko irizpideak finkatzea eta egutegi batera eramatea da asmoa. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Bertsozale.eus |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar etengabe elikatzea, eguneratzea, hobekuntzak inplementatzea |
| **Deskribapen motza** | Bertsozale Elkartearen atari korporatiboa, konfederazioa osatzen duten 6 elkarteen egitasmoen berri emateko ataria. Etengabe eguneratzen da elkartearen asmoen berri emateko. Aldi berean, elkarteak sarean dituen gainontzeko baliabideetarako sarbide zuzena da: bertsoa.eus, bdb. Bertsozale.eus, www. Bertsoikasgela.eus, www.bertsoeskola.eus, www.lanku.eus, www.bertsosarrerak.eus... Sare sozialetara… |

| **Helburuak** | **Balorazioa** |
|---|---|
| Elkarteak eman nahi dituen mezuak gizarteratzea | Elkartearen poriektuen bozgorailu moduan funtzionatu du. Gainera, Berrikuntza estetikoa izan du eta horrek erakargarriagoa egin du ataria.<br>Txapelketa nagusiko atarira sarbide Nagusia izan da eta inoiz baino jende gehiago sartu da bertan. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Mintzola proiektuaren azkentzea |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | |
| **Deskribapen motza** | Mintzola proiektua eraldatu egingo da. Euskaltzaindiaren baitan izango du jarraipena. Eraldaketa horretan hainbat kontu hartuko dira aintzat:<br>Mintzola.eus ataria. Edukiaren migrazioa. Atari osoaren dokumentazioa.<br>Sare sozialak.<br>Seinaletika<br>Proiektuaren eraldaketaren komunikazioa<br>…<br>Guzti hau Euskaltzaindiarekin elkarlanean gauzatuko da. |

| **Helburuak** | **Balorazioa** |
|---|---|
| Mintzola proiektuaren aurreko fasearen azkentzea, eta aurrera begira proiektuak | EUskaltzaindiarekin egin dira guzti horri forma emateko hainbat bilera. |

| | |
|---|---|
| izango dituen behar izan komunikatiboak lantzea. | Orain arte Mintzolak sortutako edukia webgune batean jartzeko erabakia hartu zen, Mintzolak izan duen ibilibidearen urteak erreferentzia moduan erabiliz. Bertsolaritzari lotutako edukia Bertsozale.eus atarira migratuko da aurrera begira. Aldaketa guzti horiek egiteko erabakiak elkarlanean hartu dira Euskaltzaindiarekin.<br><br>Subijana etxeko seinaletika aldatu da. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Durangoko Azoka |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Proiektua abenduaren hasieran gauzatzen da. 5 egunez |
| **Deskribapen motza** | Euskal Kulturgintzari buruzko azokarik esanguratsuenean elkartearen parte hartzea, estrategia diseinatu eta exekutatzea |

| **Helburuak** | **Balorazioa** |
|---|---|
| Bertsolaritzak eta Bertsozale Elkarteak, zein, Lankuk Durangoko Azokan presentzia izatea. | Txapelkataren zurrubiloaren erdian izan da azoka eta bertsolaritzak nahikoa presentzia izango zuela erabaki zen. Azokan bertan presentzia stand bidez izan beharrean beste formatu batean izateko aukerak azertu genituen antolatzaileekin batera. Azkenean saiorik ez egitea erabaki zen eta aurtengoan ez dugu parte hartuko.<br>Datorren urtean bapatean eta txapelketako liburura izango ditugunez aukera izango dugu eskaintzaren batekin joateko. |

# ADMINISTRAZIOA

## Deskribapena

| Urteko helburuak |
|---|
| - Sailaren eta taldearen berrantolaketa eta egonkortzea. |

| Sailaren kudeaketa | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |

| | | |
|---|---|---|
| **Administrazio Saila** | - EH administrazio lantaldean koordinazioa (astean behin bilera, lanak antolatzeko). Taldearen indartze, berrantolaketa eta egonkortzea.<br>- Diruzaina eta Koordinatzailearekin elkarlan estuan jardun. Koordinatzailearekin asteroko bilerak eta Diruzainarekin harremana.<br>- Administrazio batzordearen koordinazioa eta jarraipena.<br>- Herrialdeetako diruzainekin koordinazio bilkurak egin:  urtean bi. | - Urtea hasi zenerako beste administrari laguntzaile bat hasi zen lanean lanaldi erdian eta irailean eszedentzian zegoen administraria itzuli zen lanera lanaldi erdian.<br>- Horrez gain, administrazio sailaren berrantolaketa egin dugu. Izena aldatu eta Finantzak eta Pertsonen Kudeaketa estrategikoa deitu zaio sailari.<br>- Beraz, sail hau osatzen duten kideak: irailaren 1ean izendatu zen arduraduna,  administrari burua, bi administrari laguntzaile eta pertsonen eta prozesuen proiektu arduraduna dira.<br>- Hilean behin egin dira herrialdeetako administrariekin koordinazio bilerak. Bilera hauetan batzen diren perfilen analisia egin da eta baita landu beharreko gaiena ere bai. Horrela, ordenatu egin da urtean zehar lantzeko genuen gaitegia.<br>- Maitasun zehatzik gabe baina diruzaintza batzzordeak egin dira urtean hiru. |

| | | |
|---|---|---|
| **Finantza gestioa**<br>- Aurrekontua orekatu eta exekuzioaren berri. zuzendaritzari eman.<br>- Kontabilitatea eguneratua eraman.<br>- Diruzaintzaren jarraipena egin.<br>- Inbentarioa eguneratu.<br>- Herrialde guztien kontuak eguneratu.<br>- Ogasuneko izapideak bete.<br>- Irizpide bateratuak landu eta zaindu. | - Koordinatzaile eta Diruzainarekin elkarlanean aurrekontuaren egitura erabaki eta jarraipena egin.<br>- Aurrekontuen kontrol eta jarraipenerako bitartekoak prestatu.<br>- Laguntza eskariak eta beren zuriketa garaiz egiteko modua egin<br>- Sarrera irteeren gaineko kontrola eraman; ordainketa epeak kudeatu jarritako irizpideen baitan.<br>- Diruzaintzako kontuak adi zaindu, sarrerak eta irteerak planifikatuz eta diruzaintza plana prestatuz. Behar den kasuetan, diruzaintza beharretarako maileguen koordinazioa eta kontrola egin.<br>- Arauzko kontabilitatea eraman, BE osatzen duten elkarte guztietan.<br>- Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta aitorpenak egunera eraman aholkularitzekin elkarlanean.<br>- Urteko kontuak eta memoria prestatu.<br>- Inbentarioa eguneratu, urtean behin. | - 2021amaieran landu zen aurrekontuaren egitura eta 2022ko batzar nagusian onartu zen. Onartutako aurrekontu horren jarraipena 3 hilabetero egin da horretarako espreski sortutako lantaldean.<br>- Txapelketa urteak baldintzatu du urteko aurrekontua eta horren jarraipena egiteko hornitzaileekin harremanak, Ticket Bai eta ERPa izan dira erraminta garrantzitsuenak.<br>- Diruzaintza planak egunean eraman dira, bai Euskal Herri mailakoak nahiz EHBErenak. Jarraipen hori administrarien bileretan egin da. Jarraipen horretan egin da maileguen koordinazioa. Bai eskaera eta baita itzulketen plangintza ere.<br>- Kontabilitatea egunean eramateko ERParen garapena egin da aurten ATE enpresarekin eta sistema zaharra eta berria indarrean egon dira hilabeteetan zehar.<br>- Egutegi fiskala egunean eraman da HATOR aholkularitzarekin elkarlanean.<br>- Aministrarien batzordean 2021ean Euskal Herri mailako tarifak bateratu genituen, aurrekontuak egiteko irizpideak hitzartu |

| | | |
|---|---|---|
| | - Finantza gaietan ezarritako irizpideak bete daitezen bermatu. | genituen eta hornitzaileen eguneraketa bat egin genuen hizkuntza irizpideak kontuan hartuta. Horrela, 2022an iaz markatu ziren irizpide guzti horiek aurrera eraman ditugu eta horien jarraipena hilero Euskal Herriko administrarien batzordean eta astero EHBEko lantaldean egin da. |
| **Administrazio eta erakundeekiko betebeharrak**<br>- EJ – Elkarteen erregistroa.<br>- GFAn.<br>- Babeslaritza eta Fundazioen erregistroa. | - Elkarteen erregistroarekiko betebeharrak egunera eraman.<br>- Mintzolan Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitako erakunde gisa dituen betebeharrei erantzun.<br>- Babeslaritza eta Fundazioen erregistroarekiko betebeharrak egunera eraman.<br>- Elkarteak erregistratuta dituen marken kontrola (patente eta markak) | - Erregistroan aldaktearike z da egin aurten.<br>- Mintzola fundazioa likidatu zen 2021eko abenduan eta horren ondorioz EHBEk hainbat tramite egin behar izan ditu notaritzan, ogasunean eta Villabonako udalean.<br>- Elkartearen markak berritu dira aurtengo urtean. |

| | | |
|---|---|---|
| **Giza baliabideen kudeaketa**<br><br>**-** Lan kontratuen gestioa eta jarraipena.<br><br>- Gizarte Segurantzaren irizpideak bete.<br><br>- Lan arrisku eta prebentzio plana bete<br><br>- Formazio hobarien kudeaketa. | - Zuzendaritza Batzordeak erabakitako lan hitzarmenak egin eta baldintzak zaindu.<br>- Lan kontratuen kudeaketa (altak, bajak, aldaketak,…)<br>- Nominen jarraipena egin.<br>- Gaixoaldi edo lan istripu bajen kontrola.<br>- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera eraman.<br>- Baimen, eszedentzia,…kontrola.<br>- Lanaldien erregistro orriak jaso.<br>- Lan arrisku eta prebentzio plana:<br>- Urteroko jarraipena.<br>- Langileen azterketa medikuen egutegia.<br>- Lan arrisku eta prebentzio planaren barruan langileen formazioa.<br>- Langileen formazioaren bonifikazirako tramiteak bideratu. | - Atal honi izena aldatu zaio eta hemendik aurrera pertsonen kudeaketa estrategikoa deituko zaio. Horrek esan nahi du, atal honetan bi atal bereizi daitezkeela. Bata, teknikoa, nominak, lan harremanak, gaixoaldiak, gizarte segurantza, eszedentzien jarraipena eta bestetik, langileen zaintza, prestakuntza eta kudeaketa.<br>- Lan arrisku eta prebentzioen atalean aldaketak egin ditugu eta jarraipen zehatzagoa eraman dugu. Lankide bakotizak botikin bat eskuratu dugu kotxean eramateko eta Quironprevencionekoei txosten teknikoa egiteko eskatu diegu eta egin digute (gaztelaniaz). Euskaraz idazteko lanetan ari dira orain.<br>- Langileen formakuntza eskaerak bideratu dira. |

| | | |
|---|---|---|
| **Bazkide errolda** | - Bazkideen alta eta bajak erroldatu, eta datu baseak (Access, bertsosarrerak, Outlook,…) egunera eraman.<br>- Eskatzen diren informeak egin.<br>- Kuotaren kobraketa bideratu eta jarraipena egin. | - 2021an hasi eta 2022an amaitu dugu bazkideen datu basearen eguneraktarekin. Horretarako pertsona bat kontratatu zen lanaldi erdiz.<br>- Bazkideen atala egunean jarri dugu eta kobraketak, altak, bajak eta jarraipena egiteko epeak markatu ditugu aurrera begira modu metodikoan egin ahal izateko. |
| **Egiteko zehatzak**<br>- ERP<br>- Onura Orokorreko Erakunde izendapena.<br>- Datu Pertsonalen Babeserako legea. | - ERP (Baliabide ekonomiko eta Giza Baliabideen kudeaketarako aplikazioa) diseinu eta garapen lanak amaitu.<br>- Onura Publikoko Erakunde izendapena lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa prestatu eta prozedurak bideratu.<br>- Datu Pertsonalen Babeserako legea inplementatu eta sail eta herrialdeen zalantzak bideratu. | - ERPak bi atal nagusi ditu: finantzen atala eta proiektuen atala. Lehen atal osoa garatu da ATE enpresarekin eta bigarren ataleko diseinuaren lehen zertzeladak eman ditugu.<br>- Ez dugu Onura Publikoko Erakunde izendapena lortzeko tramiterik egiteko astirik hartu.<br>- Datu Pertsonalen Babeserako legea egunean jartzeko SIGACUS enpresarekin egin dugu lan. Webguneetako cookieak egunean jartzen eta udalekuetako izen emate formularioetan jarri da atentzioa bereziki. |

| | | |
|---|---|---|
| **Ohiko egitekoak** | - Telefono deiak hartu eta banatu.<br>- Postaz arduratu: egunerokoak igorri eta jasotakoak banatu.<br>- Koordinatzaile eta Sailetako eragileei behar duten laguntza eskaini: informazioa, laguntza eskariak, zuriketak e.a.<br>- Bitarteko teknologikoen funtzionamenduaren ardura eraman:<br>- Azpiegitura informatikoa (Sarearen mantentzea: zerbitzari, intranet, erosketak, erabiltzaileak,…)<br>- Ikus-entzunezko baliabideen mantenua<br>- Artxibo informatikoen ziurtasun kopiak egin.<br>- Elkarteko artxibo administratiboa antolatu eta egunera eraman.<br>- Ibilgetua Materialaren inbentarioa egunera eraman.<br>- Tresneriaren sarrera-irteeren kontrola eraman.<br>- Bulegoko material suntsigarria: aurreikuspenak, erosketak… | - Villabonako elkarteko harrera lanak egin dira.<br>- Eguneroko lanak egin dira, posta hartu, hornitzaileekin harremanak, konponketak koordinatu, ordainketak, fakturak, diru laguntzen eskari eta zuriketak eta abat.<br>- Informatika enpresarekin koordinazioa eraman da. Zerbitzarian aldaketak egin dira.<br>- Ikus-entzuneko baliabideak ezin izan dira konpondu aurrekontu faltarengatik.<br>- Segurtasun kopiak egin dira.<br>- Artxiboa ezin izan da eguneratu denbora faltarengatik.<br>- Material suntsigarriaren erosketak bideratu dira.<br>- Biltegiko izakinen kontrola eraman da: aurten txapelketa nagusian mugimendua egon da.<br>- Villabonako udalarekin koordinatuta aretoen eskaera bideratu da.<br>- Etxearen mantenua egiteko lankide guztien artean txandak antolatu dira bikoteka eta hilabeteko txandak osatuz. Txanda hauetan |

| | | |
|---|---|---|
| | - Biltegiko izakinen mugimenduaren kontrola eraman:<br>- Biltegian, salmentarako dagoen materialaren ardura (sarrerak, irteerak, urteko inbentarioa,…)<br>- Aretoen erabileraren kudeaketa<br>- Etxearen mantenua orokorrean<br>- BERTSOSARRERAK web-gunearen kontrola:<br>- Salmentan jarriko diren ekitaldien urteko egutegia prestatu eta aurrelanak antolatu, salmenten likidazioak prestatu,… | kartoia atera eta etxeko konponketa txikiak egin dira.<br>- Bertsosarrerak webgunean inbertsioa egin da eta sistema garatu da egungo beharretara egokitzeko. Izan ere Txapelketa Nagusian behar zen gaitasun handiagoa izango zuen sistema eta AKTING enpresakoekin egin dugu garapen hori.<br>- Urtearen amaieran sail bakoitzarekin bildu eta 2023rako aurrekontuen osaera egin da. Aurrekontu hori batzar nagusian aurkeztuko da. |

## Proiektuak

| **Proiektuaren izena:** | ERP |
|---|---|
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022 |
| **Deskribapen motza** | Elkartearen baliabide ekonomiko, pertsonen eta proiektuen kudeaketarako aplikazioa. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| - SOLMICRO enpresarekin markatutako lan -plana betetzea<br>- Lehen zikloan kontabilitateari erantzungo dion sistema bateratua ezartzea.<br>- Bigarren zikloa diseinatzen joatea: proiektu eta pertsonen kudeaketarako sistema diseinatzea | o Aplikazioaren garapena eta epeen betetzea, helburuen asetze maila |
| Elkarte guztien eta Lankuren beharrei erantzuna emango dien tresna bat garatzea. | o Aplikazioaren garapena |

| **Balorazioa** |
|---|
| o Enpresaz aldatu genuen, aurreko enpresak ez zituelako Elkarteak behar zituen erritmo eta gaitasun beharrak asetzen. Inbertsio handi bat zakarretara botatzearen sentsazioa izan dugu baina, segituan aurkitu genuen gure neurrirako enpresa bat eta horrela hasi ginen ATE enpresarekin lanean.<br>o ERPak bi atal nagusi ditu: finantzen atala bata eta proiektuena, bestea. Lehen atalak lehentasun osoa zuen herrialdeek kontabilitatea eramateko autonomia izan zezaten eta, beraz, lehen atalean jarri dira indar guztiak.<br>o Erraminta garatu bitartean datu zaharrak bolkatuz joan gara, horrela tresna elikatuta egon zedin eta garatzeko aukera izan genezan.<br>o Ordu eta dedikazio asko eskatu du garapenak, izan ere, 6 elkarte desberdin, jarduera desberdinak dituztenak, gainera, bateratu nahi izan ditugu. Emaitza oso positiboa izan da eta lortu dugu erraminta oso potente bat sortzea, Bertsozale Elkartearen neurrira eta beharretara egina.<br>o Bigarren atala, proiektuena garatzeko denbora gehiago beharko dugu baina gutxi gora behera lehen saio bat egin dugu nondik norakoen berri izateko.<br>o Egin dugun bide guzti honetan zehar, ERPa erabiltzen ikasteko etengabeko formakuntza eskaini digu ATE enpresak. Klabea izango da aurrerantzean ere erraminta erabiltzeko manualak eta transmisioa bermatzea. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Onura orokorreko izendapena |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022ko maiatzerako eskaera eginda |
| **Deskribapen motza** | Elkarteak, onura orokorreko izendapena lortzeko beharrezkoa den dokumentazioaren prestaketa (Elkartearen egitasmoa, azken hiru urteko memoria ekonomikoak…) |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| • Onura orokorreko izendapena lortzea.<br>• Izendapena lortzearen helburuak: finantzaketa iturri berriak eskuratzeko erraztasun gehiago, bazkide eta laguntzaileentzako onura fiskalak…<br>• Izendapena ez duten herrialdeetan aholkularitza lana eta izendapena lortzeko prozedura egiten laguntzea. | • Eskaeraren tramitea<br>• Eskaeraren erantzuna |

**Balorazioa**

- Ez dugu onura orokorreko izendapena lortzeko tramiterik egin. Barne lanketa egin dugu eta eskatzen den 3 urteko jardueren memoriaren txostena osatu dugu. Memoria ekonomikoa egiteke geratu da, ordea.
  2023rako egitekoetan kokatuko dugu.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | www.bertsosarrerak.eus |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urte osoan zehar.<br>Balorazioa ekainean eta abenduaren amaieran |
| **Deskribapen motza** | Elkarteak antolatzen dituen ekimen desberdinetarako sarrera salmenta web gunea. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| Elkarteak antolatzen dituen ekimen desberdinetako sarrera salmenta aktibatu eta jarraipena. | o Ekitaldi eta saioen aktibatzea, salmenten likidazioak ateratzea, eta egon daitezkeen zalantza, inzidentzia,… irtenbidea eman. |
| 2021ean Web gunean egindako hobekuntzen balorazioa egin | o Txapelketa Nagusian sarrera guztiak atari honetatik kudeatu ahal izatea. |
| Plazako antolatzaileei zerbitzua eskaini ahal izatea. | o Plazako antolatzaileei modu errazean eskaini ahal izatea sarrera salmenta. |
| Tiket Bai inplementatzeko egokitzapenak egitea. | o Urte amaierarako Aktinekin konponbidea bilatu Tiket Bai-ren inplementazioari. |

**Balorazioa**

- o Balorazio positiboa egin dugu. Izan ere mugimendu askoko urtea izan da proiektu honetan. Plaza asko mugitu da eta Txapelketa Nagusian 14 saio oso jendetsuak sortu ditu Elkarteak. Guzti hori kudeatzeko erraminta garatu eta osatua behar genuen eta horregatik behar izan dugu inbertsio bat egin bertsosarrerak.eus en.

- Antolatzaileei eskaini zaie Bertsosarrerak modu errazean erabiltzeko aukera eta erabili dute, Señora sariketaren kasuan, adibidez.
- Ticket Bai sistemari egokitzeko hainbat aldaketa behar izan ditu sistemak.
- Horrez gain, bertso saioen sarreretzen egin behar den txartelen baliadazioan ere aldaketak egin behar izan ditugu eta indartu behar izan dugu sistema, abiadura gehiago behar genuelako.
- Sistemarekin eroso gauden arren, 2023an eguneraketa gehiago beharko ditugulakoan gaude, bai takilaren atala garatu ahal izateko eta baita mobilen bidez balidatu ahal izateko aplikazioa hobetzeko ere.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Ekonomia sozial eraldatzailea |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Irailetik abendura |
| **Deskribapen motza** | Etorkizunera begira, Elkartearen kokapenaren eta egitekoen, zein ekonomia eta giza baliabideen ulerkeraren inguruko azterketa burutu da eta langileekin eta zuzendaritzarekin eztabaidatu nahi da hurrengo pausoak erabaki aurretik. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| • Elkartea Ekonomia sozial eraldatzailea txostena eztabaidatu eta ekarpenak jaso<br>• Proiektua eta pertsonen arteko oreka landu | • Gogoeta saio baten iritziak jasoko dira. Iritzi kopurua. |

**Balorazioa**

- HUHEZIrekin elkarlanean azterketa bat garatu genuen 2021an eta bertan Bertsozale Elkarteak bere historian zehar Ekonomia Sozial Eraldatzaileak (ESE) jasotzen dituen atal desberdinak nola garatu izan dituen analizatu zen. Analisi horen ondorioak langile guztiekin partekatu ziren gogoeta saio batean eta hortik abiatu zen Elkartea beste kokaleku batera eramateko abiapuntua.
- Hortik etorri dira hainbat hausnarketa egiko beharrak. Horrela, finantza ereduaren gaineko gogoeta egin behar dugula konturatu gara. Langileen eskubide eta betebeharrak jasotzen dituen dokumentua berritzeko beharra eta barne funtzionamenduaren gaineko lanketa egiteko beharrak ere atera dira.
- HUHEZIrekin elkarlanean ikerketa bat burutu dugu eta lan saio batzuen bidez Bertsozale Elkartearen elkarlanerako aukerak eta gaitasunak aztertu ahal izan ditugu. Ondorioen txostena ez dugu guztiz osatua oraindik baina asmoa da ateratzen diren ondorioekin langile guztiekin gogoeta saio/hitzaldiren bat egitea.

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | Finantza eredu berria_BEBEKA |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | Urtean zehar |

| Deskribapen motza | Ekonomia sozial eraldatzailean egin nahi den lanketa ideologikoa praktikara eramateko finantza eredua diseinatu eta eredu horren aplikaziorako tresnak sortzea da helburua. |
|---|---|

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| - Lanketa ideologikoa egitearekin batera finantza eredu berria marraztea.<br>- Eredu berria egikaritzeko tresnak sortzea<br>- BEBEKA proposamen moduan lantzea | |

**Balorazioa**

- Finantza ereduaren gaineko prozesua egin nah bagenuen ere epeak eta denborak ez digu aukerarik utzi eta aurrerago egingo dugu.
- Eztaaidaren diseinua eta finantza eredu berrirako tresna posible baten prospoamena landuta dago, beraz, aurrelanketa hori, behintzat eginda utzi dugu. Hurrengo pausoa izango da herrialde bakoitzak eztabaidatu eta ondoren eztabaida orokor bat egitea.
- Prozesu hau gidatzeko ere arduraduna izendatu dugu, irailaren 1etik aurrera hasi da finantza eta pertsonan kudeaketa estrategikoko koordinatzaile moduan.

| Proiektuaren izena: | Formazio plana |
|---|---|
| Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera) | Jarraia, urte osoan. |
| Deskribapen motza | 1. Formazioaz zer ulertzen dugun hausnarketa.<br>2. Formakuntza beharrak identifikatu.<br>3. Formazioaren beharra azalera atera.<br>4. Formakuntza plana diseinatu<br>5. Formazio saioak planteatu eta egikaritu. |

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| - Urte amaierarako formazio plana diseinatuta izatea | - Langile eta borondatezko kideen behar formatiboak jasota daude?<br>- Baliabide ekonomikoak beharrak asetzeko?<br>- Lan dedikazioetako kalkulua formaziorako? |

**Balorazioa**

- Formazio plana bere horretan egitera iritsi ez garen arren, hainbat gako identifikatu ditugu aurten egindako lanketan. Batetik, egin ditugun erakundeetako bixitetan ikasi dugu beste antolakundeetan formazioa nola planteatzen duten. Bestetik, formazio orduetarako langile bakoitzak izan dezakeen dedikazioaren gaineko gogoeta egin dugu eta aurre proposamen bat ere prestatzeko aukera izan dugu, langile bakoitzaren lan taulak diseinatuz. Horrez gain, barne araudian formazioaz Bertsozal Elkartean ulertzen dena eta formazioarekin lortu nahi dena idatzi dugu ondoren emango den prozesuan eztabaidatu ahal izateko.
- Lanketa horrez gain, lankideek euren formazio beharrak asetzeko eskaerak egin dituzte aldian aldian eta Elkarteak erraztasunak jarri ditu horretarako. Formazio bateratu batzuk

| |
|---|
| ere egin ditugu barne zein kanpo formatzaileekin: eraso matxisten protokoloan mezu publikoak lantzea, Indesing eta bertso-transkripzioak, esaterako. |

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren izena:** | LEB eguneratze prozesua |
| **Datak (proiektuaren hasiera eta amaiera)** | 2022 eta 2023 |
| **Deskribapen motza** | 2007. urtetik berritu gabe dagoen langileen eskubide eta betebeharrak jasotzen dituen dokumentua berritzea eta egungo egoerara ekartzea. Ekonomia sozial eraldatzailearen filosofia gureganatuz eta pertsonen kudeaketa estrategikoa oinarrian izanda. |

| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** |
|---|---|
| • Bertsozale elkarteko soldatapeko langile, enpleguaren gaineko lanketa ideologikoa<br>• Egun ditugun lan baldintzen balorazioa. (beste elkarte eta enpresekin alderaketak)<br>• Zenbat LEB desberdin behar ditugun identifikatu: Elkartean dauden lan desberdinei erantzungo dien lanketa diseinatu.<br>• Langile batzarrak egiteko ohiturak sustatzea. Horretarako lan orduak zehaztea.<br>• Beste elkarte eta erakundeetan egiten diren prozedurak analizatu eta gurea diseinatzea. Zenbatero berritu? Nola berritu?<br>• EH eta herrialdeak zertan bateratu eta zertan ez definitzea. | - Asebetetze maila<br>- Langileen inplikazioa<br>- Jarraipen mekanismoak<br>- Erabakitzeko gaitasunak |

| **Balorazioa** |
|---|
| - LEB (langileen eskubide eta betebeharren dokumentua) marko orokorrago batera ekarri dugu eta Barne Araudia deitu diogu.<br>- 5 erakunde desberdinetan egin ditugu bixitak eta aurrez prestatutako gidoi baten languntzaz egin ditugu elkarrizketak. Bertatik ateratako informazioarekin eta erreferentzia desberdinekin osatu dugu oinarrizko eztabaidarako dokumentu bat.<br>- Bixita horietatik ateratako informazio guztiak barne funtzoinamendu eta antolakuntzarako beste hainbat alor garatzeko pistak eman dizkigu: formazio plana, langileen garapen profesional eta pertsonalerako plana, plan estrategikoa eta abar.<br>- Barne Araudia jasotzen duen zirriborr dokumentua 2023an zehar eztabaidatuko da eta asmoa da 2023a amaitzen denerako langile guztien ekarpenak jaso ondoren adostuta uztea. |

# ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA



| HELBURU OROKORRAK | BALORAZIOA |
| --- | --- |
| 1. GIZA BALIABIDEAK, PROIEKTUAK ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK OREKATU<br>- Pertsonal dedikazioa zaindu lan taldea indartuz.<br>- Defizita murriztu 2022 urtean, pertsonalaren egitura aurrera begira jasangarria izan dadin. Prezioak igo<br>- Pertsonala eta lana egokitu. Lana eta ardurak birbanatu.<br><br>2. BERTSOGINTZAREN EKOSISTEMA ZAINDU<br>- Herrietako bertsozale taldeak egituratu eta zaindu komunitate horiek iraunkorrak izan daitezen<br>- Bertsolariak eta bertsozaleak aktibatu<br>- Bertso saio, elkarlan eta plaza berriak egon daitezen eragin<br>- Bertsozale Elkartea eta herrialdeko bertso mugimendua prestigiotzea, ezagutzera eman.<br>3. TRANSMISIOKO LANA ERAGINKORRAGO EGIN<br>- Bertso-eskoletako ikasleen arteko harremana eta plazaratzea zaindu.<br>- Irakasleen formazioa eta erreleboa. Materiala.<br>- Zubiak: Bertso eskolak sortu eta mantentzeko lan intentsiboa.<br>- BBG berraztertu eta 12-18 urte bitarteko tartean mantentzeko ekintza zehatzak diseinatu bertso-eskoletako irakasleekin elkarlanean. | Egitasmoak hala eskatuta maiztasun handiarekin ibili gara pertsonala eta lana egokituz eta birbanatuz, egitasmoaren gauzatze egokiari laguntzen baitio horrela antolatzeak.<br>Prezioak igo dira eta pertsonalean gastuak murrizteko ahalegina egin da, hala ere defizita murriztea ez da lortu.<br><br>Bertsogintzaren ekosistema zaindu egin da eta plaza indarberritu da saio gehiago antolatuz.<br><br>Transmisioari dagokionez bertso-eskolak indartzeko lan berezia egin da egoerak hala eskatzen zuelako eta Bertsoa Bizi Gazte egitasmoak diseinu berria eskatzen duela ikusi da. |

| IDAZKARITZA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | BALORAZIOA |
| --- | --- | --- |

| | | |
|---|---|---|
| Elkartearen oinarrizko funtzionamendu egokia bermatu eta arauzko betekizunak txukun bete. | - Zuzendaritza eta koordinazio bileren aktak eta deialdiak garaiz egin<br>- Bulegoa txukundu bakoitzaren espazioak egokitu. Lan tokiaren egokitzapena egin ekaina eta irailean<br>- Zerga aitorpenak, zuriketak eta laguntza eskaerak dagokion epean burutu<br>- Bulegoaren mantenua ziurtatu: informatika, telekomunikazioak, fotokopiagailua<br>- Posta, telefonoa eta datorrenari harrera egin gutxieneko ordutegi bat bermatuz eta eskaria dagokion sailera bideratuz.<br>- Outlooken dagoen Kontaktuen datu basea eguneratu<br>- Urteko artxiboa antolatuta utzi, bai paperean zein intraneten. | Bilerei dagokienez justu xamar ibiltzen gara gai-ordena eta aktak bidaltzeko, hobetu beharra dago horretan.<br>Bulegoan egotearen beharrak betetzen dira, baina batzuetan ez da praktikoa klaseak eta tailerrak ematen ibiltzen baikara lantalde osoa.<br>Outlookeko kontaktuak eguneratu behar dira.<br><br>Bulegoa eta artxiboak txukun mantetzen dira. |
| Egitasmoa eta ildo estrategikoak adostu eta bete direla ziurtatu | - Ekainean urteko egitasmoaren tarteko ebaluazioa eta egokitzapena burutu. Abenduan memoria eta 2023rako egitasmoa<br>- 2023rako lehentasunak finkatu eta plana adostu zuzendaritza eta bertso-eskolen batzordearekin | Ederki bete dira hauek. |
| Kargudunak eta Bolondresak ahaldundundu elkartearen gidaritza egin dezaten | - Zuzendaritza batzordearen 10 bilera egin. Informazioa aldez aurretik bidali erabakiak bertan<br>- Zuzendaritzakideak eta kargudunak iraunkorki informatu elkartearen martxaz,<br>- Arduraduraren bat duten bolondresen eta eragileen arteko koordinazioa bermatu zuzendaritzaz gain gutxienez 2 bilera eginez.<br>- Batzar nagusia urtarrilean, partehartzea bultzatu eta arin eta eraginkor izan dadin prestatu | Kargudun eta bolodresekin funtzinatzeko moduak bilatzen ibili gara, batzuekin zaila izan da koordinatzea.<br>Baina oinarrizko egitekoan bete dira. |

| | | |
|---|---|---|
| Lan antolaketa eraginkorra egin, errekurtsoak optimizatu, eta ongi koordinatu | - Langileen lanaldiak eta proiektuak dauzkagun bailiabideetara egokitu, bakoitzaren lan-taula burutu eta ebaluatu ekainean eta abenduan.<br>- sailetako eragileen arteko koordinazioa bermatu hilean ostiral baten<br>- Profesionalen lan taldea zaindu, ardura banaketa orekatua, elkarlana eta optimismoa sustatuz.<br>- Hilean behin gutxienez ostiraletan KOORDINAZIO BILERA langile guztiekin egitasmoaren jarraipena egiteko. Hilean behin sail eragileak bakarrik<br>- Lanaldien araberako banaketa berria eta urteko kronograma burutu otsailean | Maiztasunez neurtzen dugu langielen zama eta lagungarri da hori lanerako.<br><br>Zintzilik geratzen diren ardurak beti berdinek hartzen dituzte eta hau kudeatzen ari gara.<br>Koordinazio bileretarako asko elkartu gara. |
| Pertsonalaren kudeaketa egokia egin | - Lanaldiak, baldintzak, kontratuak, lan-orduen kontrol orriak eta ordezkapenak txukun kudeatu<br>- Langileen eskubide eta betebeharren hurbileko jarraipena egin. Behar diren neurriak hartu | Hobetu behar. |
| Nazio mailan ongi koordinatu. | - Kudeaketa batzordean parte hartu hamabostero bilerara ordezkari bat bidaliz<br>- Administrazio eta diruzain batzordean parte hartu | Bete dugu. |
| Aurrekontuaren eta diruzaintzaren jarraipen zorrotza egin. Finantziazio iturriak sendotu. | - Hilean behin kontabilitatea eguneratu, fakturak egin, ordaindu eta diru mugimenduak eguneratu<br>- Zordunei eta hartzekodunei errepasoa, hiruhileka<br>- Aurrekontu ahalik eta orekatua egin. defizita sahiesteko finantziazio iturriak ziurtatu, eta gastuak eta proiektua baliabideetara egokitu<br>- Prezioen eguneraketa burutu 2022an zehar<br>- Onura publikoko elkarte izendapena tramitatu EHBE-arekin koordinatuta | ERPagatik lana pilatu da eta ez da kontabilitatearena bete. Zordunei jarripena maizago egitea komeni da. Aurrekontua etengabe orekatzen ibili gara. |

| | | |
|---|---|---|
| | - Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko udalarekin bilerak egin hitzarmenak egokitu 2020rako | |
| Herrigintzan ekarpena egin bertsolaritzatik, ikuspegi propioa emanez | - Euskalgintza foroetan parte hartu, erabaki kolektiboen parte izan<br>- Arabako Foru Aldundiaren Euskararen aholku batzorde eta Gasteizko udalaren Kultura eta Euskara batzordeetan parte hartu ELKARTEA ordezkatuz | Euskalgintza foroetara ez gara behar beste hurbildu. |

| HEZKUNTZA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| **KUDEAKETA OROKORRA** | | |
| Oinarrizko ezagutza herrialdean bermatzeko 7 eskualdetan lan egin hezkuntza, aisialdia eta bertso-eskoletan | - 47 ikastetxetan bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza bermatu LH eta 16 ikastetxetan DBHn<br>- Langileen bilerak ostiraletan, hamabostero, 2-3 ordukoak formazioa, materialgintza eta koordinazioa tartekatuz.<br>- Ikasturteko egitasmoa adostu eskualde eta herrialde mailan<br>- eskualdeetako irakasle-arduradunak bertso eskolarekin koordinatu | Ederki bete da. |

| | | |
|---|---|---|
| | - Eskualdeetako erakunde eta eragileekin zuzeneko harremana izan | |
| Bertso eskolak mantendu, ordezkapen naturala ziurtatu eta indarberritu 2018ko irailean | - Bertso eskolen batzarra bildu 5 aldiz: Iraila, azaroa, abendua, otsaila eta ekaina. Batzordea ongi dinamizatu ahaldundua eta partehartzailea izan dadin.<br>- Irakasleei formazioa eta bitartekoak eskaini<br>- Izena emateko aurrekanpaina eskolartekoarekin batera. Kanpaina arrunta irailean. Klase pasa 10 ikastetxetan 2022eko irailean.<br>- Eskualdekako koordinazioa eta jarraipena | Bilera gutxiago egitea adostu da. |
| Gazte berriak plazarako trebatu, kolektibo bezala indartu eta motibatu | - gaztetxoen taldeak dauden Herri bakoitzean bertso-eskolarekin elkarlanean plaza bana sortu gutxienez eskolartekoan hasi berriak diren gazteek lehen saioak egin ditzaten (LEGUTIO, ARAMAIO, AGURAIN, ZALDUONDO eta GASTEIZ).<br>- GAZTEENTZAKO "SARIKETA" ereduari ta formatuari buruz hausnartu eta ANTOLATZEN lagundu 2022an<br>- Topaketa/trebakuntza asteburu bat egin gaztekin Udaberrian, eskolartekoaren aurretik. MANURGAN | Topaketa egitea erabaki egokia izan zen, oso ondo atera zen: Gazteentzako sariketa ez zen egin. |
| Transmisioan egiten den lanaren Komunikazioa modu eraginkorrean egin | - BERTSO BILDUMAK egin eskualdeka. Otsaila amaierarako bertsoak eta argazkiak eta maketazioa martxoan burutu<br>- Berripapera urtean 5 ale eta 6 Urtekari mantendu eta zabaldu bertso-eskoletako ikasleen artean. Datu basea eguneratu | Ederki bete da. |

| | | |
|---|---|---|
| | - WEB gunea eta sare sozialak : ekintza zehatzen zabalkundea egin. Eta kurtso hasiera eta amaieran aparteko komunikazioa burutu, datuak eskainiz | |
| **GASTEIZ BERTSOLARI** | | |
| Hezkuntza arautuko lanari jarraipena eman, haur, gazte eta helduak bertso eskoletara erakarriz | - Gasteizen gurekin elkarlanean dauden ikastetxeetan eskolaz kanpoko ekintza bezala eskaini dezaten beharrezko kudeaketa lana egin, iaz hasitako bidea finkatu<br>- Gasteizko bertso-eskolaren 40. urteurrena ospatu, egun dauden ikasleak eta izandakoak elkartzeko moduko ekimen baten bidez<br>- Aisialdia: eskolarteko idatzizko topaketa antolatu eta barnetegi eta udalekuetan Gasteizko haur eta gazteen partehartzea bultzatu<br>- Bertso-eskolako taldeen egitura sendotu eta taldeen arteko harremana bultzatu, bikotekako txapelketa, kuadrilartekoa, gazteen ekimenak eta ekintza puntualen bidez | Ia osotasunean bete da.<br><br>Bertso eskolen arteko harremana bereziki zaindu da aurtengoan.<br>Bertso eskolaren 40. Urteurrena ospatzeko motibazioa faltatu izan zen irakasleen aldetik, ez da bete. |
| **AISIALDIA** | | |
| Bertsolaritza aisialdirako gozamen eremu bezala eskaini eta zabaldu Arabako haur eta gazteen artean | - Barnetegiak 2 eskualdetan aurrera ateratzen saiatu eskaintza errealitatera egokituz, eta beste eskualdeetako haur eta gazteei ireki plaza libreak dauden guztietan. LAUTADA, GORBEIALDEA | Ederki bete da, bereziki eskolartekoa txapelketa oso ondo atera zen dena. |

| | | |
|---|---|---|
| | - Eskolartekoa eskualde mailan haurren idatzizko topaketak burutu, (6 eskualde) eskualde guztien parte hartzea bultzatu bat-batean<br>- Eskolartekoa herrialde mailan antolatu. 3 kanporaketa lagun artean eskualdez eskualde eta finala<br>- 14-18 urteko eskolarteko txapelketarako Arabako gazteak zaindu eta babestu. Euskal herriko txapelketako finalera doazenei behar besteko arreta eskaini. Bertso-eskolaz kanpo entrenamenduak behar izanez gero antolatu | |
| **HEZKUNTZA ARAUTUA** | | |
| Gu ere bertsolari programa arrakastaz eta kalitatez garatu oinarrizko ezagutza bermatuz 10-12 urteko arabar gaztetxoen artean | - 47 ikastetxetan klaseak 15ero 10-12 urteko haurren artean. Pandemiagatik galdutako ikastetxeak berreskuratzeko saiakera.<br>- Tailer laburrak eskaini 7 ikastetxetan. Añana eta Gasteizen<br>- 16 ikastetxetan tailer laburrak eman 13-16 urteko gazteekin<br>- Ikasgelen arteko harremana lantzeko topaketa edo ekimenak (bideo-kopla lehiaketa)<br>- Formazio jarraia egin herrialde mailan antolatua eta Euskal Herri mailan koordinatua. HUHEZIn formazioa | Uste baino tailer gehiago eman dira (9).<br>Bereziki formazioari eskaini zaio harreta, honek tailerretarako lan taldea indartuko du.<br>ALEA bideo kopla txapelketa ondo, baina sari banaketaren egunari buelta bat eman behar zaio umeak gehiago inplikatzeko. |

| | | |
|---|---|---|
| | jasoko du pedagogia arduraduna eta asteroko jarraipena izango da mintegietan.<br>- Bertsoikasgela.eus elikatzeko materialgintzan parte hartu. | |
| **BERTSOA BIZI GAZTE (BBG)** | | |
| Gazteak bertso mundura erakarri, bertsozaletu eta bertso eskolarako zubiak eraiki. | - Lehenago BBG tailerretan parte hartu izan duten Batxilergoko ikasleei zuzenduta, 4 bertso saio antolatu, Laudio, Gasteiz eta Agurainen Apirilean. BBG egonaldia, eskolartekoa eta bertso-eskola komunikatzeko baliatu<br>- Alean, Sare sozialetan eta web gunean egonaldiaren, eskolartekoaren eta bertso-eskolen berri eman. Gazteentzako egokitutako kanpaina bat burutuz<br>- Gazteen egonaldia antolatu Ekainean . Izen ematea zabaldu, Maiatzaren amaiera arte<br>- BBG eguna Eskolartekoarekin lotuta antolatu Maiatzaren 21ean Gasteizen.<br>- Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketako finalera txangoa antolatu | Egitasmo honen ibildea bukatutzat eman da aurten. Tailerrek ondo funtzionatzen dute, baina BBG eguna ez zen ozpatu. Egitasmoa birformulatuko dugu. |
| **ARABAKO BERTSO ESKOLAK** | | |
| Bertso-eskolarako zuzeneko zubiak izango diren aukera gertuko eta errealak eskaini haur eta gazteei | - Bertso-eskoletan haur taldeak sortu eta daudenak mantentzeko ahalegina egin hezkuntza arautuko esperientzia baliatuz.<br>- bigarren hezkuntzan gurekin ari diren eta bertso-eskola egitura duten herrietan gazte-taldeen eskaintza egin 2022-2023 ikasturterako. LAUTADA, ZIGOITIA-ZUIA, FAKTORIA, ARABAR ERRIOXA, MENDIALDEA, GASTEIZ, | Talde berririk ez da atera eta bi talde erori dira. Ahalegin berezia ari agar egiten hau indartzeko. |

| | | |
|---|---|---|
| Bertso-eskolak indartu, harremanak landu, plazaratzea zaindu eta jende berria erakarri | - Daudenak mantendu eta taldeen ordezkapen naturala eta indartzea bermatu<br>- Aurrera eraman 6 eskualdetako 10 herritan<br>- Irakasleen inplikazioa eta presentzia eskolaz kanpoko jardueretan, lanaldia egokituz<br>- ARABA BERTSOZALE Udaberriko proiektua bertso eskoletako ikasleak plazaratzeko eta bertso-eskolen arteko harremanak lantzeko.<br>- kontratuak eta baldintza egokiak ziurtatu urritik ekainera | Bertso-eskolak indartu, harremanak landu, plazaratzea zaindu eta jende berria erakartzeari dagokionez ederki ari gara. |

| IKERKUNTZA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **Balorazioa** |
| Herrialdeetako ekitaldien dokumentazioa bildu eta Xenpelarrera igorri | - Elkarteak kudeatutako saioen eta bestelako saioen grabazioak: audioa (%18-22=25 saio ), bideoak (%14-16 = 20 saio ) eta fitxak<br>- Ekitaldi garrantzitsuenen dokumentazio grafikoa bildu: argazkiak (%35=60 saio), kartelak (%60-70=110 saio )<br>- Arabako saioen datu bilketa egin agendarako<br>- Elkarteak antolatutako aldizkako ekitaldien informazioa arretaz bildu<br>- Prentsa lokalaren hustuketa: Interneten (ALEA, DNA, ELCORREO) | Ederki bete da. |
| Haitzondo datu basea eguneratu | - Arabako bertsogintzaren fitxak eguneratuta mantendu eta behar direnak sortu edo ezabatu | Eguneraketak egin dira, baina lan pixkat geratzen da. |

| | | |
|---|---|---|
| Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatu | - EHBEko Ikerkuntza Batzordean parte hartu<br>- Nazio mailako ekimenak Araban antolatzen direnean koordinazio eta behar bada antolakuntza bermatu.<br>- Ikerkuntza Saileko arduradun bat Arabako zuzendaritzan bermatu. | Sail Arduraduna desaktibaturik ibili da urte erdiz, baina bueltatu da lanerako gogoz. |
| BBG berraztertu eta 12-18 urte bitarteko tartean mantentzeko ekintza zehatzak diseinatu bertso-eskoletako irakasleekin elkarlanean | - Ze gazte eragilek antolatu dituzte bertso saio eta kultur ekitaldiak azken urteetan.<br>- Eragile gazteekin gogoeta jardunaldia bat antolatu. | Ez da bete. Ardura hau zuen langileak lana utzi du. |

| **SUSTAPENA** | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **Balorazioa** |
| **KUDEAKETA OROKORRA** | | |
| LANKUrekin sustapen elkarlana | - LANKUREKIN Arabako bertso saioen merkatua eta beharrak aztertu, orain arteko elkarlana baloratu, eta esku artean ditugun proiektuak eta elkarlanak adostu | Bete da. |
| Bertso-saioen jarraipena egitea | - Araban antolatzen diren bertso-saioen azterketa kuantitatiboa (berezko iniziatiba, eskualdeka, formatuak) | Bete da. |
| Arabako bertsolaritzaren hedapena bideratzea | - Hitzetik Hortzeran eta bertsoa.eus-en Arabako bertsolaritzaren presentzia nola agertu proposamena zehaztu (txapelketan). Hedapenerako saio egokiak direnen berri eman. | Bete da. |

| | | |
|---|---|---|
| | - Bertxoko irratsaioa, bertsoa.eus, Hitzetik Hortzera, Hitza Jolas, web gunea eta sare sozial ezberdinetarako materiala bideratu. | |
| Saioen exekuziorako behar diren baliabideak lortzea | - Bi soinu ekipoak, grabagailua, bideo kamera edo argazki kamera kudeatzea. Biltegia berrantolatu. | Erabilpenaren kontrolerako kotrol-orri bat beharrezko ikusten da. |
| Gasteizko jaietako/ Gasteizko udalaren kultur programan egitarauan bertsolaritzaren presentzia bermatzea | - Gasteizko jaietako Aihotz plazako 5 saioak kudeatzea eta alde zaharreko txosnek gune berrian saio bat lotzea Txosnen batzordearekin elkarlanean | Bete da. 7 bertso saio egon dira. |
| **GASTEIZ BERTSOZALE** | | |
| Gasteizen bertsolaritzak dinamika propioa eduki dezan eragitea | - Jai Batzordeei, Auzo Elkarteei, euskaltegiei, Txosna komisioari, tabernei, elkarteei, mintzalagunei eskaini eta erraztu saioak antolatzeko | Bete da baina mugimendu gutxi dago. |
| Formatu ezberdinetako saioak antolatzea, Gasteizko bertsozaleak aktibatu eta Gasteiz bertsozaletzen jarraitzea. | - Bertso eskoletako ikasleentzako saioak lortu (santa eskea), Altxa Kopla Hori udaberrian eta bertso saio potente bat Jimmy Jazzen Udazkenean | Bete da. |
| Bertsolari, epaile eta gai-jartzaileentzat formakuntza gauzatzea | - Epailetza eta gai-jartzailetza ikastaroak Arabako Banakako Txapelketaren aurretik. | Bete da. |
| Gasteizen bertsogintzarekin zerikusia duena jasotzea | - Gasteizen bertsolaritzarekin zerikusi duena jaso, katalogatu (XDZrekin batera), aztertu eta ikerketarako gorde. | Bete da. |
| Gasteiz Bertsozale egitasmoa iragartzea eta hedatzea | - Komunikabide lokalak informatu, bertsozale.eus/araba web gunea eta sare sozialetan iragarri, bildutako | Bete da. |

| | | |
|---|---|---|
| | dokumentazioarekin hedapena egin komunikabideetan eta Interneten. | |
| **ARABA BERTSOZALE** | | |
| Araban bertsolaritza leku berrietara zabaldu dadin eta dinamika propioa eduki dezan eragin | - Jai Batzordeei, Auzo Elkarteei, euskaltegiei, Txosna komisioari, tabernei, elkarteei, mintzalagunei eskaini eta erraztu saioak antolatzeko. Deialdi publikoa egingo da. | Bete da baina mugimendu gutxi dago. |
| Bertsogintza aktibatzea formatu berriak sortuz eta bertsolarien arteko elkarlana eta konplizitatea landuz | - Arabar bertsolarien sorkuntza proposamenak laguntzea, bertsolariek proiektu berriak sortuko dituzte, bertsolaritza leku berrietan ezagutzera emateko emanaldi edo formatu berezien bidez. Elkarteak zabaldu eta diruz lagunduko ditu. | Bete da. |
| Saio gutxi egiten diren eskualdeetara bertsolaritza hurbiltzea eta bertako agenteak aktibatzea | - Saio gutxi dauden lekuetan saioak lotuko dira tokiko agenteekin elkarlanean. Saio mota ezberdinak ezagutzera eman eta haien esku egongo da aukeraketa eta gauzatzea. Diruz lagunduak izango dira. | Bete da. |
| Bertsogintza osasuntsu mantentzea, txapelketarik gabeko urtean ere saio formalak antolatuz eta kalitatezko plazak sortuz | - ALTXA KOPLA HORI/AERRIMATUZ edizio berri bat antolatzea. 4 saio izango dira Arabako herri ezberdinetan. Saio gutxi dituzten herriak hobetsiko dira. | Bete da. |
| Araban bertsogintzarekin zerikusia duena jasotzea | - Urteak ematen duena jaso, katalogatu (Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin batera), aztertu eta ikerketarako gorde. | Bete da. |
| Araba Bertsozale egitasmoa iragartzea eta hedatzea | - Komunikabide lokalak informatu, bertsozale.eus/araba web gunea eta sare sozialetan iragarri, bildutako | Bete da. |

| | | |
|---|---|---|
| | dokumentazioarekin hedapena egin komunikabideetan eta Interneten | |
| **2022KO ARABAKO BANAKAKO BERTSOLARI TXAPELKETA** | | |
| Bertsozale elkartea egiaztatzea | - Elkartearen proiektua ezagutzera emateko baliatu txapelketa, antolaketa eredugarria eskaini erakundeei, bertsolariei eta bertsozaleei | Bete da. |
| Txapelketaren bidez Arabako bertsolaritzarentzat oihartzuna lortzea | - Hitzarmenak eta hedapena mantendu. · Komunikabide lokalak informatu, bertsozale.eus/araba web gunea eta sare sozialetan iragarri, bildutako dokumentazioarekin hedapena egin | Bete da. |
| Parte hartzaileen motibazio lanketa eta grina sustatu. | - Lan dinamika gai jartzaile eta epaile taldeetan<br>- 30 bertsolari + ordezkoak, 12 gai jartzaile eta 9 epaile | Bete da. |
| Bertsolarien eta bertso-eskolen arteko harremana bultzatzea eta baita belaunaldi ezberdinen artekoa ere. | - AbTx22an Bertso Eskolen laguntza izatea zeregin batzuk burutuz. | Bete da. |
| Txapelketarekin zerikusia duena jasotzea | - Txapelketarekin zerikusi duena jaso, katalogatu (Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin batera), aztertu eta ikerketarako gorde. | Bete da. |
| **2023KO ARABAKO KUDRILLA ARTEKO TXAPELKETA** | | |
| Kadrilartekoa kokatzea | - 2020ko balorazio dokumentuetatik abiatuta proposamena egin | Bete da. |

| | | |
|---|---|---|
| Bertso-eskolak aktibatzea | - Bertso-eskola guztietan taldeak osatzeko ahalegina egin eta bertso-eskolen kurtso hasieran bizkortu. | Bete da. |
| Kantatuko duten taldeak zehaztea | - Izen ematea irailean izango da. Ahalegin berezia egin Errioxa eta Mendialdean taldeak ateratzeko. | Bete da |
| Antolakuntza martxan ipintzea | - Proposamena zuzendaritza batzordeari ekainean. | Bete da. |

| **KOMUNIKAZIOA** | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **Balorazioa** |
| Herrialde eta nazio mailako koordinazioa bermatu | - Komunikazio Saileko arduraduna izendatu eta zuzendaritzan bere parte hartzea bermatu<br>- EHBEko komunikazio arduradun eta teknikariarekin koordinatu | Lanean ibili da komunikazio zaileko arduraduna eta ez da bere parte hartzea bermatu. |
| Barne komunikazioa: bazkideak informatu, komunitatea trinkotu eta parte hartzeko aukera eskaini | - Batzar orokorra martxoaren 19an, emailez, albistea eta txartelarekin komunikatu<br>- Emailez, bazkideak informatu astean behin agenda, albisteak<br>- Berripapera 5 ale argitaratu (urtarrila, martxoa, ekaina, iraila, abendua). Bertso eskoletako ikasleei helarazi<br>- Sare sozialak baliatu komunitatea harremanetan jartzeko sailekin elkarlanean.<br>- "Arabako bertso X" whatsapp taldea elikatu albisteekin, agenda eta beste edukiekin | Barne Komunikazioa behar den maiztasunarekin egiten da.<br><br>Berri paperaren bidalketa antolatzeko beharra dago, nork nori bidali.<br><br>Barne orriko parte hartzea indartu behar da. |

| | | |
|---|---|---|
| | - 4na agerpen EHBEko Bertsozalea eta barne-orrian | |
| Kanpo komunikazioa: elkartearen proiektu desberdinez eta Arabako bertsolaritzaren mugimenduaz iraunkorki informatu gizartea | - Herri mailako hedabideen datu-basea eguneratu eta iraunkorki informatu<br>- Orain arteko trukeko politikak mantendu egunkari (insertoa eta bannerrak) eta irratiekin (kuñak).<br>- WEB gunean: - 50-60 albiste argitaratu eta egitura baliatu egitasmoak komunikatzeko eta dagoen informazioa eguneratuta mantendu. - 15.000 bisita eta 5.000 bisitari lortu<br>- ALEA aldizkarian 5-7 astetan behin kolaborazioa egin eta alea.eus-en gure albiste guztiak linkatu<br>- Sare sozialetan gure albisteak, gure agenda eta kanpotik interesgarriak izan daitezkeenak zabaldu: 300-340 argitalpen<br>- Egitasmo berriak, egoerara egokituz<br>- bertsoa.eus-en Arabako txapelketarako proposamena egin eta hedapenerako egokiak diren plazako saioen berri eman 10-15 saio inguru grabatzeko<br>- Periodikoki bertso agenda bidali MAILING bidez bazkideak, hedabideak, ikastetxeak eta erakundeak | Kanpo Komunikazioa modu egokian gauzatu da.<br><br>Aipatzekoa da Arabako Txapelketako finala lehen aldiz eman zela zuzenean ETB4ean. |

# BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA



## Idazkaritza eta Koordinazioa:

- Elkartearen sostenigarritasun ekonomikoa aztertu eta aterabideak atxeman.
- Eragile ezberdinekin harremanak egonkortu eta indartu. Haiekin hitzarmen ezberdinak sinatzen jarraitzeko eta berriak lortzeko.
- Bertsu Eskolak dauden herrietako Herriko Etxeetako agintariekin harremanak indartu eta posible bada hainbat hitzarmen lotu (dirulaguntzak eta saioak antolatu).

Lantaldea berrantolatzea eta indartzea

**BALORAZIOA**

- Elkartearen sostenigarritasuna ez da hain ahula gaur gaurkoz, Covid garaiko hainbat dirulaguntzek hala ahalbidetuta besteak beste.
- Diruz laguntzen gaituzten eragile nagusiekin hitzarmenak sinatu dira: EKE, Hirigune Elkargoa eta EEP. Bilkura bat finkatua da 2023.urtearen hasierako erakunde bakoitzarekin, bilana egin eta kontuak emateko.
- Herriko etxeak: Uztaritzekin bildu gira, aski ongi joan da bilkura. Baigorri eta Ortzaizeri eskatua zaie bilkura egitea.
- Lantaldea: erabat berrantolatu da lantaldea. 7 langile gaude momentuan eta giro onean gabiltza lanean.

| HEZKUNTZA | BALORAZIOA |
|---|---|
| - Dauden Bertsu eskolak indartu eta berri batzuk sortzen entseatu.<br>- Haizea Dator hiru lurraldeetan antolatu.<br>- Hezkuntza arautuan, Seaskako ikastoletan eta kolegioetan, eta adar elebidunean klaseak ematen jarraitu.<br>- Bertsu eskolen inguruko jarduerak antolatzen jarraitu.<br>- Bertsulariak Ikastoletan<br>- Bertsu Topaketak<br>- Bertsulari Ttiki Egunak<br>– Eskola Elebidunen Besta Egunak<br>– XiLaBako Gazteen Xapelgoa (eskolarteko lehiaketa) | 1- 33 bertso eskola 270 ikasle inguru. Balorazio positiboa.<br>2- Proiektua arrakastatsua da eta hasierako helburu guztiak betetzen ditu<br>3- Aurreko urteetako kopuru berdintsuetan gabiltza, hezkuntza arautuko proiektua egonkorra eta iraunkorra da. Arrakastatsua ere dela esan daiteke.<br>4- Bertsolariak ikastoletarak erregularki antolatzeko zailtasunak, Haizea Dator sortu zenetik plazak eskeintzeko beste manera bat nagusitu zaigulako, irakasleei irisgarritasuna beti ez baita bermatzen ahal eta azkenik, ez baitaukagu aski ikasle bi proiektuetan |

| | |
|---|---|
| – Bertsu Eskolen Eguna<br>– Euskal Herri mailako Eskolarteko lehiaketa. | kantatzeko. Hala ere puntualki bertsolariak ikastoletarat eraman ditugu eta eramanen. Indartu nahi genuke proiektu hau.<br>5- Lau bertso topaketa, hiru adin tarte desberdinentzat. Parte hartze masiboari aurre egiteko prest<br>6- Azken urteen moduan, hiru herri lau bertsolari txiki, ikastola guztietako haurrak errezibitzeko gisan.<br>7- Parte hartzea zenbatekoa izango den ez dakigu oraindik. Bi kanporaketa eta finala aurreikusiak dira.<br>8- Bi lapurtar bermatuko ditugun arren, Baxe Nafarren bat igoartzeko urtea ere izan daiteke aurtengoa (haiek nahi izanez gero noski). Xiberutarrik ez dugu igorriko., |

| SUSTAPENA | BALORAZIOA |
|---|---|
| - Bertsularitzaren eta Bertsu saioen sustapena.<br>- Hernandorena Bertso Sariketa antolatu.<br>- Helduen Bertsu Eskolak bultzatu.<br>- Saioen antolaketa.<br>- Hezkuntzarekin elkarlana. | - Diruz 22 saio lagundu genituen. Herriko etxe batzuekin elkarlanean ere antolatzea bultzatu zen. Hobetzerik bada ere hoberako bidean goaz eta beraz balorazio positiboa egiten da.<br>- Hernandorena sariketako 3 saio antolatu genituen. 12 bertsolari gazte (16-22) eta IEHko 4. Finalean 40 bat entzule. Halere gora beheratsua, Xiberun entzule oso gutxi. Lantzeko eremua dugula badakigu!<br>- Hernandorenaz aparte 3 saio antolatu genituen. Erregularki antolatzen ditugu orain. Poliki baina seguru, bide onean.<br>- Hobetzeko asko dago baina bide onean. Bertsolari gazteei lekua egiten baitiegu elkarrekin |

| KOMUNIKAZIOA | BALORAZIOA |
| --- | --- |
| - Hedapenean eta Komunikazioan indar berezi bat egin.<br><br>- Punttuka irrati saioarekin jarraitu (Euskal Irratien hitzarmenaren barnean) | - Komunikazioan sare sozialak indartu dira: twitter, facebook eta instagram. Webgunea eguneratuta egon da.<br>- Hedapenean bada zer hobeturik.<br>- Punttuka irratsaioaren balorazioa oso ona da. Elkarte kanpotik ere oihartzun onak jaso ditiugu. Jarraipena eman beharko litzaioke honi. |

| IKERKUNTZA | BALORAZIOA |
| --- | --- |
| - Saioen grabaketak eta bilketak egiten jarraitu. | - Saio asko grabatzen da baina grabatu gabe ere asko gelditzen dira. Grabadora(berria erosi dugu) ez diogu edonori uzten. Euskal irratiekin dugun elkarlanean badago trukaketa hori. |

# BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA



| Urterako helburuak | BALORAZIOA |
| --- | --- |
| Misioa: Bertsolaritzaren ekosistema osoa, eremuz eremu etengabe zaintzeko, elikatzeko eta garatzeko bideak edota baliabideak eskaintzea eta egikaritzea, lekuan lekuko errealitateari erreparatuz.<br>Urteko helburua: Elkartearen misioa lortzea helburu duen proiektu konpartitua elkarlanean eraikitzen jarraitzeko pandemiaren eraginez ahuldu diren eremu edota lan arloak berrindartu. | |

| IDAZKARITZA | | |
| --- | --- | --- |
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| • **ZB – edukiak eta prozedurak eraginkortu**, bereziki, arlo hauetan:<br>o Gai estrategikoak<br>o Azpi batzordeen funtzioak<br>o Kide berria | - Gai estrategikoak landu: estrategikoak zerrendatu, eta batzar bakoitzean “lantzekoak” atalean, pare bat gai.<br>- Azpibatzordeei helburua jarri, aktibatzeko, motibatzeko, kohesiorako.<br>- Kide berriak. Beharrak identifikatu, pertsona egokiak izendatu. Harrera plana diseinatu | - Gai estrategikoen lanketa: batzarretako deialdian, aurreikusi moduan egin dira. **Bete da.**<br>- Azpibatzorde batzuk martxan eta beste batzuk ez. **Erdizka**<br>- Kide berriak izendatu dira. Harrera informazioa diseinatu bezala eman zaie. **Bete da.** |
| • **Bideragarritasun ekonomikoa lortu** | - BFArekin finantzazio aukerak landu<br>- Publizitatea bidean sakondu.<br>- Hezkuntza Arautuko tarifak errebisatu<br>- Transmisio sailetik beste negozio bide batzuk aztertu.<br>- Sarrera eta gastuen kontrol zorrotza eraman. Likidezia falta egoerak saihestu. | - Batzarrak egin dira, nahiz eta ez den aparteko emaitzarik lortu. **Egin da.**<br>- Ez egitea pentsatu da. **Ez da egin**<br>- HA-ko tarifak errebisatu eta igo dira. **Egin da**.<br>- **Ez da egin**.<br>- Kontrola eraman da, eta ez da arazorik egon. **Egin da**. |

| | | |
|---|---|---|
| • **Lan taldea eta proiektuaren arteko lotura bermatu** | - Urteko egitasmoa modu konpartituan adostu (lan-taldea eta ZB)<br>- Komunikazio kanal egokiak bermatu, bai erabaki guneetatik eta baita erabaki guneetara ere | - Lan taldeak landu zuen hasierako proposamena, eta ostean zuzendaritzan osatu zen. **Egin da**<br>- Egiten da, baina ez modu konsziente eta jarraituan. **Erdizka** |
| • **Egitura berriaren etengabeko behaketa egin** | - Egitura berriaren eraginkortasuna neurtu eta erreleboa egin. | - Aztertu da, eta erreleboa eman da. **Egin da**. |
| • **Langileen etengabeko formazioa sustatu**:<br>o lehentasunak zehaztu<br>o formazioa egin | • Mintegiak erabili etengabeko formaziorako bide moduan<br>• Batzorde pedagogokoak markatzen duen norabidean lan egitea<br>o Formazio gogoetatsua sistematizatzea<br>o Bikote pedagogikoak sortzea<br>• Talde osoko mintegiak erabili zeharkako gaiak lantzeko. | **Egin da**<br>- Mintegiak erabili dira egitasmoaren lanketarako batetik, eta batzorde pedagogikoak finkatutako bidea lantzeko. |

| HEZKUNTZA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| • Asteroko mintegiak<br>o Proiektuen antolaketa lanak eraginkortzea, bilera kopuruak eta lanen banaketak orekatuz | - Proiektuekin lotuta:<br>Ikasturte hasieran proiektuak eta mintegiak irakasleen artean banatzea. Eta mintegiak erabakitakoaren arabera antolatzea<br>- Arlo pedagogikoa: formazio gogoetatsuan oinarritutako mintegiak | - Mintegiak modu orekatuan banatu dira, eta lan-taldea proiketuetan banatu da. **Egin da.**<br>- Arlo pedagogikoa **landu da**. Pedagogia batzordean parte hartu da, Huheziko formazioarekin jarraitu da. |

| | | |
|---|---|---|
| o Mintegiak irakasleen behar pedagogikoak asetzen laguntzea (formazio atalean) | | |
| • Irakasleentzako lan tresnak egokiak eta eguneratuak izatea. | - Material berria baloratzea<br>- Sortzen dugun eta funtzionatzen digun materiala eta dinamikak modu zuzenean partekatzea.<br>- Irakasle koadernoa errebisatu eta drivera igotzea.<br>- Irakasle berri bat datorrenean, irakasle koadernoa ematea. | - **Erdizka bete da**. Irakasle koadernoa eguneratu da, eta irakasle berriei azaldu zaie. Funtzionatzen den materialren balorazioa eta partekatze lan ordenatua ez da egin. |
| • Irakasleen orduen banaketa eraginkortu | • HAko lanaldiak ahalik eta hobekien osatu<br>• HAko orduen banaketa eragiletzari lotuta egin (eraginkortasuna handitu eta kostuak jaitsi)<br>• Bizkaiko mapa berpentsatzen hastea<br>• Orduen galerari erantzuteko irizpideak adostea | - **Egin da**<br>- **Egin da**<br>- Pausuak eman dira. **Egin da**<br>- **Egin da** |

| **IKERKUNTZA** | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| • **Bilketa lana sustatu**. | - Saio eta bestelako ekitaldiei buruzko informazioa, grabazioak eta bestelako euskarriak jaso eta Xenpelarrera bidali.<br>o Eskualde bakoitzean eragin, grabatzaileak bilatzeko<br>- Jasotakoa Xenpelarrera helarazi | - Erdizka, modu ordenatuan ez. **Erdizka**<br>- Jasotakoa bidali da. **Egin da.** |

| SUSTAPENA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| **Gai-jartzailetza eta epailetza sustatu** (aurkezletza, baloraziooa…) | - Gai-jartzaile eta epaile taldeen koordinazio sustatu | - Lanketa egin da, baina emaitza gutxi lortu da, ez da urte ona. **Egin da**. |
| • **Txapelketa BBT 20-21 balorazioa egitea.** | - Txapelketaren balorazioa egin.<br>- Lantzeko eta hobetzeko gaiak identifikatu eta bidea ematea. | - Balorazio galdetegiak parte hartzaileekin eta emaitzen analiia talde antolatzaileak. **Egin da**<br>- BBT23 diseinatzeko kontuan hartu dira baloraziokoak. **Egin da** |
| • **Bizkaiko Taldekakoa egitea** | - Bizkaiko taldekakoaren hirugarren edizioa diseinatu eta egitea | - Taldekoakoa egin da 2022an, balorazio ona. **Egin da.** |

| KOMUNIKAZIOA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| **Kanpo komunikazioa modu koordinatuan landu** | - Zer komunikatu gura dugun landu, eta informazio bakoitza ze bidetatik emango den definitu:<br>o Web guneko albisteak<br>o Bazkideei epostaz<br>- Bertsozalea eta barne-orria | - Erdizka. Informazioa ematen da, baina ez da landu zer eta zelan komunikatu gura den. **Erdizka**.<br>- Bizkaiari buruzko informazioa eman da. **Egin da**. |

# GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA



| Urterako helburuak | BALORAZIOA |
|---|---|
| Urtez urteko proiektua egonkortuta dugunez 2022ko helburu nagusia Gipuzkoako bertso mugimenduan dauden hutsuneak identifikatzea izango da. Horretarako Zuzendaritza Batzordean gai estrategikoak landu nahi genituzke, eta datozen urteetarako lan ildoak markatu. | 2022rako jarritako helburu orokorrak bete ditugu. Azken urteetan hezkuntza arautuko proiektuaren kalitatean eragiten aritu gara burubelarri, eta aurten hutsune nabarmenena bertso eskoletan dugula ikusi eta horri erantzuteko hainbat erabaki hartu ditugu lantaldean zein zuzendaritzan. |

| IDAZKARITZA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| **Zuzendaritza:** behin talde berria eta funtzionamendua egonkortuta ildo estrategikoen gaineko gogoetarako gune bilakatzea. | - Egun ditugun hutsuneak identifikatu eta horien gaineko bilera monografikoak egin izana ondoren lehentasunak jarriz. | - Bilera monografikorik egin ez dugun arren ditugun hutsuneak zeintzuk diren garbi ikusi dugu eta Zuzendaritzan hutsune horien gainean gogoeta egin ondoren lehentasunak eta bitartekoak jarri ditugu. |
| **Lan taldea:**<br>-Irakasleen lanaldiak berraztertzea: Talde kopurua eta ikerkuntza/formakuntzarako orduen azkerteka.<br>-Bulegoko lankideen berrantolaketa: hezkuntza saileko lan banaketa. | - LEB-ak jasotzen dituen ordu kopuruekin kalkulu ekonomikoak atera, formaziorako behar dituzten orduen azterketa egin eta zuzendaritzara proposamen bat eraman izana.<br>- Hezkuntza eragilea %100 Gipuzkoara itzulita lan banaketa berria egin izana. | - Irakasle bakoitzaren talde kopurua LEBak dioenera ekarri dugu, beraz, irakasle bakoitzak gehienez 46 talderekin hasi du ikasturte berria. Horretaz gain, lanaldi barruan bertso eskolekiko egin beharreko lanak zeintzuk diren zehaztu eta adostu dugu.<br>- Lantaldearekin eta Zuzendaritza Batzordearekin epe ertainerako estrategia landu eta horren |

| | | |
|---|---|---|
| | | araberako berrantolaketa proposamena egin dugu. |
| **Finantzak:**<br>- Aurrekontuaren eta diruzaintza planaren jarraipena egin eta behar diren erabakiak hartzea. | - Aurrekontuari eta diruzaintza planari ohiko jarraipena egin izana. | - Aurrekontuari eta diruzaintza planari behar bezalako jarraipena egin zaio. |

| **HEZKUNTZA** | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| **Hezkuntza arautua**<br>- **Ohiko proiektuarekin jarraitu**: ikastetxeetan bertsolaritzako klaseak eman, jaialdiak gauzatu, Bertsometa…<br>- **Hezkuntza berrikuntzan** sakondu:<br>1. **Ikerketa**: metodo didaktikoan sakonduko duen ikerketa egiten jarraitu, ikerketa akademikoan zein ikerketa txikiagoetan (ebaluazioa).<br>2. **Formazioa**: irakasleen formazio gogoetatsuan sakondu. HUHEZIn prestatzaile izateko prestatu; autokonfrontazio saioak egin, hiru | - Ohiko martxarekin jarraitu den edo gorabeherarik izan den.<br>- Ikerketa akademikoa gauzatzeko modurik izan den.<br>- Ebaluaziorako bitartekoak jarri diren eta gauzatu den.<br>- Autokonfrontazio saioak egin ditugun. Eta horretarako prestatzaileak prestatu diren.<br>- Materialgintza beharrei erantzun zaien.<br>- Proiektuaren dibertsifikaziorako plangintza osatu den.<br>- Ikastetxeetako bertsolarien bisitak sistematizatu ote diren. | - Ohiko martxari heldu diogu hezkuntza arautuan. Gainera, ikasturte berrian bi ikastetxe berri ere batu dira proiektura.<br>- Ikerketa: martxan dago. HUHEZIko tutoretzarekin ari gara lanean. "Irkasleen oinarrizko praktikak bertsolaritzaren irakaskuntzan" izango da gai nagusia. Aurrez, ordea, orain arteko metodo didaktiko guztien analisia egingo da.<br>- Ebaluazio galdetegi berritua pasa genuen proiektuan parte hartzen duten eskoletara. Galdetegi horren bidez berrikuntza pedagogikoaren eta jaialdi formatu berriaren balorazioak jaso ahal izan ditugu. 100etik gora eskolak erantzun dute galdetegia. |

| | | |
|---|---|---|
| urtean irakasle guztiak pasatzeko plangintzarekin.<br>3. **Materialgintza**: materialgintza beharrei erantzun.<br>- **Proiektuaren dibertsifikazioan** zer egin daitekeen aztertu.<br>- **Ikastetxeetako bertsolarien bisitak orokortzea eta sistematizatzea.** | | - Autokonfrontazio saioak egiten ari dira lau irakasle HUHEZIn. Horrez gain, bi irakasle-prestatzaile ari dira horretarako prestatzen HUHEZIn. 2023an ere jarraipena izango du honek. 2024an guztiek bideoak ikusita izatea aurreikusten da.<br>- Materialgintza beharrei erantzun zaie. Bai material orokorra sortzerakoan eta baita mintegian atera diren proposamenak lantzerakoan ere.<br>- Proiektuaren dibertsifikaziorako bi proposamen egin ziren urte hasieran: jubilatuen bertso eskolena eta DBHn bertsolaritza lantzeko proiektuarena. DBH-n proba pilotu bat jarri dugu martxan Eibarren DBH1.mailako 10 talderekin. Proiektu komunitario gisa aurkeztu genuen udalean eta eskolan eta horrekin hasiak gara.<br>- Motibazio saioak ikasturte berrian eskola guztietan egingo ditugu izan urte hasieran, ikasturtean zehar edo ekainean. Donostian hiri mailan antolatzen ditugu saioak, horregatik ez da egingo eskola bakoitzean saio bat. Honekin batera bertsolariei ordaintzen zaien tarifa berrikusi eta Lankuko C tarifa ordaintzea erabaki dugu. Hau jarraipen batzordeetan landu beharko da udalekin eta |

| | | |
|---|---|---|
| | | eskolekin, izan ere, aurrekontuetan eragina izango du. |
| **Bertso eskolak**<br>- Bertso eskolekin izan behar dugun harremanaren gaineko gogoeta egitea.<br>- Bertso eskolen egiturak antolatzeko behar duten laguntza ematea.<br>- Behar den lekuetan bertso eskoletako irakasleak aurkitu eta materiala eskaintzea.<br>- Ez dagoen lekuetan bertso eskola sustatzea.<br>- Bitartekaritza eta administrazioarekin harremana.<br>- Bailaraz bailarako bertso eskolen mugimenduari jarraipena egitea. | - Bertso eskolekiko izan behar genukeen harremana Zuzendaritzan landu izana.<br>- Bertso eskolek antolakuntza mailan dituzten zalantzei erantzun izana.<br>- Irakasleak aurkitu izana eta denei materiala helarazi izana.<br>- Bertso eskolarik non ez den identifikatu eta aukerak aztertu izana.<br>- Irakasleen kontratazioan bitartekari lanak egin izana eta behar den lekuetan udalekin harremanak egin izana.<br>- Bailaretako eragiletza lan taldean jarraipena egin izana. | - Bertso eskolen gaia ildo batetik edo bestetik zuzendaritzako ia bilera denetan atera da. Hauekin izan behar genukeen harremana zehaztea zaila den arren argi dago datozen urteetako erronka bertso eskolen eragiletzan egongo dela, eta horretarako baliabideak jartzea erabaki da.<br>- Bertso eskoletatik etorri diren zalantza denei erantzun zaie.<br>- Irakaslerik ez den lekuetarako irakasleak aurkitu dira ia kasu gehienetan.<br>- Bertso eskolarik ez zen lekuan motibazio saioak egin eta talde berriak sortu dira: Mendaro, Mutriku, Soraluze, Donostia, Errezil… |

| | | |
|---|---|---|
| | | - Bertso eskolak emateko 16 irakasle kontratatu dira.<br>- Hutsune handiena genuen bailaretarako 3 irakasleri lanaldian sartu zaie bertso eskoletako eragiletza lana eta gutxieneko lanak egin dira leku denetan. |
| **Aisialdia**<br>Lehentasunak markatu eta adin ezberdinetakoentzat aisialdi ekintzak antolatzea. | - Aisialdirako lan taldearen lana iraunkortu izana.<br>- 14 urtez azpikoentzat bertso eskolen egunak antolatu izana.<br>- 14 urterik gorakoentzat asteburu pasa antolatu izana. | - Aisialdiko ekintzak antolatzeko lantaldea osatu da.<br>- Bertso eskolen egunak antolatu dira bailaraka: Debagoienan, Urolan, Urola Kostan, Buruntzaldean, Tolosaldean eta Goierrin.<br>- 14 urtetik gorako gazteekin asteburu pasa egin da Lasturren Eskolarteko finalari jarraipena emanez. |

| IKERKUNTZA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| Hezkuntzako ikerketa beharrei erantzun. | - Hezkuntzako atalean jarri ditugunak. | - Hezkuntzako atalean jarri dugu. |
| **Datu bilketa:** hezkuntza arautuko eta bertso eskoletako datuak jasotzea. | - Datu guztiak bildu izana. | - Hezkuntza arautuko eta bertso eskoletako datu guztiak bildu ditugu. |
| **Saioen bilketa:**<br>- Antolatzen ditugun saioen bilketa egitea. | - Gure saioetako grabazioak eta argazkiak Xenpelarrera eraman izana.<br>- Bertso eskoletatik materiala jaso izana. | - Elkartetik antolatutako saio guztien bilketa egin dugu: bideoa, audioa, argazkiak eta bertsoaldien fitxa.<br>- Ez gara iristi bertso eskola askotako bilketa jasotzera. Hurbilekoak direnak soilik jaso ditugu: Erniarraitz eta Harituz. |

| | | |
|---|---|---|
| - Bertso eskolak saioen bilketa egitera bultzatzea.<br>- Agenda elikatzea. | - Jasotzen dugun saioen informazioa Xenpelarrera bidali izana. | - Plazaren azterketan lanean ari den teknikariarekin batera bestela jasoko ez genituzken hainbat grabazio jaso ditugu agendatik tiratuta. Honi jarraipena ematea litzateke egokiena, baina, ez dugu egin. |
| Hezkuntzako ikerketa beharrei erantzun. | - Hezkuntzako atalean jarri ditugunak. | - Hezkuntzako atalean jarri dugu. |

| SUSTAPENA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| **Txapelketa Nagusia:**<br>- Gipuzkoako saioak antolatu EHBE-rekin batera.<br>- Gai jartzaileak bideratu.<br>- Epaileak bideratu. | - Gipuzkoari dagozkion saioak antolatu izana.<br>- Epaile eta gai jartzaile beharrei erantzun izana. | - Txapelketa Nagusiko 3 saioren antolakuntzan aritu gara: Arrasate, Donostia eta Irun.<br>- Gai jartzaileak eta epaileak behar bezala bideratu dira Txapelketa Nagusirako. |
| **Eskolartekoa:** bat-bateko txapelketa antolatzea. | - Eskolartekoa antolatu izana. | - Eskolarteko Txapelketa antolatu dugu Ikastolen Elkartearekin elkarlanean. Gu bapatekoaz arduratu gara eta guztira lau saio antolatu ditugu: 3 kanporaketa Oñatin, Lizartzan eta Azpeitian, eta finala Lasturren. |

| | | |
|---|---|---|
| **Plazaratzea:**<br>- 14 urtera artekoen plazaratzea bultzatzea.<br>- Plazaratze moduen gaineko gogoeta egitea. | - Eskolarteko adinera iritsi aurretik gaztetxoei jendaurrean trebatzeko guneak eskaini izana.<br>- Plazaratzeko dauden moduak aztertu eta ditugun hutsuneak identifikatu izana Zuzendaritzan. | - 2021-2022 ikasturtean bertso eskolen egunak antolatu ditugu bailaraka, eta egun hauetan eskaini zaie gaztetxoei jendaurrean kantatzeko aukera.<br>- Ikasturte berrira begira bertso eskolak elikatzeko planaren barruan ESKOLATIK PLAZARA izeneko ekimen bat diseinatu dugu. Eskualdeka 14 urtez azpikoen bapateko lehiaketa egingo da tokian tokiko bertso eskolekin elkarlanean antolatuta. |
| **Epaile taldea:**<br>- Epaile eskolaren jarraipena egitea.<br>- Trebatzeko aukerak eskaintzea.<br>- Txapelketa Nagusirako jarraipena egitea. | - Epaile eskolan Gipuzkoako epaileen parte hartzea bermatu izana eta jarraipena egin izana.<br>- Epaile taldeko kideei han hemenka sortzen diren aukerak eskaintzea: sariketetan. | - Epaile eskolako bi saiotan hartu dugu parte.<br>- Aukera izan den sariketetara Gipuzkoako epaile taldeko kideak bideratu ditugu. |
| **Gai jartzailetza:**<br>- Txapelketa Nagusirako aukeraketa eta jarraipena egitea.<br>- Trebatzeko aukerak eskaintzea.<br>- Gai jartzaile berrien trebakuntza. | - Txapelketa Nagusirako 3 gai jartzaile aukeratu izana eta hauen jarraipena egin izana.<br>- Gai jartzaile berriekin iaz hasi genuen trebakuntzari jarraipena eman izana.<br>- Gai jartzaileei han hemenka sortzen diren aukerak eskaini izana: sariketak, plazako saioak… | - Txapelketa Nagusirako 3 gai jartzaile proposatu ditugu.<br>- Gai jartzaile berriekin formazio saio bat egin dugu eta ondoren sariketa baterako gaiak prestatu ditugu. Sariketa aurkezteko aukera ere izan dute. |

| KOMUNIKAZIOA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| **Barne komunikazioa**<br>- Gure informazioa behar den guneetara eramatea.<br>- Beste guneetatik gureetara informazioa ekartzea.<br>- Barne komunikaziorako ditugun tresnak baliatzea. | - Parte hartzen dugun batzordeetan informazio orriak bete izana.<br>- Zuzendaritzara eta lan taldera behar den informazioa iritsi izana.<br>- Barne orria edukiz hornitu izana. | - Parte hartu dugun batzorde guztietan bete dugu Gipuzkoaro dagokion informazio atala.<br>- Zuzendaritzako bilera bakoitzeko gai ordenarekin batera hilabete horretako informazio orria bidali dugu.<br>- Lantaldera behar den informazioa eraman dugu.<br>- Barne orria ez dugu uste behar bezainbeste baliatu dugunik.<br>- |
| **Kanpo komunikazioa**<br>- Izan behar luken garrantzia eman eta bitartekoak jartzea.<br>- Gure ekimenen berri ematea. | - Langileen dedikazioetan komunikaziorako orduak jarri izana.<br>- Sare sozialei erabilera handiagoa eman izana: gure ekimenak hedatuz eta bertso eskolen ekimenak hedatuz.<br>- Gure ekimen guztien berri webgunean jarri izana. | - Urtarriletik uztaileka %20ko lanaldi bat jarri dugu komunikaziorako eta izugarrizko astindua eman diegu sare sozialei. Irailean ordea lankide horrek taldea utzita berriz ere hankamotz geratu zaigu atal hau.<br>- Gure ekimenen berri eman dugu webgunean. |

| | | |
|---|---|---|
| - Bertso eskolen ekimenen hedapenean laguntzea. | | |
| **Kanpo harremanak**<br>- Ikastetxeekin eta erakundeekin harremanak zaintzea. | - Ikastetxeen eta udalen zalantzei erantzun izana. | - Udaletatik eta eskoletatik etorri diren dei eta email guztiak erantzun dira. |

# NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA



| Urterako helburuak | BALORAZIOA |
| --- | --- |
| - Lan-talde barruko ardurak, funtzionamendua eta lanaldiak eraginkortu.<br>- Egitasmo osoaren neurtze eta jarraipen ekonomikoa hobetu<br>- Hezkuntza proiektuen hedapena eta kalitatea hobetu<br>- Ikerkuntza arloa baliabidez hornitu<br>- Bertsolaritzak Nafarroan duen prestigio soziala hobetzen joan: BTN22-ko finalak eskaintzen duen posizionamendua baliatu | - Bulegoko lanen banaketa ongi zehaztua dago, baina lan-talde osoaren funtzionamendua eta erabakiguneen argitzea hobetu behar da.<br>- Hezkuntzako atala neurtu da, baina egitasmo orokorra ez.<br>- Pedagogia berrikuntzaren arloan urratsak ematen ari dira; hedapena giza baliabideek baldintzatua da.<br>- Lehen aldiz ikerkuntza lerro propio gisa landu da, hitzarmen baten bitartez, baina oraindik urratsak eman behar.<br>- Urratsak eman dira; BTN22ko finala Nafarroan egiteak erakunde eta eragile askorekiko elkarlan eta harreman berrietarako aukera ireki du |

| IDAZKARITZA | | |
| --- | --- | --- |
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| Lan-taldearen funtzionamendua eraginkortu eta hobetu | 1. Eragileen arteko koordinazio modua argitu eta praktikan jarri.<br>2. Ikasturteko plangintza egin.<br>3. Lantaldearen barruko koordinazioa indartzea: bileren dinamizazioa landu, eraginkortasuna bermatzeko. Ikasturteko plangintza oinarri hartuz, bileren antolaketa kronologikoa diseinatzea. | 1. Eragileen koordinazioa egon badago baina ez dago sistematizatua edo antolatua.<br>2. Ikasturteko egutegia egin zen, baina plangintzarik bere horretan ez.<br>3. Koordinazio bileretan denok parte hartzeko aurrerapausuak eman dira. Bileren eraginkortasunean oraindik bada zer hobetua.<br>4. Argitu eta adostu zen. |

| | | |
|---|---|---|
| | 4. Irakasleen lanaldien argipena. | |
| Diruzaintza lanean sakondu | 1.2022.urteko diruzaintza plana bi hilabetero (ahal balitz hilabetero) eguneratu.<br>2. Maileguen itzulketa planifikatu eta ahal den neurrian exekutatu. | 1. Ez da egin, baina likidezia bermatu da.<br>2. Maileguen itzulketa planifikatu eta adostu da, eta hasi gara batzuk bueltatzen. |
| Aurrekontuaren egitura eta jarraipena landu | 1. Egitasmoaren neurketa ekonomikoan sakondu, proiektuz proiektu; lanaldien sailkako dedikazioa neurtu.<br>2. Diru-laguntzen proiektuak birpentsatu eta diru-laguntza berriak aztertu.<br>3. Aurrekontuaren exekuzioa urtean zehar jarraitu (3 hilabetero)<br>4.Aurrekontuaren hezurdura bateratu, Euskal Herri mailan.<br>5. Administrazioko programa informatiko berriareki hasteko egokitzapenak egin. | 1. Aldaketa batzuk egin dira, baina ez dira nahikoa egitasmo osoaren neurketa egiteko.<br>2. Ez da egin.<br>3. Ez da egin, administrazio software berriak lana atzeratu duelako.<br>4. Egin da.<br>5. Zailtasun handiak eragin ditu programa informatiko berriak. Hasi gara lan batzuk software honen bitartez egiten. |
| Instituzioekiko interlokuzioa mantentzea eta sakontzea. | 1. Instituzioekiko interlokuzio ona mantentzea eta hitzarmenen berrikuspenean/egokitzean jarraitzea.<br>2. BTN22ko finalaren aukera baliatu instituzio eta sail gehiagotara iristeko, eta gure posizionamendua hobetzeko.<br>3. Nafarroako Gobernuaren Kultur Departamentuaren Musikaren, Dantzaren eta Ahozko Adierazpide Herrikoien Mahaian parte hartzea.<br>4. Elkartearen aurkezpen karta banatzea, gure | 1. Interlokuzio ona mantendu da; Euskarabidearekin hitzarmen berri bat lortu da Ikerkuntza atalerako; udalekin Hezkuntza arlorako hitzarmenak berritu dira tarifak eguneratuz; Hezkuntza Departamentuarekin hitzarmenerako funtzionamendu berria adostu da<br>2. Urratsa handiak eman dira arlo honetan, instituzio berriekiko: Nicdo, NUP, Osasuna, Euskarabidea…<br>3. Parte hartu zen, baina hortik ateratako konklusioak ikusteke daude oraindik.<br>4. Gutxi batzuk banatu dira. |

| | | |
|---|---|---|
| | egitasmoa ezagutarazteko. | |
| Zuzendaritza egonkortzea eta funtzioak argitzea. | 1. Parte-hartze prozesutik abiatuta, zuzendaritzaren zeregina fintzeko neurriak indarrean jartzea.<br>2. Lehendakaritzarako erreleboa prestatzea.<br>3. Ardura partekatzeko pausoak ematea. | 1. Landu zen, baina oraindik indartzeke dago zuzendaritzaren erabakimena eta funtzioen argitzea.<br>2. Hasi gara lehendakaritzarako erreleboa prestatzen.<br>3. Orohar, eragileak segitzen du zuzendaritzaren pisua eta ardura eramaten. |

| **HEZKUNTZA** | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| 1. Hezkuntza arautuko eskaintza egonkortu eta hedatzeko aukerak aztertu.<br>2. Hezkuntza arautuko programaren kalitatea hobetu, ikuspegi pedagogikotik | 1.1. Programaren neurketa ekonomikoa egitea.<br>1.2. Udalez-udal programaren finantziazioa zenbatekoa den aztertu, ikuspegi orokor bat izateko eta Hezkuntza Sailaren eta Udalen arteko finantziazioa argitzeko.<br>1.3. Programaren hedadurari eutsi eta hedatzeko aukerak aztertu<br>1.4. Ikastetxeetako irakasle "arruntek" bertsolaritzaren oinarrizko edukiak jasotzeko formazio aukerak aztertu (A ereduko, D ereduko eta DBH-ko irakasleen formazioa baloratu).<br>1.5. Ikasturte berria denboraz planifikatu. | 1. Saiakera egin zen eta Administrazio Batzordean ere landu zen, baina oraindik ez dago emaitzarik.<br>2. Azterketa egin da; orain hortik ateratako ondorioak inplementatzea falta da, finantziazioa orekatzeko.<br>3. Hedadurari eutsi zaio, eta talde berriren bat ere sortu da (Abarzuza, Saldias...)<br>4. Ikastaroa eman zuen Eneko Fernandezek urtarrilean-otsailean, Lesakako Irain eskola publikoan, eta hortik proiektu bat jarri da martxan ikastetxean. Material berria ere sortu da honen harira. |

| | | |
|---|---|---|
| | 3.1 Pedagogia berritzeko prozesuan jarraitu, eta irakasle taldearekin partekatu.<br>3.2 Irakasle taldea berrikuntza pedagogikorako prozesuan inplikatu. | 5. Hasi gara tarte gehiagorekin prestatzen eta aurreratzen. Horrek asko laguntzen du.<br>6. Egin da, eta irakasle taldeko irakasle batek hartu du arlo horren lidergoa.<br>7. Irakasle talde osoak hartzen du parte pedagogia berrikuntzarako prozesuan. Egiten duten hori proiektu bateratuan txertatzea falta zaie. |
| Bertso-eskolen sarea egonkortu eta hobetu | 1.1. Bertso Eskolen Sarearen eskaintzaren hedadurari eustea, eta talde berriak osatzeko aukerak aztertu.<br>1.2. Ikasleen eta taldeen jarraikortasuna bermatzeko neurriak hartu:<br>• Azken urtetako beheranzko bilakaeraaztertu<br>• BEk herri mailakoak izan daitezen saiatu (ikastetxekoak beharrean)<br>• Adin eta herri ezberdinak elkartu<br>1.3. Nafarroako bertsolari gazteentzako sakontze bertso eskola martxan jarri<br>1.4. Bertso-eskolen gogoetari jarraipena eman, bereziki, helduen bertso eskolen egoera aztertuz.<br>1.5. Programaren neurketa ekonomikoa egin eta udalei bidalitako aurrekontuak bateratzen saiatu. | 1. Iazko bolumenari gutxi gora behera eusten zaio, baina joera orokorra beheranzkoa da azken urteetan.<br>2. Beheranzko bilakaeraren inguruan gogoetatu da, baina ez da neurri bereizirik ezarri; Bertso Eskolak herri/auzoan sor daitezen apustuari eusten diogu, ahal den neurrian; adin eta herri ezberdinak elkartzen saiatzen gara ahal den neurrian.<br>3. Aukera baloratu zen, baina ez da martxan jarri.<br>4. Gogoetan ateratako ondorioei eusten diegu, baina ez zaio jarraipena eman, eta ez da Helduen Bertso Eskolen gaia propioki landu.<br>5. Tarifak eguneratu ziren. Oraindik anabasa handia dago udalen finantziazioa argitzeari dagokionez.<br>6. Aurten asko murriztu da kanpo irakasleen kopurua, eta beraz ez da neurri zehatzik jarri.<br>7. Ahal den neurrian saiatu gara, eta irizpidea argi dugu. Batzuetan lanaldiengatik ez da erraza. |

| | | |
|---|---|---|
| | 1.6. Kanpo-irakasleekin harremana sakondu.<br>1.7. Eremu batean Hezkuntza Arautuko eta Bertso Eskolako irakaslea berdina izan dadin ahalegindu.<br>1.8. Bertso Eskolen Komunikazioa eta matrikulazio kanpaina hobetu | 8. Komunikazioan minimoak bermatzen dira matrikulazio kanpaina datorrenean, baina asko dago oraindik arlo honetan lantzeko. |
| Aisialdiko jarduera osagarriak antolatu,gazteen arteko harremanak bultzatzeko | 1. Aisialdi egitasmoen azterketa egin: funtzioak, helburuak, eskaintza…<br>2. Bertso Eskolen Eguna, egonaldi gisara (asteburu osokoa). 2021eko Negulekuen truke eskainiko da, Eskolartekoarekin batera.<br>3. Negulekuak 2022.<br>4. Nafarroako bertsolari gazteen egonaldia, Izeta Sariketarekin batera.<br>5. Aisialdi egitasmoen finantziazioa berrikusi (diru-laguntzak, eta abar…) | 1. Ez da egin.<br>2. Egin zen, eta oso ongi baloratu zen. Hala ere, aurrerantzean berriz ere Eskolartekoa eta Bertso Eskolen Eguna bereiztea baloratu zen, espazioak ezberdintzearren.<br>3. Egin ziren, bi txandetan (LH eta DBH), eta oso ongi baloratu zen. DBHko txandan izen ematea nahiko justua izan zen. Irakasleek ardura handiagoa hartu dute aurten Negulekuen diseinuan eta antolaketan.<br>4. Eskaini zitzaien, eta eskertu zuten.<br>5. Ez da behar bezala aztertu, edo aztertu direnetan ez da aukerarik ikusi. |

| **IKERKUNTZA** | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| Bertsolaritzak Nafarroan uzten duen ondarea jasotzea eta gordetzea. | 1. Bertso saioetako argazki, audio eta bideoak jaso eta dokumentatzea.<br>2. Bilketarako baliabideak hobetzea, | 1. Jaso da, lehen aldiz modu antolatu eta inbentariatu batean (Euskarabidearekiko hitzarmena zegoelako) |

| | | |
|---|---|---|
| | Euskarabidearen hitzarmenaren ondorioz (baliabide teknikoak, biltzaile sarea…) | 2. Baliabide teknikoetan ez da inbertsiorik egin. Biltzaile sarea osatzeko lehen pausu txiki batzuk eman dira, jende gehiagorekin harremanetan jarriz grabazioak biltzeko. |
| 2018ko Kultur Intereseko Ondasun izendapenari aplikazioak bilatzea. | 1. Nafarroako bertsolaritzari buruzko ikerketak sustatu eta finantziatzea | - Euskarabidearen hitzarmenak horretarako aukera eman du, eta Nafarroako bertso plazaren 2007 eta 2022 arteko azterketa egin du Unai Irigaraik. Ikerketa lana ez da nahi bezain txukuna izan eta Euskarabideak ez du onartu, baina elkartearentzat baliagarri izan daiteke. |
| Nafarroako Bertsolaritzaren historia laburtua osatzea. | 1. Euskarri txiki bat sortzea, eskaerei erantzuteko: historia laburtua jasoko duen dokumentu bat | 1. Ez da egin. |
| Bertsolaritza eta Nafarroako jota bateratuko dituen egitasmoa diseinatzea. | 1. Joten inguruko erreferentziak identifikatu eta interlokuzioa abiatzea<br>2. Balizko proiektuaren nolakotasuna aztertzea | 1. Ez da egin<br>2. Ez da egin. |
| Nafarroan egindako elkarrizketak eta ikerketak bildu | 1. Kike Diez de Ulzurrun eta Pedro Diez de Ulzurrunek bere garaian bildutako materiala jaso eta argitalpena aztertzea. | 1. Ez da egin. |
| Elkarteko dokumentazioa eta fondoa antolatu, katalogatu eta eskuragarri jarri | | Antolatu zen, baina oraindik ez da funts eskuragarri bat. Dokumentalista batek egiteko lana da. |

## SUSTAPENA

| Helburuak | Ebaluazio adierazleak | BALORAZIOA |
|---|---|---|
| Bertsolari Txapelketa Nagusia2022 | 1. Nafarroako bertsolari, epaile eta gai-jartzaileak babestu | 1. Egin da, Lizarra eta Elizondoko kasuan.<br>2. Finalaren ekoizpena eta Koordinazioa Nafarroatik bideratu da, horrek dakarren lan-kargarekin.<br>3. Harreman instituzionalak hobetzeko eta bide berriak irekitzeko balio izan du.<br>4. Ez da propioki horretarako ezer egin; informalki egin da. |
| Bardo Eguna 2022 | 2. Helduen Bertso Eskolen sarea indartu eta harremanak bultzatu<br>3. Bertso Eskoletako ikasle helduen plazaratzea bultzatu | 1. Sarea indartu eta harremanak bultzatzeko balio izan zuen, baina autonomia eta inplikazio gehiago behar da Helduen Bertso Eskolen aldetik. Izen-ematea ere justua, gaur egungo Helduen Bertso Eskolen egoeraren seinale.<br>2. Heldu horiei plaza emateko balio du. |
| Eskolarteko Txapelketa 2022 | 1. Bertsolari gazteen plazaratzea bultzatu.<br>2. Bertsolari gazteen arteko harremanak sustatu.<br>3. Bertso Eskolei bultzada eman | 1. Bere neurrian, baina gazteei plaza emateko balio izaten du.<br>2. Hori ematen da, eta positiboa da.<br>3. Eskolartekoak ez du eragin zuzenik Bertso Eskolen martxan. |
| Plaza Biziberritzen 2.0. | 1. Pandemiak kaltetutako plaza motaren (lagunartekoak, librea…) berreskuratzea sustatu<br>2. Eragile txikiei bultzada eman, bertso saioak antolatu ditzaten<br>3. Nafarroako bertsolari eta gai-jartzaileei plaza ematea<br>4. Bertsolaritza herri eta auzoetako kultur agendetan txertatu eta egonkortu | 1-2. Bitartekari lanak egitera mugatu gara; egitasmo bat diseinatzen hasi ginen, baina Kultur Departamentuko diru-laguntzetatik kanpo gelditzean (Euskarabideako hitzarmenagatik), bertan behera utzi genuen.<br>3.Guk geuk antolatutako egitasmoetan hala bermatzen dugu; besteetan aholkua ematen dugu.<br>4. Ez da neurri zehatzik hartu norabide horretan. |
| Izeta Sariketa 2022 | 1. Sariketak behar dituen berrikuntzak/aldaketak planteatzea.<br>2. Bertsolari gazteen bertsogintzan sakontzeko aukera gisara | 1.Egin zen, Sariketaren egitura egutegiaren aukeretara moldatuz eta bertso afari gisako finala berreskuratuz. |

| | | |
|---|---|---|
| | baliatzea.<br>3. Bertsolari gazteen harremanak bultzatu (egonaldia) | 2. Gazteen parte hartze handia egon zen, eta bada haientzako aukera bat.<br>3. Egin zen, eta eskertu zuten. |
| Bertsoaroa 2022 | 1. Bertsolaritzaren unean uneko aniztasuna kalitatez Iruñeari eskaini<br>2. Bestelako formatuak/emanaldiak esperimentatzeko aukera<br>3. Egutegi berrian egonkortu | 1. Egin zen, egitarau anitza eta kalitatezkoa proposatuz.<br>2. Egin zen, ohiko egiturarekin: bi jaialdi, gazteen jaialdia, emanaldi bereziak ("Errre" eta "Bederatzikoa") eta haurrentzako tailerra.<br>3. Egin zen, otsailan, eta publikoak ongi erantzun zuen. |

| KOMUNIKAZIOA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| Barne komunikazioa: lantalde, borondatezko eta bazkideak informatuta mantentzea | Batzar Orokorra<br>Bertsozalea-n eta Barne Orrian Nafarroako informazioa bermatzea.<br>Zuzendaritzarekin harreman jarraitua.Bazkideen e-mail sarea. | - Egin zen, parte hartze txikiarekin. Bazkide guztiei egin zitzaien deia, email zein gutun arruntez.<br>- Egiten da, baina ez modu sistematizatu batean.<br>- Egiten da, email, whatsapp zein bileratan.<br>- Bazkideekiko email sarea ez da ia baliatzen, Batzar Orokorrerako izan ezik. |
| Kanpo komunikazioa: egitasmoen hedapena | Webgunea eta sare sozialak.<br>Prentsarekin etengabeko harremana: hitzarmenen aukera zehaztea.<br>Egitasmoen euskarri propioak.<br>Aurkezpen karta euskarri bezala baliatzea.<br>Bertso saioak antolatzeko katalogoa. | - Egunerokotasunean erabili dira, egitasmoen berri emateko. Formularioak ere gero eta gehiago baliatzen ditugu, oso erabilgarri zaigu.<br>- Egitasmokako harremana egiten da, ez dago hitzarmen iraunkorrik.<br>- Bai, egin dira eta hedatu.<br>- Ia ez da hedapenik egin.<br>- 2022ko tarifetara egokitu zen, eta digitalki zabaltzen dugu eskaeren arabera, baina ez dago hedapen estrategia jakin bat. |

| FEMINISMOA | | |
|---|---|---|
| **Helburuak** | **Ebaluazio adierazleak** | **BALORAZIOA** |
| Nafarroako bertso munduko emakumeen saretzean sakondu | Nafarroako bertso munduko emakumeen II.Topaketa | Antolatu zen baina azkenean bertan behera gelditu zen. Batzorde Feminista bera desaktibatua dago gaur egun. |